

***Nafarroako Hezkuntza Sistemari  
Buruzko Txostena***

***2008/2009 Ikasturtea***

**NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMARI BURUZKO TXOSTENA, 2008/2009 ikasturtea**

**Argitaratzailea**

Nafarroako Eskola Kontseilua. Hezkuntza Departamentua. Nafarroako Gobernua

**Legezko gordailua**

NA-1821/2000

## Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko txostena, 2008/2009 ikasturtea

### AURKIBIDEA

AURKEZPENA .....	9
1. LEGERIA.....	11
1.1. Legegintza garapena.....	11
1.1.1. Orokorra.....	11
1.1.2. Administrazioa .....	12
1.1.3. Ikastetxeak.....	13
1.1.4. Langileria.....	15
1.1.5. Ikasketak.....	16
1.1.6. Ikasleak.....	18
1.1.7. Ebaluazioa .....	19
1.1.8. Euskara.....	19
2. PARLAMENTU JARDUERA.....	21
2.1. Hezkuntzari buruzko parlamentu-jarduera.....	21
2.1.1. Parlamentuko osoko bilkuran aztertutako gaiak.....	22
2.1.2. Batzordeak hartutako gaiak .....	24
3. ZERBITZU OROKORRAK.....	31
3.1. Hezkuntzaren testuinguru geografiko, demografiko eta ekonomikoa, 2006/2007 ikasturtean.....	31
3.2. Egiturari dagozkion alderdiak.....	33
3.3. Hezkuntza sistemaren kalitatea .....	34
3.3.1. Ikastetxe publikoak .....	34
3.3.2. Ikastetxe adostuak.....	37
3.4. Berdintasuna .....	38
3.4.1. 2009-2011 Berdintasun plana: berdintasunerako marko estrategikoa.....	38
3.4.2. Ikastetxeetan berdintasuna osatzea: hobekuntzaren diagnostiko eta konpromezuak.....	38
3.5. Ikuskaritza .....	41
3.5.1. Ikuskaritza teknikoaren eta zerbitzuen zerbitzuko ekintzei buruzko txostena.....	41
3.5.2. Prestakuntza eta hobetze plana .....	42
3.6. ....	44
3.6.1. Ikastetxe publikoetako orientatzaileak.....	44
3.6.2. Ikastetxe adostuen orientatzaileak .....	45
3.7. Irakasleen sostengurako zentroak (C.A.P.) .....	46
3.7.1. Urteroko irakasleen prestakuntzarako plana .....	46
3.7.2. Helburu orokorrak, ekintza lerroak eta motak .....	52

3.8. Prestakuntza Garapenaren Sistema Nazional bat .....	55
3.9. Bibliotekak eta argitalpenak .....	69
3.9.1. Eskola biblioteketako Programa. Dokumentazio zentroa. ....	59
3.9.2. Argitalpenak.....	61
3.10. Arartekoaren jardura hezkuntzari dagokionean .....	63
3.10.1. 2008an aurkeztutako kexak .....	63
3.10.2. 2008an emandako ebazpenak .....	64
3.10.3. 2008ko abenduaren 31n erantzuteko zeuden ebazpenak .....	64
3.10.4. 2008an hezkuntzari dagokionez emandako gomendio eta iradokizun nagusiak .....	65
3.11. Comptos Ganberaren txostena .....	66
<b>4. ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK .....</b>	<b>67</b>
4.1. Becas. Convocatoria general del Gobierno de Navarra. Ayudas para la adquisición de libros de texto. Otras convocatorias .....	67
4.1.1. Ayudas complementarias del Gobierno de Navarra de carácter general .....	67
4.1.2. Ayudas para la adquisición de libros de texto .....	70
4.1.3. Ayudas específicas para Educación Especial.....	70
4.1.4. Ayudas estatales .....	71
4.2. La atención a la diversidad.....	73
4.2.1. Recursos ordinarios de atención a la diversidad en Educación Infantil, Primaria y Secundaria .....	75
4.2.2. Atención al alumnado de origen extranjero.....	80
4.2.3. Alumnado de estancia temporal.....	88
4.2.4. Alumnado hospitalizado .....	89
4.2.5. Ayudas económicas a los colegios públicos y concertados que atienden a minorías desfavorecidas.....	90
4.2.6. Plan de Lucha contra la Exclusión Social en Navarra .....	90
4.3. Programas de apoyo al aprendizaje de idiomas en la enseñanza ordinaria .....	91
4.3.1. Centros de especialización curricular en inglés .....	91
4.3.2. Actividades extraescolares en lengua extranjera.....	91
4.3.3. Programa académico en un centro educativo extranjero durante el primer trimestre del curso escolar para alumnado de 4º de ESO .....	92
4.3.4. Programa de verano en el extranjero .....	93
4.3.5. Ayudas para intercambios escolares .....	94
4.3.6. Cursos residenciales de Inmersión Lingüística para alumnos de 5º y 6º curso de Primaria (en Puente la Reina y Lumbier – inglés) y ESO (en Lumbier – inglés- y en San Juan de Luz – francés) .....	94
4.3.7. Programa English Week de inmersión en inglés durante el curso escolar para grupos de estudiantes de 5º y 6º de Primaria y 1º de ESO .....	94
4.4. Los planes de mejora de las competencias básicas del alumnado .....	95
4.4.1. Plan de mejora del alumnado de Primaria. ....	95
4.4.2. Plan de mejora del alumnado de Secundaria. Plan de Lectura.....	97
4.5. Los programas educativos de la Unión Europea .....	100
4.6. Actividades extraescolares.....	104
4.6.1. Actividades extraescolares.....	104

4.6.2. Escuelas viajeras.....	104
4.6.3. Itinerarios culturales .....	105
4.6.4. Rutas literarias .....	105
4.6.5. Rutas científicas .....	106
4.6.6. Programas de integración Aulas de la Naturaleza .....	106
4.6.7. Programa de recuperación y utilización educativa de pueblos abandonados .....	106
4.7. Asociaciones de Padres y Madres y Asociaciones de Alumnos.....	107
4.7.1. Asociaciones de Padres y Madres .....	107
4.7.2. Asociaciones de Alumnos y Alumnas .....	118
4.8. Asesoría para la Convivencia .....	119
4.9. Programa de Educación en Valores .....	122
4.10. Otros programas educativos .....	126
4.10.1. Ayuntamiento de Pamplona.....	126
4.10.2. Programas de la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona/Montejurra.....	127
4.11. Plan de Apoyo a la Familia.....	128
4.12. Jornada del Consejo Escolar de Navarra con los Consejos Escolares de Centro .....	132
<b>5. GIZA BALIABIDEAK .....</b>	<b>135</b>
5.1. Irakaskuntzako funtzio publikoa .....	135
5.1.1. Irakasle plantillaren bilakaera ikastetxe publikoetan .....	135
5.1.2. Irakasleen administrazio araubidepeko kontratazioak (aldi baterakoak) .....	136
5.1.3. Erlijio irakasleen kontratazioa.....	137
5.1.4. Funtzio publikoan sartzea eta espezialitate berriak eskuratzea .....	137
5.1.5. Lekualdatze lehiaketak .....	138
5.1.6. Beste deialdi batzuk .....	140
5.1.7. Irakasleen ordainsarien bilakaera .....	140
5.1.8. Erretiroak .....	141
5.1.9. Unibertsitatetik kanpoko irakasleen mahai sektoriala eta itunaren jarraipen batzordea.....	141
5.1.10. Unibertsitatetik kanpoko irakasleen Segurtasun eta osasun batzordea.....	143
5.2. Irakaskuntzako funtzio itundua.....	146
5.2.1. Irakasle plantillaren bilakaera itunpeko ikastetxeetan.....	146
5.2.2. Ordainsarien taulak itunpeko irakaskuntzan .....	147
5.2.3. Negoziazio kolektiboaren mahaia .....	148
5.2.4. Erakundeak, Nafarroako itunpeko irakaskuntzan .....	149
5.3. Administrazio eta zerbitzuetako langileak Plantillaren bilakaera .....	150
<b>6. IKASTETXEAK.....</b>	<b>151</b>
6.1. Ikastetxe publikoak.....	151
6.1.1. Ikastetxe kopuruaren bilakaera .....	151
6.1.2. Unitate kopuruaren bilakaera .....	154
6.1.3. Zerbitzu osagarriak .....	155
6.1.4. Gobernu organoak.....	156

6.1.4.1. Eskola Kontseiluetarako hauteskundeak .....	156
6.1.4.2. Ikastetxe publikoetako zuzendarien hautaketa .....	158
6.1.5. Instalazioak.....	158
6.1.5.1. Azpiegiturak.....	158
6.1.5.2. Ekipamenduak .....	165
6.2. Ikastetxe pribatu eta itunduak .....	172
6.2.1. Ikastetxe kopuruaren bilakaera .....	172
6.2.2. Unitate kopuruaren bilakaera .....	173
6.2.3. Zerbitzu osagarriak .....	174
6.2.4. Kide anitzeko gobernu organoak .....	176
6.2.5. Moduluak .....	177
6.3. Ratioak (ikasleak/ikastaldeko).....	182
<b>7. IKASLEAK.....</b>	<b>185</b>
7.1. Haur Hezkuntza. 0-3 urteko zikloaren garapena.....	185
7.1.1. Ongizate Departamentuaren mendeko 0-3 urteko zikloko ikastetxeak.....	185
7.1.2. Udalei eskualdatu gabeko 0-3 urteko Haur Hezkuntzako ikastetxeak, Familiaren Zuzendaritza Nagusiak diruz lagunduak. ....	186
7.1.3. Udalen mendeko Haur Hezkuntzako ikastetxeak .....	186
7.1.4. Administrazio baimena duten Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe pribatuak Nafarroako Foru Komunitatean .....	189
7.2. Ikasleak, hezkuntza etapen arabera .....	191
7.3. Lanbide Heziketako ikasleak.....	198
7.3.1. Lanbide Heziketa arautua .....	198
7.3.2. Lanbide Heziketako ikastetxe integratuak .....	207
7.3.2.1. Ikastetxe integratuei buruzko informazioa .....	207
7.3.2.2. Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetako ikasleak .....	207
7.3.3. Lanbide Heziketa Okupazionala .....	207
7.3.4. Lanbide Heziketa Etengabea .....	209
7.3.5. Lanbide Heziketarako inbertsioak .....	211
7.4. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak .....	212
7.5. Hizkuntza ikasketetako ikasleak.....	218
7.6. Arte ikasketetako ikasleak.....	221
7.6.1. Musika .....	221
7.6.2. Dantza .....	221
7.6.3. Arte Plastikoak eta Diseinua .....	222
7.7. Ikasle etorkinak.....	223
7.8. Helduen hezkuntzako ikasketetako ikasleak.....	230
7.8.1. Ikasketak eta ikasleak .....	231
7.8.2. Helduen Bigarren Hezkuntza .....	234
7.8.3. Esleitutako diru kopurua .....	235
7.9. Ebaluazioak.....	236
7.9.1. Nafarroako ikasleen promozio datuak.....	236
7.9.1.1. Lehen Hezkuntza .....	236

7.9.1.2.	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza .....	242
7.9.1.3.	Batxilergoa .....	248
7.9.1.4.	Berariazko Lanbide Heziketa .....	251
7.9.1.5.	Lanbide Hastapenerako Programak (LHP).....	252
7.9.2.	Hezkuntza sistemaren emaitzak Estatuko testuinguruan .....	253
7.9.3.	Unibertsitateko sarbide probak.....	259
7.9.4.	Sariak eta sari bereziak.....	262
8.	EUSKARA NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMAN .....	267
8.1.	Ikasleak hizkuntza ereduaren arabera sailkatuak 2008/2009 ikasturtea .....	267
8.1.1.	Banaketa orokorra Nafarroan.....	267
8.1.2.	Banaketa hezkuntza sareen arabera .....	268
8.1.3.	Banaketa hizkuntza eremuen arabera .....	269
8.2.	Euskarazko irakaskuntza garatzeko eta arautzeko jarduerak .....	272
8.2.1.	Banaketa hizkuntza eren arabera .....	272
8.2.2.	Garraio eta jantokirako laguntzak hizkuntza eredia aukeratzeagatik .....	272
8.3.	Irakasleen Euskarazko Hizkuntza Prestakuntza .....	274
8.3.1.	Euskaraz birziklatzeko ikastaro trinkoak, lan baimenarekin.....	274
8.3.2.	Euskara ikasteko ikastaroak, lan baimenik gabe .....	274
8.3.3.	Irakasleen hizkuntza hobekuntza .....	275
8.3.4.	Teknikarien eta aholkularien prestakuntza .....	278
8.4.	Hizkuntza indartzeko programak eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak.....	278
8.4.1.	Hizkuntza proiektuaren gaineko aholkularitza proiektua - "Hizkuntza eraldatzea" .....	278
8.4.2.	Hizkuntza berritzeko proiektuetarako sarien deialdia - Berrikuntza sariak .....	279
8.4.3.	Solaskide programa .....	279
8.4.4.	Bertsolaritza irakaskuntzan .....	280
8.4.5.	Gazteen lagunarteko erregistroak erabiltzeko programa - Lagunarteko hizkera .....	280
8.4.6.	Egonaldiak euskaraz .....	280
8.4.7.	Udalekuak .....	281
8.4.8.	Idazleak eskoletan .....	281
8.4.9.	Euskarazko antzerki topaketak .....	281
8.4.10.	Zientzia dibulgazioko hitzaldiak - Zientzia eta teknologia hitzaldiak .....	281
8.4.11.	Eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak – Euskara eskoletan .....	282
8.4.12.	Eskola lehiaketak – Lehiaketak euskaraz .....	282
8.4.13.	Ipuin kontalaria - Kontu kontari .....	283
8.4.14.	Bertso eskolak .....	283
8.5.	Nafarroako Gobernuak luzatzen duen euskararen gaitasun agiria (EGA).....	284
8.6.	Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa .....	286
9.	HEZKUNTZAKO AURREKONTUAK .....	287
9.1.	Konparatzeko datu orokorrak.....	288
9.2.	Hezkuntzako gastuak Nafarroan.....	294
9.2.1.	Hezkuntza Departamentuko gastuen aurrekontua.....	294

9.2.1.1. Hezkuntza administrazioko gastuen aurrekontu orokorrak .....	296
9.2.1.2. Sare publikoko gastuen aurrekontua .....	298
9.2.1.3. Sare pribatuko gastuen aurrekontua .....	301
9.2.1.4. Sare publikoko eta pribatuko irakaskuntzaren gastuen aurrekontua .....	303
9.2.1.5. Hezkuntza Departamentuko aurrekontuetako bestelako gastuak .....	306
9.2.1.6. Gastuen laburpen orokorra eta ratio esanguratsu zenbait .....	307
9.3. Zenbait kontu-sail esanguratsutan gauzatutako gastuaren bilakera .....	309
9.3.1. Langileak (I. kapitulua) .....	309
9.3.2. Gastu arruntak (II. kapitulua) .....	309
9.3.3. Transferentzia arruntak (IV. kapitulua) .....	309
9.3.4. Administrazioaren inbertsioak (VI. kapitulua) .....	310
9.3.5. Kapital-transferentziak (VII. kapitulua) .....	310
9.3.6. Departamentuaren ikastetxeen funtzionamendu-gastuak .....	310
9.4. KPI ofizialak, txosten honetan sartzen diren urteetan .....	313



---

Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko 2008/2009 ikasturteko txostena, Eskola Kontseiluak prestatua, 2009ko abenduaren 15ean izandako osoko bilkuran onetsia izan zen, aldeko 19 boto eta 3 abstentziorekin.

Ondoko pertsonak hartu zuten parte osoko bilkura hartan:

**Teresa Úcar Echagüe and.**

Kontseiluburua

**Antonio Iriarte Moncayola jn.**

Idazkaria

**Teresa Aranaz Jiménez and.**

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

**Valle Ballano Bueno and.**

HERRIKOA Gurasoen elkarten federazioaren ordezkaria

**Fernando Barainca Lagos jn.**

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria - FSIE-SEPNA

**Manuel Casado Velarde jn.**

Unibertsitateen ordezkaria

**Ernesto Delás Villanueva jn.**

SORTZEN Gurasoen elkarten federazioaren ordezkaria

**Francisco Javier Esparza Sánchez jn.**

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

**Jesús M<sup>a</sup> Ezponda Iradier jn.**

Izen handiko pertsona

**Francisco José Flores Pérez jn.**

Enpresarien elkarteetako ordezkaria

**José Miguel Gastón Aguas jn.**

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria - STEE-EILAS

**M<sup>a</sup> Soledad Garjón López and.**

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria - AFAPNA

**Pedro González Felipe jn.**

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

**Carmen M<sup>a</sup> González García and.**

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria

**Ignacio M<sup>a</sup> Iraizoz Zubeldía jn.**

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria

**José Jorge Lanchas Rivero jn.**

Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria - ANEG-FERE

**Francisco Javier Mangado Urdániz jn.**

Izen handiko pertsona

**Pello Mariñelarena jn.**

Nafarroako Ikastolen Elkarteko ordezkaria

**Pedro Rascón Macías jn.**

HERRIKOA Gurasoen elkarten federazioaren ordezkaria

**Luis M<sup>a</sup> Sada Enériz jn.**

Toki entitateetako ordezkaria

**Fernando Sesma Urzaiz jn.**

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

**José Javier Solabre Heras jn.**

CONCAPA Gurasoen elkarten federazioaren ordezkaria

**Javier Train Yubero jn.**

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria - CCOO



## AURKEZPENA

---

Nafarroako Eskola Kontseiluak 2009ko abenduaren 15eko osoko bilkuran onetsi zuen unibertsitatetik kanpoko Nafarroako hezkuntza sistemaren egoerari buruzko txosten hau, 2008/2009 ikasturteari dagokiona. Horrela betetzen da Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia arautzen duen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 11.1 artikuluan xedatutakoa.

Txostenak hartzen duen aldia 2008. urte naturaleko irailaren 1ean hasi eta 2009ko abuztuaren 31n amaitzen da, bi data horiek baitira formalki ikasturteari hasiera eta bukaera ematen diotenak. Edonola ere, kasu batzuetan, txostenean emandako datuek aipatutako ikasturtearen edo aldiaren muga tenporal zehatzak gainditzen dituzte. Adibidez, lehenengo atalean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean edo Estatukoan argitaratutako arauak jasotzen dira, eta horien artean egon daitezke txosteneko ikasturtearen hurrengoari dagozkion arauak. Izan ere, ezinbestekoa da arauak dagokien ikasturtea formalki hasi baino lehen argitaratzea.

Beste kasu batzuetan, informazioak lotura du informazio hori eman duen iturriak berak erabiltzen dituen erreferentzia tenporalekin. Hori da, hain zuzen ere, Hezkuntza Departamentuak gauzatutako gastuei buruzko atalarekin gertatzen dena, datu horiek Nafarroako Gobernuak onartutako Nafarroako aurrekontu orokorretatik hartuak baitira. Gauza bera gertatzen da Arartekoaren memoriei edo Parlamentuko memoriari buruzko atalarekin. Lehenengo kasuan erreferentzia 2008. urte naturala da; bigarrean, VIII. legegintzaldia, 2008ko maiatzaren 27tik 2009ko maiatzaren 27ra.

Hezkuntza Ministerioaren estatistika eta adierazleetatik etorritako informazioaren egoera berezia da, eskuragarri dauden daturik berrienak 2006/2007 ikasturtekoak direlako; eta antzeko zerbait gertatzen da Nafarroako ikasleen promozioari buruzko informazioarekin, eskuragarri dauden azken datuak 2007/2008 ikasturtekoak baitira.

Maiz, aurreko urteetako erreferentziekin osatzen da txostena. Horrela, sistemaren bilakaera ikusi ahal izateko datu segidak ematen zaizkie irakurleei.

Batez ere, Hezkuntza Departamentuko zerbitzuek emandako datuekin prestatu da txostena. Beste erakunde batzuk emandako datuak ere erabili dira: Industria Departamentuak, Familiaren Zuzendaritza Nagusiak, Arartekoak, gurasoen elkarten federazioek (CONCAPA, HERRIKOA eta SORTZEN), Nafarroako institutu-zuzendarien elkarteak (ADI), Iruñeko Udalak eta Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioak emandakoak. Horiei guztiei eskaini diguten laguntza preziatu eta ezinbestekoa aitortzen eta eskertzen diegu.

Beste autonomia erkidego batzuetako, Estatu mailako edo nazioarteko datuekin osatu da txostena, Nafarroako hezkuntza sistema Estatuko eta nazioarteko testuinguruarekin nolabait erkatzea ahalbidetzen baitute.

Egitura aldetik, txostena aurreko urtekoarekin bat dator funtsean.

Dokumentu hau irakurtzea, aztertzea eta analizatzea hezkuntza erkidegoarentzat interesgarria izan dadila espero eta nahi du haren zerbitzura dagoen Nafarroako Eskola Kontseiluak. Nahiko nuke txosten honek bere xede nagusia lortzea, alegia, Nafarroako hezkuntza sistema hobeki ezagutzen lagun dezala eta, horri esker, gure Komunitatean hezkuntzan interesa duten gizarteko sektore guztien arteko partaidetza, gardentasuna, topaketa eta lankidetzaz erraz dezala.

Iruñean, 2009ko abenduaren 16an.  
Nafarroako Eskola kontseiluburua  
Teresa Ucar Echagüe

## 1.- LEGERIA

Epigrafe honetan Hezkuntza Sailak edo Nafarroako Gobernuak 2008ko irailaren 1etik 2009ko irailaren 1era argitaraturiko arauak jasotzen dira; horien edukiak izaera orokorra dauka Erkidegorako, eta indarraldi mugagabea edo aldi baterakoa dute, ikasturtearen bukaerara edo arautzen duten prozeduraren ebazpena artekoa. Argitaratu gabeko arauak ez dira jaso, ezta (salbuespenak salbuespen) beste izendapen, obra kontratazioko espediente eta zerbitzu jakinei buruzko arau bereziak ere (adibidez, obra-espedienteak, ekipamenduak,...).

Halaber, Erkidegorako duten eduki orokor loteslea kontuan hartuta, Espainiako gobernu-organoei onetsitako arau batzuk ere jasota daude.

Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko 2007-2008 txostenean, 2008-2009 ikasturtean eragina izan arren 2008ko abuztuaren 31 baino lehen argitaraturiko arauak jaso ziren.

Arauak arloka bilduta daude, eta, talde bakoitzaren barruan, ordena kronologikoaren arabera bilduta.

Arloak honako hauek dira:

- Orokorra
- Administrazioa
- Ikastetxeak
- Langileak
- Irakaskuntza
- Ikasleak
- Ebaluazioak
- Euskara

Batzuetan, zenbakikuntza maila txikiagoarekin, arau batzuk beste zenbaitekin lotzen dira, gai berari buruzkoak direlako.

### 1.1. LEGEGINTZA GARAPENA<sup>1</sup>

#### 1.1.1. Orokorra

1. 89/2008 FORU DEKRETUA, abuztuaren 11koa, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duena. 2008ko irailaren 5eko NAO, 109. zenbakia.
2. 2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 21/2008 abenduaren 24ko FORU LEGEA. 2008ko abenduaren 31ko NAO, 159. zenbakia.
3. 4/2009 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 19koa, adingabeak telebistaren aurrean babesteko mekanismoen erabilera arautzen duena. 2009ko otsailaren 13ko NAO, 19. zenbakia.
4. 65/2009 FORU DEKRETUA, abuztuaren 10koa. Honen bidez aldatzen dira 89/2008 Foru Dekretua, abuztuaren 11koa, eta horren bidez onetsitako Oinarrizko Irakaskuntzarako Testu Liburua Finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea garatzeko Erregelamendua. 2009ko abuztuaren 28ko NAO, 106. zenbakia.

---

<sup>1</sup> Atal honetan Hezkuntza Sistemaren 2006-2007 ikasturteari buruzko txostenaren egitura errespetatzen da, bi atalen arteko lotura errazteko.

### 1.1.2. Administrazioa

1. 416/2008 EBAZPENA, irailaren 24koa, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana, 2008-2012 aldirako Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Plan Estrategikoa onesten duena.
2. 158/2008 FORU AGINDUA, irailaren 26koa, Hezkuntza kontseilariak emana. Honen bidez testu liburuak doan eskuratzeko programa finantzatzeko administrazioaren ekarpenaren gehieneko zenbatekoa finkatu da. 2008 urriaren 24ko NAO, 130. zenbakia.
3. 418/2008 EBAZPENA, urriaren 23koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, ikastetxe itunduetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko eta zuzendaria izendatzeko jarraibideak onesten dituena. 2008ko azaroaren 7ko NAO, 136. zenbakia.
4. 107/2008 FORU DEKRETUA, azaroaren 3koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak aldatzen dituena. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoa sortu zuen irailaren 10eko 183/2007 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren estatutu horiek. 2008ko azaroaren 19ko NAO, 141. zenbakia.
5. 123/2008 FORU DEKRETUA, abenduaren 15ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duena. 2009ko urtarrilaren 9ko NAO, 4. zenbakia.
6. 1/2009 FORU AGINDUA, urtarrilaren 7koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuen gutunak onesten dituena. 2009ko martxoaren 6ko NAO, 28. zenbakia.
7. 9/2009 FORU AGINDUA, Hezkuntzako kontseilariak emana, Itzulpen Bulegoa Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutuari atxikitzea xedatzen duena. 2009ko martxoaren 11ko NAO, 30. zenbakia.
8. 16/2009 FORU DEKRETUA, martxoaren 2koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa hein batean aldatzen duena. 2009ko martxoaren 27ko NAO, 37. zenbakia.
9. 17/2009 FORU DEKRETUA, martxoaren 2koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen enplegu publikoaren eskaintza onesten duena, 2009. urterako. 2009ko martxoaren 27ko NAO, 37. zenbakia.
10. 21/2009 FORU DEKRETUA, martxoaren 9koa, Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen irailaren 3ko 122/2007 Foru Dekretua aldatzen duena. 2009ko apirilaren 27ko NAO, 50. zenbakia.
11. 56/2009 FORU DEKRETUA, ekainaren 22koa, Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen irailaren 3ko 122/2007 Foru Dekretua aldatzen duena. 2009ko ekainaren 29ko NAO, 79. zenbakia.
12. 101/2009 FORU AGINDUA, ekainaren 22koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, kontseilari horrexek abenduaren 11n emandako 203/2007 Foru Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez Hezkuntza Departamentuko bulegoen atxikipena eta eginkizunak ezarri ziren. 2009ko ekainaren 29ko NAO, 79. zenbakia.
13. ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2009ko abuztuaren 10ean hartua, Nafarroako Eskola Kontseiluko edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko kideak aldatzen dituena. 2009ko abuztuaren 31ko NAO, 107. zenbakia.

### 1.1.3. Ikastetxeak

14. RESOLUCIÓN 337/2008, de 22 de julio, de la Directora General de Ordenación, Calidad e Innovación, por la que se autoriza la modificación, de forma experimental durante el curso 2008/2009, de la jornada escolar en centros educativos de la Comunidad Foral de Navarra. 2008ko irailaren 8ko NAO, 110. zenbakia.
15. 393/2008 EBAZPENA, irailaren 16koa, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana, baimen berria ematen diona Altsasuko "Iñigo Aritza Ikastola" ikastetxe pribatuari, haur hezkuntzako bigarren zikloko ikasketak emateko tokia aldatu baitu, eta, bidenabar, hezkuntza etapa horretako unitate kopurua handitzeko baimena ere ematen diona. 2008ko urriaren 17ko NAO, 127. zenbakia.
16. 429/2008 EBAZPENA, irailaren 26koa, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana, Nafarroan araubide orokorreko irakaskuntza ez-unibertsitarioa ematen duten ikastetxe itundu batzuei aldi baterako zenbait unitate izateko baimena ematen diona. 2008ko urriaren 27ko NAO, 131. zenbakia.
17. 512/2008 EBAZPENA, urriaren 13koa, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana, Altsasuko "Txioka Haur Eskola" Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe pribatuari ireki eta jarduteko baimena ematen diona. 2008ko azaroaren 3ko NAO, 134. zenbakia.
18. 419/2008 EBAZPENA, urriaren 23koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Bigarren Hezkuntzako institutuak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuak Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituen. 2008ko azaroaren 7ko NAO, 136. zenbakia.
19. 420/2008 EBAZPENA, urriaren 23koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak, Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoak eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoak Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituen. 2008ko azaroaren 7ko NAO, 136. zenbakia.
20. 421/2008 EBAZPENA, urriaren 23koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Arte Irakaskuntzen ikastetxe publikoak Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituen. 2008ko azaroaren 7ko NAO, 136. zenbakia.
21. 422/2008 EBAZPENA, urriaren 23koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituen. 2008ko azaroaren 7ko NAO, 136. zenbakia.
22. 427/2008 EBAZPENA, urriaren 27koa, Hezkuntza Departamentuko Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, San Adriango "Alfonso X el Sabio" Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoari baimena ematen diona 2008-2009 ikasturte aurrera atzerriko bigarren hizkuntza (Frantsesa) Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan alde aurretik irakasteko. 2008ko azaroaren 21eko NAO, 142. zenbakia.
23. 173/2008 FORU AGINDUA, azaroaren 7koa, Hezkuntza kontseilariak emana, Hezkuntza kontseilariak otsailaren 28an eman 41/2005 Foru Agindua aldatzen duena. Horren bidez, 0tik

- 3 urtera bitarteko haurrentzako udal titulartasuneko ikastetxeen kudeaketa eta ekipamendua finantzatzeko Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen artean eginen ziren hitzarmenen oinarriak ezarri ziren. 2008ko azaroaren 28ko NAO, 145. zenbakia.
24. 795/2008 EBAZPENA, abenduaren 23koa, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana, San Adriango "Casa Nostra-Gure Etxea" Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren baimena aldatzen duena, titulartasuna eta izena aldatzeagatik. 2009ko otsailaren 2ko NAO, 14. zenbakia.
25. 12/2009 FORU AGINDUA, otsailaren 11koa, Hezkuntzako kontseilariak emana. Horren bidez ezartzen dira ikastetxe publikoen eta pribatu itunduen eragin eremuak, Ikasleak onartzeko arauak ematen dituen apirilaren 2ko 31/2007 Foru Dekretuaren 7. artikuluan ezartzen direnak. 2009ko martxoaren 2ko NAO, 26. zenbakia.
26. 8/2009 FORU AGINDUA, otsailaren 4koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, haur hezkuntzako lehen zikloko udal ikastetxeetan, Hezkuntza Departamentuarekin egindako hitzarmenen bidez finantzatueta, familiek 2009-2010 ikasturtean ordaindu beharreko tarifak ezartzen dituen. 2009ko martxoaren 18ko NAO, 33. zenbakia.
27. 93/2009 EBAZPENA, otsailaren 23koa, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana, Oitk 3 urtera bitarteko haur hezkuntzako ikastetxe publikoak eraikitzeke Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateei diru-laguntzak emateko deialdia onesten duena. 2009ko martxoaren 23ko NAO, 36. zenbakia.
28. 99/2009 EBAZPENA, martxoaren 11koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, hautapen batzordeek Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publikoetan jarduteko izendatu zituzten zuzendariak ebaluatu eta berritzeko prozedura onesten duena. 2009ko martxoaren 27ko NAO, 37. zenbakia.
29. 36/2009 EBAZPENA, otsailaren 9koa, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana. Horren bidez Oinarrizko Hezkuntzan, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Batxilergoan eta Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloetan hezkuntza itunak aldatu eta luzatzeko arauak ematen dira, 2009-2010 ikasturterako. 2009ko apirilaren 1eko NAO, 39. zenbakia.
30. 39/2009 FORU AGINDUA, martxoaren 18koa, Hezkuntza kontseilariak emana, Hezkuntzako Departamentuaren mendeko irakaskuntza ez-derrigorrezkoen tarifak eta ikasleen egoitzetako prezioak finkatzen dituen. 2009ko apirilaren 3ko NAO, 40. zenbakia.
31. 100/2009 EBAZPENA, martxoaren 11koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko 4 ikastetxe publikotako eskolaldia 2009-2010 ikasturterako modu esperimentalean aldatzeko prozedura arautzen duena. 2009ko apirilaren 15eko NAO, 54. zenbakia.
32. ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2009ko ekainaren 1ean hartua, "Nafarroa 2012 Plana. Lehen Hezkuntzako jarduketaren Tuterako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak sortzea, "Huertas Mayores" behin-behineko izenarekin" gauzatzeko. 2009ko ekainaren 15eko NAO, 73. zenbakia.
33. ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2009ko ekainaren 1ean hartua, "Nafarroa 2012 Plana. Lehen Hezkuntzako jarduketaren Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak sortzea, "Buztintxuri" behin-behineko izenarekin" gauzatzeko. 2009ko ekainaren 15eko NAO, 73. zenbakia.



34. ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2009ko ekainaren 1ean hartua, "Nafarroa 2012 Plana. Lehentasunezko jarduketa. Eguesibarko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa sortzea, "Sarriguren" behin-behineko izenarekin" gauzatzeko. 2009ko ekainaren 15eko NAO, 73. zenbakia.
35. 191/2009 EBAZPENA, maiatzaren 8koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2008-2009 ikasturtean eskolaldia aldatzeko baimena izan zuten ikastetxeei baimena luzatzen diena, 2009-2010 ikasturterako. 2009ko ekainaren 22ko NAO, 76. zenbakia.
36. ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2009ko ekainaren 29an hartua, Iruñeko "Bernart Etxepare" Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa sortzen duena, "Arturo Campion" eta "Axular Ikastola" Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoek bat egin baitute. 2009ko abuztuaren 24ko NAO, 104. zenbakia.
37. 352/2009 EBAZPENA, ekainaren 29koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2009-2010 ikasturtean, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe batzuetan, eskolaldia modu esperimentalean aldatzea baimentzen duena. 2009ko abuztuaren 21eko NAO, 103. zenbakia.
38. 138/2009 FORU AGINDUA, abuztuaren 12koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, 2009-2010 ikasturtearen hasierako egutegi mailakatu ezartzen duena. 2009ko abuztuaren 21eko NAO, 103. zenbakia.

#### 1.1.4. Langileria

39. 17/2008 FORU LEGEA, azaroaren 6koa, 2008-2011 eperako martxoaren 23ko 6/2007 Foru Legean aurreikusitako borondatezko erretiroaren sari osagarriaren zenbatekoa ezartzen duena. Foru lege horren bidez unibertsitatetik kanpoko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri ziren eta borondatezko erretiroaren sari osagarri horren zenbatekoa finkatu zen. 2008ko azaroaren 18ko NAO, 140. zenbakia.
40. 3315/2008 EBAZPENA, abenduaren 4koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko maisu-maistren lanpostuak betetzeko deialdiak onesten dituena. 2008ko abenduaren 12ko NAO, 151. zenbakia.
41. 125/2008 FORU DEKRETUA, abenduaren 15ekoa, 2009. urterako lan publikoaren eskaintza bat onesten duena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko irakasle ez-unibertsitarioen lanpostuak betetzeko. 2009ko urtarrilaren 9ko NAO, 4. zenbakia.
42. 1/2009 EBAZPENA, urtarrilaren 2koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko maisu-maistren kidegoan sartzeko eta kidego horretako karrerako funtzionarioek maisu-maistren kidegoan espezialitate berriak eskuratzeko deialdia onesten duena. 2009ko urtarrilaren 21eko NAO, 9. zenbakia.
43. ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2009ko apirilaren 27an hartua, Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kiroleko Ministerioak, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak martxoaren 11n emandako 99/2009 Ebazpena ondorioz gabe uzteko egindako errekerimendua aintzat hartzen duena. Ebazpen horrek, hautapen batzordeek Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publikoetan jarduteko izendatu zituzten zuzendariak ebaluatu eta berritzeko prozedura onetsi zuen. 2009ko maiatzaren 15eko NAO, 59. zenbakia.

44. 60/2009 FORU AGINDUA, maiatzaren 8koa, Hezkuntzako kontseilariak emana. Onesten du zer arauen bidez kudeatu behar diren Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuarekin irakasle lanpostuetan aritzeko izangai zerrendak. 2009ko maiatzaren 29ko NAO, 66. zenbakia.
45. 202/2009 EBAZPENA, maiatzaren 13koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatzeko prozeduraren barrenean, hautatutako izangaien izenen zerrenda argitara ematen duena. 2009ko uztailaren 3ko NAO, 81. zenbakia.
46. 113/2009 FORU AGINDUA, ekainaren 30ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana. Honen bidez, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan Hezkuntza Orientazioa espezialitateko Bigarren Hezkuntzako katedradun eta irakasle lanpostuak kendu, langile horiek banatzeko eta Hezkuntza Orientazioko lanpostuak betetzeko deialdia onetsi, eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan orientatzaile eginkizunetan aritzeko ikastetxeak hautatzeko prozesua antolatzeko jarraibideak eta eginkizun horietan aritzeko moduari buruzkoak onesten dira. 2009ko uztailaren 29ko NAO, 93. zenbakia.
47. 351/2009 EBAZPENA, ekainaren 29koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendariak ohiz kanpoko prozeduraz izendatzen dituen, otsailaren 23ko 67/2009 Ebazpenean ezarritako prozedurari jarraituz. 2009ko uztailaren 22ko NAO, 80. zenbakia.

#### **1.1.5. Ikasketak**

48. 323/2008 EBAZPENA, uztailaren 16koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana. Honen bidez jarraibideak onesten dira Helduen Oinarrizko Hezkuntzako I., II. eta III. mailako ikasketa presentzialen eta III. mailako urrutiko ikasketen garapenari buruz, 2008-2009 ikasturterako. 2008ko irailaren 5eko NAO, 109. zenbakia.
49. 119/2008 FORU AGINDUA, abuztuaren 4koa, Hezkuntza kontseilariak emana. Honen bidez, helduentzako batxilergoko ikasketak araubide presentzian eta urrutiko araubidean ematea arautu eta antolatu da Nafarroako Foru Komunitatean. 2008ko irailaren 10eko NAO, 111. zenbakia.
50. 336/2008 EBAZPENA, uztailaren 22koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Bigarren Hezkuntzako institutu eta ikastetxe itundu pribatu batzuei baimena ematen diena hizkuntzak irakasteko Bigarren Hezkuntzako atzerriko hizkuntzen eta euskal hizkuntza eta literaturaren curriculumak Hizkuntzen Urrutiko Irakaskuntza Ofizialaren curriculumarekin bateratuz; betiere, NUHEO-Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialaren koordinaziopean. 2008ko irailaren 10eko NAO, 111. zenbakia.
51. 94/2008 FORU DEKRETUA, abuztuaren 25ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean Mekanizazioko teknikari tituluaren egitura eta curriculumak ezartzen dituena. 2008ko urriaren 3ko NAO, 121. zenbakia.
52. 95/2008 FORU DEKRETUA, abuztuaren 25ekoa, Analisisien eta Kalitate Kontrolaren Laborategiko goi mailako teknikariaren tituluaren egitura eta curriculumak ezartzen dituena Nafarroako Foru Komunitatean. 2008ko urriaren 8ko NAO, 123. zenbakia.
53. ERABAKIA, 2008ko irailaren 22koa, Nafarroako Gobernuak hartua, 2008ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen

- hamaikagarren xedapen gehigarriko I. eranskinean ezarritako hezkuntza itunen modulu ekonomikoak aldatzen dituena. 2008ko urriaren 10eko NAO, 124. zenbakia.
54. 149/2008 FORU AGINDUA, irailaren 11koa, Hezkuntza Kontseilariak emana, araubide bereziko hezkuntza ikasketen maila aurreratuaren antolaketa ezartzen duena. 2008ko urriaren 17ko NAO, 127. zenbakia.
  55. 92/2008 FORU DEKRETUA, abuztuaren 25ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean Sukaldaritza eta Gastronomiako teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena. 2008ko urriaren 22ko NAO, 129. zenbakia.
  56. 93/2008 FORU DEKRETUA, abuztuaren 25ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako goi mailako teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena. 2008ko azaroaren 19ko NAO, 141. zenbakia.
  57. 163/2008 FORU AGINDUA, urriaren 22koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, alemanezko, frantsesezko eta euskarazko hezkuntza ikasketen oinarriko mailako ziurtagiria lortzeko proba homologatuak arautzen dituena eta ziurtagiri hori lortzeko 2009ko deialdiak onesten dituena. Ikasketa horiek martxoaren 19ko 22/2007 Foru Dekretuak arautu zituen. 2008ko azaroaren 21eko NAO, 142. zenbakia.
  58. 375/2008 EBAZPENA, urriaren 29koa, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, baimena ematen duena 2008-2009 ikasturtean lanbide hastapeneko programak (lanbide lantegiak) ezartzeko, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe integratu politeknikoetan, Bigarren Hezkuntzako institutuetan, ikastetxe pribatu itunduetan eta irabazi-asmorik gabeko erakundeetan. 2008ko azaroaren 21ko NAO, 142. zenbakia.
  59. 647/2008 EBAZPENA, azaroaren 14koa, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana, 2008-2009 ikasturtearen hasieratik aurrera, Imarkoingo Goi Mailako Lanbide Heziketako Energia Berriztagarrien Ikastetxe Integratuan "Energia eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa" izeneko Berariazko Lanbide Heziketako goi mailako zikloa ezartzeko baimena eman, eta Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan oinarritutako curriculum berriarekin bat eskainiko diren zikloak eta Nafarroako Bigarren Hezkuntzako institutuetan eta Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetan jadanik eskaintzen ez diren zikloak adierazten dituena. 2008ko abenduaren 22ko NAO, 155. zenbakia.
  60. 118/2008 FORU DEKRETUA, abenduaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean Energia Eraginkortasuneko eta Eguzki Energia Termikoko goi mailako teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena. 2009ko otsailaren 2ko NAO, 14. zenbakia.
  61. 46/2009 FORU AGINDUA, apirilaren 2koa, Hezkuntza eta Kulturako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean batxilergoko ikasketen modalitatearen aldaketa arautzen duena. 2009ko apirilaren 29ko NAO, 51. zenbakia.
  62. 45/2009 FORU AGINDUA, apirilaren 2koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, hezkuntza sistemako lanbide heziketako irakaskuntzen barruko lantokiko prestakuntzako moduluen garapena arautzen duena, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan. 2009ko maiatzaren 8ko NAO, 56. zenbakia.
  63. 44/2009 FORU DEKRETUA, maiatzaren 4koa, Nafarroako Foru Komunitatean Instalazio Elektriko eta Automatikoetako teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena. 2009ko ekainaren 24ko NAO, 77. zenbakia.
  64. 47/2009 FORU DEKRETUA, maiatzaren 4koa, Nafarroako Foru Komunitatean Eraikuntza Metalikoetako goi mailako teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena.

2009ko ekainaren 26ko NAO, 78. zenbakia.

65. 46/2009 FORU DEKRETUA, maiatzaren 4koa, Nafarroako Foru Komunitatean Soldadura eta Galdaragintzako teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituen. 2009ko uztailaren 8ko NAO, 84. zenbakia.
66. 48/2009 FORU DEKRETUA, maiatzaren 4koa, Nafarroako Foru Komunitatean Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioko goi mailako teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituen. 2009ko uztailaren 13ko NAO, 86. zenbakia.
67. 42/2009 FORU DEKRETUA, maiatzaren 4koa, Nafarroako Foru Komunitatean Karrozeriako teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituen. 2009ko abuztuaren 14ko NAO, 100. zenbakia.
68. 45/2009 FORU DEKRETUA, maiatzaren 4koa, Nafarroako Foru Komunitatean Kimika Instalazioko teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituen. 2009ko abuztuaren 14ko NAO 100.
69. 139/2009 FORU AGINDUA, abuztuaren 18koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Hezkuntza Departamentuak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan sustatzen dituen programa eleanizetan ingelesez irakasteko behar diren hizkuntza betebeharrak finkatzen dituen. 2009ko abuztuaren 19ko NAO, 102. zenbakia.
70. 43/2009 FORU DEKRETUA, maiatzaren 4koa, Nafarroako Foru Komunitatean Osasun Larrialdietako teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituen. 2009ko abuztuaren 21eko NAO, 103. zenbakia.
71. 123/2009 FORU AGINDUA, uztailaren 1ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana. Honen bidez ezartzen dira musikako edo dantzako lanbide ikasketen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren edo Batxilergoaren arteko baliozkotzeak, Gorputz Hezkuntza irakasgaiaren salbuespenak, eta Batxilergoko irakasgai komunak eta musikako edo dantzako lanbide ikasketak gainditutakoan batxiler titulua lortzeko baldintzak. 2009ko abuztuaren 21ko NAO, 103. zenbakia.

#### 1.1.6. Ikasleak

72. 191/2008 FORU AGINDUA, abenduaren 4koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatuetan batxilergoko ikasketak egiten ari diren ikasleak ebaluatu, hurrengo mailara igaro eta haiei tituluak emateko arauak ezartzen dituen. 2009ko urtarrilaren 23ko NAO, 10. zenbakia.
73. 13/2009 Foru Agindua, otsailaren 11koa, Hezkuntzako kontseilariak emana. Horren bidez onetsi egiten dira diru publikoarekin ari diren Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasleak 2009-2010 ikasturtean onartzeko prozedura arautzen duten oinarriak. 2009ko otsailaren 27ko NAO, 25. zenbakia.
74. 28/2009 FORU AGINDUA, otsailaren 24koa, Hezkuntzako kontseilariak emana. Horren bidez onetsi egiten dira diru publikoarekin ari diren Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasleak 2009-2010 ikasturtean onartzeko prozedura arautzen duten oinarriak. 2009ko otsailaren 27ko NAO, 25. zenbakia.
75. 29/2009 FORU AGINDUA, otsailaren 24koa, Hezkuntzako kontseilariak emana. Horren bidez

onesten dira diru publikoarekin ari diren Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleak 2009-2010 ikasturtean onartzeko prozedura arautzen duten oinarriak. 2009ko otsailaren 27ko NAO, 25. zenbakia.

76. 34/2009 EBAZPENA, otsailaren 11koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, I. eranskinean aipatzen diren ikastetxeen zuzendaritzei Nafarroatik kanpo dauden unibertsitateekin lankidetzaz hitzarmenak sinatzeko eskumena eskuordetzea onesten duena. Hitzarmen horien xedea da unibertsitate horietako ikasleek maisutzako practicuma egin ahal izatea. 2009ko martxoaren 23ko NAO, 35. zenbakia.
77. 201/2009 EBAZPENA, maiatzaren 13koa, Hezkuntza Departamentuko Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, eguneko araubide ofizialean batxilergoko lehen mailan matrikulatutako ikasleen egoerari buruzko jarraibideak ematen dituena, ikasturtea amaituta hiru edo lau irakasgaitan ebaluazio negatiboa dutenen kasurako. 2009ko ekainaren 10eko NAO, 71. zenbakia.
78. 150/2009 FORU AGINDUA, apirilaren 16koa, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak emana, 2008-2009 ikasturtean kontsumo arloan egindako hezkuntza esperientziatarako diru-laguntzak emateko deialdia onesten duena. 2009ko ekainaren 10eko NAO, 71. zenbakia.
79. 324/2009 EBAZPENA, ekainaren 18koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko ikasketak 2008-2009 ikasturtean bukatu dituzten ikasleentzat antolatutako Batxilergoko Sari Bereziatarako deialdia egiten duena. 2009ko abuztuaren 10eko NAO, 98. zenbakia.

#### 1.1.7. Ebaluazioa.

80. 47/2009 FORU AGINDUA, apirilaren 2koa, Hezkuntzako kontseilariarena. Honen bidez Haur Hezkuntzako bigarren zikloan diharduten ikasleen ebaluazioa arautu da. 2009ko maiatzaren 1eko NAO, 52. zenbakia.
81. 52/2009 FORU AGINDUA, apirilaren 8koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemako lanbide heziketako ikasleen ebaluazioa, titulazioa eta ikasketen egiaztapena arautzen dituena. 2009ko uztailaren 1eko NAO, 80. zenbakia.

#### 1.1.8. Euskara.

82. 190/2008 FORU AGINDUA, abenduaren 2koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) erdiesteko 2008an egin ziren probak gainditu zituztenei agiri hori emateko baimena ematen duena. 2009ko urtarrilaren 30eko NAO, 13. zenbakia.

#### Foru Dekretuak

2008ko irailaren 1etik eta 2009ko abuztuaren 31ra, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuarekin lotura duten 21 Foru Dekretu onetsi ditu Hezkuntza Sailarekin lotuta.

**Foru Aginduak eta Ebazpenak:**

2008ko irailaren 1etik 2009ko abuztuaren 31ra, Hezkuntza Departamentuak honako Foru Agindu eta Ebazpen hauek onetsi ditu:

Jatorria	Foru Aginduak	Ebazpenak
<b>Idazkaritza Teknikoa</b>	88	1
<b>Ikuskapenaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusia</b>	8	3
Ikastetxeen eta Ikasketarako Laguntza Zerbitzua	1	207
Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua	3	32
Giza Baliabideen Zerbitzua	2	5
Obren eta Mantentze Lanen Zerbitzua	-	464
Nominen eta Aurrekontu-Kontrolaren Zerbitzua	1	231
<b>Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuz. Nagusia</b>	14	-
Antolamendu eta Berrikuntza Zerbitzua	13	132
Aniztasunaren, Orientazioaren eta Kultura aniz. Zerbitzua	2	92
Kalitatearen eta Genero berdintasunaren Zerbitzua	2	140
Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzua	8	236
<b>Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuz. Nagusia</b>	38	7
Arte Ikasketen Atala	2	28
Lanbide Heziketaren Zerbitzua	7	231
Unibertsitateko irakaskuntza, hedapen eta ikerketa zerbitzua	-	2
<b>Euskarabidea</b>	-	18
Hizkuntzaren Garapen, Programazio eta Ikerketa Zerbitzua	-	36
Euskararen gaineko Prestakuntza Zerbitzua	-	36
<b>Giza Baliabideen Zerbitzua</b>	-	2.685

Iturria: Hezkuntza Saileko Idazkaritza Teknikoa.

## 2. PARLAMENTU JARDUERA

### 2.1. Hezkuntzari buruzko parlamentu-jarduera, 2008ko maiatzaren 25etik 2009ko maiatzaren 25era bitartekoa.

Unibertsitatekoa ez den hezkuntzaren inguruan sorturiko parlamentu-jarduera, Parlamentuaren sustapen- eta kontrol-jarduerari dagokionez, Hezkuntza eta Kultura Batzordean edo Parlamentuko Osoko Bilkuran bertan garatzen da.

Hezkuntza eta Kultura Batzordeko kideak honako hauek dira:

Eratze-data: 2007ko irailaren 17a

#### MAHAIA

Mahaiburua: Nekane Pérez Irazabal andrea (NABAI)

Mahaiburuordea: Josefina Bozal Bozal andrea (UPN)

Idazkaria: Amanda Acedo Suberbiola andrea (SPN)

#### MAHAIKIDEAK

UPN	Esteban Garijo Pérez jauna
UPN	Carmen María González García andrea
UPN	Concepción Mateo Pérez andrea
UPN	Sergio Sayas López jauna
NABAI	Paula Kasares Corrales andrea
NABAI	María Luisa Mangado Cortes andrea
SPN	María Victoria Arraiza Zorzano andrea
SPN	Román Felones Morrás jauna
CDN	José Andrés Burguete Torres jauna
IUN-NEB	Ana Figueras Castellano andrea

#### Egindako bilkurak

Azterturiko gaiak oso anitzak izan dira. Aintzat hartu behar da, Batzordearen izenak dioenez, helburua hezkuntza dela, unibertsitateko hezkuntza barne. Ondoren eskaintzen diren datuak Nafarroako Parlamentuko jardueren memorian jasotakoak dira laburbilduta; VII. legegintzaldiko 2008ko maiatzaren 27tik 2009ko maiatzaren 27ra bitarteko aldiari dagozkio, eta unibertsitatekoa ez den hezkuntzari buruzkoak dira.

Batzordeak **35** bilkura egin ditu.

### 2.1.1. Parlamentuko osoko bilkuran azterturiko gaiak

Jarduera mota	Kop.
Foru Legeko proposamenak	2
Jabeldurak	1
Mozioak	8
Ahozko erantzuneko galderak	18

#### Foru Legeko Proposamenak: 2

1. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5) b artikulua aldatu duena. Osoko Bilkurak kontutan hartu: 2008-06-26. Bilkura egunaria: 29. zenb. NPAO., 2008-07-03.
2. 11/1998 Foru Legearen aldaketa, uztailaren 3koa, Batxilergoa, Erdi Mailako Heziketa Zikloak eta Gizarte Garantiako Programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena. Osoko Bilkurak kontutan hartu: 2008-10-30. Bilkura egunkaria: 35. zenb. NPAO. 2008-11-5.

#### Foru Legeko Proiektuak: 2

3. 2008-2011 denboraldirako 6/2007 Foru Legean aurreikusitako borondatezko erretiroaren sari osagarriaren zenbatekoa ezartzen da. Lege horrek, martxoaren 23koa, aldez aurreko erretiroa eskatzen duten Unibertsitatetik kanpoko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri eta borondatezko erretiroaren sari osagarri horren zenbatekoa finkatzen ditu. Osoko Bilkurak kontutan hartu: 2008-10-30. Bilkura egunkaria: 35. zenb. NPAO: 100 zenb., 2008-11-10. Bozketen emaitza: BAI: 48; EZ: 0; ABS: 0. Zenbakia eta argitalpen ofizialak. 17/2008 Foru Legea, azaroaren 6koa, NAO, 140 zenbakia, 2008-11-17.

#### Mozioak: 5

1. Nafarroako Gobernuari ikasleen eskolatzeari dagokionez behar berriekin eta hiri garapenekin gehiago bat datorren Iruñaren eta Eskualdearen zonifikazio berri bat egiteko eskabidea egiteari buruzkoa. Osoko bilkurako eztabaida: 2008-06-12. Bilkura egunkaria: 28. zenb. Bozketen emaitzak: BAI: 26; EZ: 24; ABS: 0. Ebazpena: 59. zenb. NPAO.
2. Nafarroako Gobernuari Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera 2008-2009 ikasturtetik aurrera Magisteritza ikasten duten pertsonen atzerriko hizkuntza batean irakasteko behar den hizkuntza gaitasuna har dezaten kolaborazio hitzarmenak eta neurriak hartzeko eskabidea egiteari buruzkoa. Osoko bilkurako eztabaida: 2008-06-26. Bilkura egunkaria: 29. zenb. Bozketen emaitzak: BAI: 34; EZ: 11; ABS: 0. Ebazpena: 62. zenb. NPAO 2008-07-3.
- Ikastetxeen plangintza eta gestioa: irakaskuntza-ikaste eta pertsonen gestioaren prozesuak.
- LOE inplantazioarekin zerikusirik duten aldaketak eta curriculumaren oinarriko eskumenak.



- Ezagupenak didaktika espezifikotan
- Berdintasunaren integrazioa eremu guztien ikastean.
- TICen integrazioa bultzatzea geletan eta eskola liburutegietan.
- Hezkuntza Departamentuak bultzatutako ikastetxe eleaniztunen proiektua eta hizkuntza programak indartzen dituen hizkuntza tratamendu integratua.
- Balioen hezkuntza, bereziki elkarbizitzarekin zerikusirik daukatenak, aniztasunari arreta eta kultura desberdinen integrazioa.
- Ikastetxeetako koordinazio, orientazio eta tutoretzaren alderdiak.
- Lan osasunaren eta arrisku prebentzioen programak. Programas de Salud Laboral y Prevención de Riesgos.

Prestakuntza planean, gai hauek hezkuntza sistemak eskaintzen dituen irakaskuntza bakoitzari eta bai indibidualak eta bai ikastetxeakoak diren irakasleen prestakuntza beharrei egokitutako prestakuntza ekintzen bidez garatzen dira:

- Haur Hezkuntza.
- Lehen Hezkuntza.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- Batxilergoa.
- Lanbide Heziketa.
- Hizkuntza ikasketak.
- Arte ikasketak.
- Kirol ikasketak.
- Helduen ikasketak.
- Interetapak.

### **Prestakuntza motak:**

#### 1. Ikastetxeei aholkularitza.

Mota honen helburua irakats taldeei beren curriculumaren garapenaren prozesuetan laguntzea da: programazio didaktikoen elaborazioa, garapena eta ebaluazioa; prestakuntza ekintzetatik edo material didaktikoetatik sorutako proposamenak gelan aplikatzea. Ekintza hauetako edozeinean, ikastetxe bateko irakasleek zalantzak edo zailtasunak aurkitu ditzake eta eskatu irtenbide posibleak aurkitzera orientatzen duen kanpoko aholkularitzako kolaborazioa. Egoera hauei aurre egiteko eskaintzen da mota hau hezkuntza maila eta curriculumaren eremu guztietan.

Bere izaera irekiagatik garatzeko edukiak ezin dira planean modu antolatuta batean aurreratu, nahiz eta irakats taldeek, eskaera identifikatu ondoren, prestakuntza sarera eramango duten.

Ikastetxeak behar den CAPEan eskaera egin ondoren, erreferentzi aholkulariak harremana hartuko du irakasle taldearekin, eskakizuna argituko du, lan plan bat diseinatuko da, beharrezko baliabideak erraztuko ditu eta bultzatuko du tadekide guztien parte-hartze erantzulea hauek gero eta modu autonomoago batean egin dezaten etab eren eskumen profesionala gehitu dezaten.

#### 2. Prestakuntza moduluak.

Moduluek batez ere ikastetxe, etapa eta/edo Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle taldeei zuzendutako heziketa mota bat osatzen dute.

Mota honen helburua izan daiteke irakasle taldeentzat eremuetan lan dinamika bat hastea, programazio didaktikoaren diseinu eta garapenean oinarritzotzat jotako aspektu bat sakontzea edo lan modu zehatz batekin sentsibilizatzea. Horregatik moduluek beren arreta eremu baten eduki

espezifikoetan zentratzen dute, edo izaera psikopedagogikoko gai orokorretan. Ekintzaren garapenean beti bilatuko da edukien egokitze hobea zuzenduta dagoen irakasle taldearen beharrei.

Hau irakasle taldeei zuzendutako mota bat izanez, bere egiterako ezinbesteko baldintza da ikastetxe, hezkuntza maila edo departamentu bateko irakasle gehienak parte hartzea. Baita elkartu daitezke ikastetxe hurbileko bi edo hiru irakasle talde edo interes komunekin edo amankomunean lan traiektori aduen lur eremu baten irakasleak. Eskatutako irakasleen gutxienezko kopurua da erdiko talde bati egokituko litzaiokeena, hau da, hamar pertsona gutxi gora behera.

Kasu batzuetan modulua betetzen da parte hartzen duten irakasleei ikastearen bidez ikasitako edukien aplikazio praktikoa edo sakontzea uzten dion jarraipen fase batekin.

Garrantzitsua ere bada modulua bide formatibo baten parte bat osatzen duela ulertzea, etab aita ikastetxe bera izango dela bere geroagoko prestakuntza ezarriko duena, Zentro Seminario bezala, edo lan taldeak bezala, etab. Bertan jasotako prestakuntzan sakondu ahal izateko.

### 3.- Seminarioak

Seminarioak hezkuntza gai batean sakontzeko ekintzak dira eta irakasleen inplikazio gradua handiagoa da. Haien oinarritzko helburua da irakasle multzo garrantzitsu batek parte hartzen duen hobekuntza marko bat izatea da. Faseka egituratuta daude, haietako bat teorikoa da eta kanpoko aholkularitza batean oinarrituta dago eta bestea oso praktikoa, horretan parte-hartzailea gelan aplikatu ahalko diren errealizazioak burutzen dituzte. Mota honen ezaugarri azpimarragarrienak honako hauek dira:

- Lanbide praktika hobetzea taldeka lan eginez, edukiak aztertuz eta beharrezko prestakuntza planifikatzeko inizatibak proposatuz.
- Parte-hartzaileen ekarpenetatik datozen hezkuntza gai batzuren ikasketan sakontzea. Esperientzien truke eta barne eztabaida lan prozedura komunak dira.
- Seminarioa osatzen dutenen lan proposamenak zehaztea ekintzaren deialdiak ezarritako edukien definiziotik abiatuta. Ekintzaren zuzendaritza eta jarraipena dagokion aholkulariari egokituz aia, taldekide bat koordinatzaile izan daitekeelarik.
- Azken memorian isladatutako talde lana ebaluatzea. Memoria horretan bilduko dira, gutxienez, bere kideen etengabeko asistentzia eta asistentzia aktiboa, ekarpen indibidualak, lortutako ondorio praktikoa keta egindako materiala. Material hauek dagokion CAPen gordeta egongo dira eta Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeen artean difunditu ahalko dira, egileen jabetasun intelektuala salbu izanez.

### 4. Lan taldeak.

Lan taldea da autonomia gehien daukan prestakuntza mota eta ikastetxeetan dauden irakasle taldeen prestakuntza osagarriaren espazio bat da. Mota hau ikastetxe bat edo zenbait ikastetxerenak edo maila desberdinakoak diren edo curriculumaren gaien egitearekin edo zenbait gairen tratamendu didaktikoarekin zerikusirik daukatenak.

Lan talde bakoitza gutxienez bi pertsonaz osatuta egongo da, haietako bat lan koordinazioaren funtzioa izango duelarik.

Taldeak lan plan bat egingo du eta bere inguruko CAPen aurkeztuko du dagokion eredu erabiliz. CAPak, bere talde pedagogikoaren bitartez, bere bideragarritasuna ikasiko du, taldearekin lan egingo du proiektua profilatu eta zehazteko eta beharrezkoak diren laguntza material eta formalak eskainiko ditu aurreikusitako lanaren ekimenerako.

Lana bukatuta, taldeak memoria bat egingo du eta han egindako ekintza isladatu eta ebaluatuko da.

### 5. Ekintza zientifiko eta didaktikoren ikastaroak.

Ikastaroak modu indibidualean hartutako irakasleei zuzendutako mota bakarra dira. Ikastaro hauen edukia curriculum arearen oinarriko zientzian zentratzen da eta bere aplikazio didaktikoan, nahi zeta kasu batzutan, eta bereziki programa espezifikotan, gaurkotze ikastaroa kez daude narea edo maila edukatibo batekin lotuta.

Prestakuntza mota hau irakaskuntza ekintza errebisatzeko beharrei saiatsen da erantzuten inskribatzen den maila edukatiboaren aldaketeei egokitzeko. Teoria eta praktikaren arteko lotura bermatu nahi da, bere praktika profesionalari buruzko hausnarketari esker.

### 6. Beste mota batzuk.

Zenbait prestakuntza ekintzak aurreko puntuetan aurreikusten ez diren motatan antolatzen dira.

Ikastetxeetako seminarioak irakasle talde desberdinak integratzeko planifikatutako ekintzak dira, ikastetxe bakoitzak azpimarratutako curriculumaren zatiak prestakuntza komuntzat lantzeko. Mota hau aurrerakoitzat jo daiteke bide formatiboetan.

Emanaldi berriemaileak dira iraupen txikiko ekintza puntualak dira. Normalean gelako material eta baliabide zehatzak aurkezten dira eta bere potentzialitate didaktikoa analizatzen dira.

Jardunaldiak bi ardatz nagusiren inguruan egituratzen diren lan emanaldiak dira: alde batetik, adituen hitzaldiak, txostenak edo komunikazioak curriculumarena re desberdinetan, et abestalde, erakusketak daude eta haietan ikastetxeek, ziklo taldeek eta departamentu didaktikoez aurkezten dituzte esperientziak gelan, beste irakasleek ezagutu ditzaten eta beste ikastetxe batzutarara eramateko.

Ibilbideak ikastetxearen inguru hurbilean egiten diren lan proposamenak dira eta lan proiektu handiagoren barruan daude kokatuta, ezagutzeko eta baliabide bat bezala erabili ahal izateko. Adibidez: medioko ezagupena eta interpretazioa, ingurugiroko prozesuak eta arazoak, sozialak, teknologikoak, lan metodologia egokiak, lan hauen ikuspuntuak, elkarbizitza eta bate zere trukea errazten diren talde ekintzak.

Elkarrizketa taldeak atzerriko hizkuntzetako irakasleentzat topaketa lekuak dira eta han talde murriztuetan eta jaioterriko baten sustengoarekin, hala balitz, irakasten den hizkuntza erabiltzen da, bere gaitasun komunikatiboa hobetzeko asmoz, ahozko produkzio eta arintasuna bultzatuz, eta hizkuntza horretaz gai kulturaleri eta gaurkotetasunaren gaiak komentatu ahal izateko.

Berrikuntza proiektuek, mota formatibo bezala, bultzatzen dute prozesu didaktikoen inguruko hausnarketa, curriculumaren edukiei buruzko ikerketa sistematikoa, estrategia metodologikoak, baliabide teknologikoak eta antolatzaileak, eta bere jarrera praktikan. Azken batean, irakasle taldeen nabarmenkeria jarrera inbestigatzailea estimulatzen duten programa berritzaileen diseinuan, garapenean eta aplikazioan, eta gelako praktika eta sustatzen duen teoriaren arteko harreman emankor ona eduki, ezinbesteko elementutzat irakasleen funtzio hobesteko.

Azkenik, koordinazio seminarioak dira haien beharregatik haien gelako ekintzak koordinatzeko aldizka biltzeko beharra duten landatar ekoletako, ikastetxe txikietako irakasleak edo profesionalak. Beren bileren edukia behar den CAPari buruzko informazioa ematen duen talde pedagogikoari ematen dion zonako ikuskariak ezagutzen du. Ekintza hauek, berez prestakuntza ekintzak ez izanez, ez dute agirik ematen.

### 3.7.1.2. Prestakuntza planaren ebaluazioa.

Prestakuntza planaren ebaluazioa bere oinarriko elementu bat da. Bere helburua transferentzia hobeto ezagutzeko da, hau da, irakasleak hezitua egiten duen erabilpena, bigarren momentuan ikasleen ikas prozesuan daukan inpaktua aztertzeko. Horretarako, erabilitako diseinuak aztertzen dira eta baita garatutako ekintza formatiboaren ezaugarriak.

Irakasle praktikan aldaketen bultzatzaile bezala ematen zaion balioak eragin handi aizan behar du lan horren helburuak zehazteko eta etorkizuneko planei begira, plan honen garapean ebaluatzen diren aspektuak edo dimentsioak murrizteko.

Ikuspuntu honetatik prestakuntza planaren ebaluazioak honako helburuak ekarri beharko lituzke:

- Kritikoki ezagutu nola planifikatzen den eta nola egiten den irakasleen prestakuntza eta zeintzuk diren lortutako emaitzak.
- Edozein prestakuntza motako garapenean sortzen den barne dinamika ezagutu, gero dagokion jarrera emateko.
- Prestakuntzaren garrantzia baloratu praktika edukatiboaren egituran eta ekintzan.
- Erabakiak hartu programak kontrastatutako iritzien oinarrian ajustatzeko.

Planaren ebaluazioa martxan jartzen diren prestakuntza prozesuak hobeto ezagutzen eta bere garapenerari buruzko erabakiak hartze uzten duen prozesu erreflexibo bat. Prozesu honetan Prestakuntza Planaren planifikazio eta garapeneko momentu desberdinetan funtzio espezialitatekin parte hartzen duten guztiak.

Ebaluazio planak prozesuan bai kanpoko eta bai barruko elementuak integratzen ditu, prestakuntza sarearen elementuek lortutako barruko ikusmena kontrastatu erabiltzen dutenenarekin eta baita ikastetxeetan eragin zuzenarekin Administrazio edukatiboaren beste zerbitzu batzuren.

### **3.7.1.3. Prestakuntza ekintzei buruzko oharrak.**

Etengabeko prestakuntza irakasleen eskubidea eta beharra, kalitate faktore bat eta hezkuntza sistemaren beharra izanez, onartzen dira hezkuntza ekintzen ekimena errazten duten neurriak.

Ikastetxeek bere egoeraren diagnostiko bat egiten dute beharrezko ekintza formatiboak ezartzeko.

Prozesu hau ikastetxeko plangintza orokorrean islatuko da, urteroko planean.

Irakasleen prestakuntza irakasleen ekintza bat gehiago bezala islatzen da eta, beti Inspektzio tekniko eta zerbitzuen zerbitzuaren baimenarekin, prestakuntza ikas ordutegian egin ahalko da.

Antolatzen duen erakundearekin hitzarmenik ez dagoen beste instituzio batzuk antolatutako ekintzetan, posible da horietara joateko behar den gastua finantziatzea. Ekintza horiek finantziatzeko bi bida nagusiak dira laguntza indibidualak eta ikasketeengatiko lizentziak.

Planak zertifikazio sistema bat ezartzen du.

Planak bere garapenerako neurri extraordinarioak hartzen uzten du. Haien artean, bere eraginkortasunera eta errentabilitaterako gutxiengotzat jotzen den inskripzio kopuru zehatza lortzen ez duten ikastaroak ezabatzea.

Planean ikusten ez diren eskaerak bideratuko dira irakasleen sustengorako ikastetxeen bidez. Hauek proposamenak aztertuko dituzte eta, behar denean, garatuko dituzte.

### **3.7.1.4. Planean ez aurreikusitako ekintzetarako laguntzak**

#### **3.7.1.4.1. Laguntza indibidualak.**

Prestakuntza planen barruan antzeko ekintzarik ez duen prestakuntza ekintzetarako asistentzia errazten du. Horretarako, 2008-2009 ikasturterako irakasleen prestakuntzarako ekintzetako laguntza ekonomiko indibidualen deialdi publikoa onartu zen, 700/2009 otsailaren 27ko Ebazpenaren bidez. Ez unibertsitate maila guztietako ikastetxe publiko edo pribatuen irakasleentzat dira, bai erregimen orokorreko bai erregimen berezikoentzat.

Deialdiak bi modalitate ditu:

- Espainian burututako ekintzak: gehienezko laguntza 250 euro
- Atzerrian burututako ekintzak: 500 euro.

<b>12. koadroa - Prestakuntza ekintzetarako emandako laguntza indibidualak, 2004/2005tik 2008/2009ra bitarteko kurtsoak.</b>					
(eurotan)					
<b>Eskaerak</b>	<b>2004/05 ikasturtea</b>	<b>2005/06 ikasturtea</b>	<b>2006/07 ikasturtea</b>	<b>2007/2008 ikasturtea</b>	<b>2008/2009<sup>3</sup> ikasturtea</b>
Emandakoak	37	44	45	72	-
Behin-behinekoak emandakoak	7	7	14	19	-
Ez onartuak	4	4	16	2	-
Behin-behinekoak Ez onartuak	-	-	9	-	-
Oso tara adjudikazioa	12.308	18.000	24.000	24.600	13.232

*Iturria: Genero berdintasun eta kalitatearen zerbitzua.*

### 3.7.1.4.2. Lizentziak ikasketengatik.

2008-2009 ikasturterako ikasketengatik hamasei lizentziaren deialdia onartu zen, 227/2007 abenduaren 31ko Antolamenduaren Ebazpenaren bidez, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendari Nagusiak emana, irakasle funtzionarioentzat edo Hezkuntza Departamentutik menpe dagoen kontratatutako fijoentzat.

2008-2009 ikasturterako lizentzia hauek deituta egon diren modalitateak, dagokien lizentzien kopuruarekin batera, honako hauek dira:

A) Izaera akademikoko ikasketak.

A.1) Azken ikasturte akademikoa egin nahi duten eta honako baldintzak betetzen dituztenentzat: azken ikasturtearen ikasgairik ikasi ez izana eta aurreko ikasturteetatik zintzilik urtero bi ikasgai baino gehiago ez izan.

A.2) Ematen den arearekin zerikusirik duen tesi doktora edo funtzioa garatzen dena.

A.3) Masterra, edo unibertsitateek bermatutako unibertsitate ikasketak, ematen den arearekin zerikusirik dutenak edo funtzioa garatzen dena.

B) Batez ere gai hauek buruzko Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuak:

- Hezkuntza baloreetan ikastetxeetako elkarbizitzaren konfliktoak aurreikusteko eta soluzionatzeko helburu nagusiarekin.
- Kohezkuntza perspektiba kohezkuntzatzailea eta generoa ikuspegia hezkuntza sistemara ekartzeko helburu nagusiarekin eta gizon eta emakumeen berdintasunera aurreratu.
- Irakasleen lan baldintzak: lan osasuna, konziliazioa, lan arriskuen prebentzioa edo gaixotasun profesionalak, berddintasuna.
- Irakur planak, eskola bibliotekak.
- Atzerriko hizkuntzen irakaskuntza eta bereziki Lehen eta Bigarren hezkuntzan ingeles vehicularraren funtzionamendua.
- Proposamen antolatzaileak, metodologikoak edo ebaluaziokoak ikastetxeetan.

<sup>3</sup> Esta información no está disponible, ya que el plazo de presentación de solicitudes finaliza el 15 de septiembre de 2009.

- Ikastetxeetako kalitatea, etengabeko hobekuntzara.
- Ikasleen dibertsitateari arreta, ekintza tutoriala eta ikastetxeetako hezkuntza orientazioaren papera indartu eta sakonduz.
- Informazio eta komunikazio (TIC) teknologien aplikazio didaktikoa irakaskuntza eta ikaste prozesuetan, eta baita esperientzi aberrien inbestigazioa eta erabilpenaren metodoak.
- Hizkuntza inmersioko geletan eskumenen garapenerako proiektuak.
- Lehen eta bigarren hezkuntzako neska eta mutilen egoera diferentziala bere oinarriko eskumenen garapenean aztertzen duten curriculum material experimentalaren garapena.
- Ikasketa keta karrera aukeratzeko orduan nesken eta mutilen arteko diferentziak indarrak gabe uzten duen orientazio profesionala.
- Irakaskuntzan eta ikasketan autonomiaren garapenaren estrategiak: ikasten ikasi.
- Area eta etapa desberdinen programazioaren proposamena eta edukien garapena LOEren eskumenen markoan.
- 215/2008 maiatzaren 5eko Ebazpenaren bidea, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2008-2009 ikasturterako ikasketengatik hamalau lizentzia eman ziren, irakasle funtzionarioentzat edo Hezkuntza Departamentuaren<sup>4</sup> menpeko pertsonal kontratatu fijoarentzat.

Honako laguntzak eman ziren:

A Modalitatea:

A.1: 3 laguntza.

A.2: 3 laguntza.

A.3: 3 laguntza.

B Modalitatea: 7 laguntza.

Osotara 27 eskaera espediente aurkeztu ziren:

- 1 ez onartua izan zen deialdiaren oinarrien arabera.

- 12 baztertuta izan ziren deialdiaren oinarrien arabera.

### 3.7.2. Garatutako prestakuntza ekintzen datak:

<b>13. koadroa - Programa orokorrak, Irakasle prestakuntzarako ekintza kopurua, 2008/2009 ikasturtea.</b>						
	<b>Lizarra</b>	<b>Lekarotz</b>	<b>Iruña</b>	<b>Tafalla</b>	<b>Tutera</b>	<b>OSOTARA</b>
Haur hezkuntza (1. zikloa)	1	2	5	1	5	14
Haur hezkuntza (2. zikloa)	1	1	5	2	2	11
Lehen Hezkuntza			13	1	4	18
Bigarren Hezkuntza		2	33		7	42
Lanbide Heziketa			34			34
Interetapak	14	15	17	21	14	81
Helduen Hezkuntza			2		1	3

## ZERBITZU OROKORRAK

Hezkuntza berezia			15		1	16
Teknologia berriak	4	7	18	17	3	49
Programa zehatzak <sup>4</sup>	4	1	84	5	4	98
Erregimen berezian <sup>5</sup>			14 <sup>6</sup>			14
CAP ekintzak			4			4
<b>Osotara</b>	<b>24</b>	<b>28</b>	<b>244</b>	<b>47</b>	<b>41</b>	<b>384</b>
Osotara prestakuntza orduak	42	7	206	13	31	299
Berataratuak	<b>66</b>	<b>35</b>	<b>450</b>	<b>60</b>	<b>72</b>	<b>683</b>
Agirien kopurua <sup>7</sup>	<b>1.387</b>	<b>1.096</b>	<b>10.376</b>	<b>1.084</b>	<b>1.847</b>	<b>15.790</b>

Iturria: Prestakuntza eta Berrikuntza edukatiboaren zerbitzua.

### 14. koadroa - Irakasleen Prestakuntzarako ekintzetarako aurreikusitako gastuaren eboluzioa, 2005tik 2009ra.

(eurotan)

	2005 urtea	2006 urtea	2007 urtea	2008 urtea	2009 urtea
Irakasleen prestakuntza ekintzak (Prestakuntzarako programa orokorrak)	516.941	550.000	648.000	712.800	390.000
Hezkuntza berrikuntzarako programak/erreforma	63.000	63.000	120.000	90.000	50.000
Hizkuntzen irakasleen prestakuntza (Hizkuntza modernoetan irakasleen erreziklajea)	38.000	38.000	57.040	514.000	450.000
Lanbide heziketaren irakasleen gaurkotze eta hobetze (Lanbide heziketan irakasleen erreziklaje programak).	131.371	131.271	131.371	147.254	120.000
Euskarazko irakasleen hobetze (euskarazko irakasleen hizkuntza hobetze programak)	53.700	53.619	55.764	62.505	40.000
Irakasleen prestakuntza distantzian (Teknologia berrien programak)	210.100	210.000	218.400	226.044	210.000
Argitalpenak, ikasketak eta hezkuntza esperientziak	150.000	150.000	246.000	280.000	30.000
<b>Osotara</b>	<b>1.163.112</b>	<b>1.195.990</b>	<b>1.476.575</b>	<b>2.032.603</b>	<b>1.290.000</b>

Iturria: Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza orokor teknikoak. Aurrekontuen eta gestio ekonomikoaren atala.

4 El apartado de Programas Específicos recoge actividades referidas a: Programas Específicos, Multiculturalidad, Formación de Equipos Directivos, Orientación Escolar, Educación en Valores, Salud Laboral (prevención de riesgos) y Bibliotecas Escolares, Convivencia e Integración de la Igualdad.

5 Incluye programas para Conservatorios, Escuelas de Danzas, Música e Idiomas

<sup>6</sup> Se incluyen 2 actividades de la Escuela de Idiomas y 12 actividades de Lenguas Extranjeras.

7 Profesorado participante que culmina su formación

<b>15. koadroa - Irakasleen prestakuntzarako programen laburpena.2004/2005tik 2008/2009rako ikasturteak</b>				
	<b>Ekintza kopurua</b>	<b>Ordu kopurua</b>	<b>Agiri kopurua</b>	<b>Aurrekontua (euroko milaka)</b>
2004/2005	446	10.330	5.438	1.163
2005/2006	521	12.065	7.953	1.196
2006/2007	604	12.498	8.288	1.476
2007/2008	642	14.845	9.155	2.032
2008/2009	683	15.790	9.912	1.290

*Iturria:Hezkuntza prestakuntza eta berrikuntzaren zerbitzua.*



### **3.8. Prestakuntza Garapenaren Sistema Nazional bat, 2008/2009 urtea**

Nafarroan lanbide heziketaren irakaskuntza berriak garatzen ari den prozesuak bi ardatz garbi ditu erreferentzi bezala. Haietako lehenak helmen estatala dauka eta Nafarroatik Estatuko marko normatibo erregulatzailerak laguntzen duen aspektu diferenterekin harremanetan dago. Hori da energia eta sektoreko kualifikazioen diseinua, lanbide heziketaren tituluen planteamendua familia profesional honetan, eskumenen akreditazioaren prozedurako materialak egiten dituzten lan taldeen kolaborazioa, 1224/2009 Errege Dekretuaren bidez, orientazio profesionala, kualifikazioen gaurkotze eta errebisorako metodologia egokiak hartzen dituzten lan komiteetan parte-hartzea, etab.

Bigarren erreferentzi ardatza da Nafarroako eremuan ekintzen eta proiektuen garapena. Bigarren ardatz honek, 2008-2009 ikasturtean eta datozen ikasturteetan, funtsezko nabarmenkeria hartuko du datozen hamarkadetakoa lanbide heziketaren eraikitze prozesuan. Zentsu honetan gogoratu behar da 2005eko apirilaren 4ko Hitzarmena, Nafarroako Gobernuak emana "Lanbide Heziketari eta kualifikazioen sistema nazional berriari buruz". Honek 5/2002 Lege Organikoak "kualifikazioei eta lanbide heziketari buruz" erregulatutako Nafarroako kualifikazio eta lanbide heziketaren garapenerako marko bat ezarri du. Hitzarmen honek ezartzen ditu Nafarroako kualifikazio sistemaren garapenerako eta inplantaziorako elementu kritikotzat Nafarroako ikastetxe integratuen sormena, Lanbide orientazioko sare integratua eta eskumen profesionaleko akreditazio prozesuak.

Halaber, Hezkuntza Departamentuko ikuspuntutik, lanbide heziketaren titulu ofizialen onarpena ekintza oso aipagarria da Nafarroako hiritar eta enpresentzat.

2008-2009 urtean lau aspektu horietako bakoitzean aurrerapenak honakoak izan dira:

#### 1. Ikastetxe integratuak.

Nafarroako Gobernuak 63/2006 Foru Dekretua onetsu zuen, irailaren 4koa, Nafarroako Foru Komunearen eremuan lanbide heziketaren ikastetxe integratuak erregulatzeko duena, lehen Komunitate Autonomoa izanik aipatu erregulazioan 1558/2005 abenduaren 23koa onetsi ondoren. Dekretu honek oinarritzko arauak biltzen dituen lanbide heziketaren ikastetxe integratuen oinarritzko baldintzak ezartzen ditu.

Geroago 119/2006 Foru Agindua onetsi izen, urriaren 3koa, izaera esperimentalez lanbide heziketako zenbait ikastetxe publiko zentru integratu politeknikotzat jotzen dituenak, eta 1173/2006 Ebazpena, azaroaren 14koa, Eskola eta Profesionalen kasketen zuzendari nagusiak emana, ikastetxe integratu politeknikoetan proiektu pilotu esperimentala martxan jartzeko, aipatu Hezkuntza Kontseilariaren Foru Aginduaren bidez, izendatuak izan diren lanbide heziketako ikastetxeen sustengo plana garatu eta definitzen duena.

Hirugarren esperimentalaren zehar, zenbait aurrerapen egin dira, eta haien artean hauek daude:

- LHren Nafarroako Kontsiluak egindako ikastetxe integratuentzako ekintza planaren elaborazioa eta Hezkuntza Departamentuaren sostengua behar diren proiektu funtzionalei emateko.
- Lanbide heziketaren lerro estrategikoen aplikazioan aurrerapena, bereziki nazioarteko programen garapenean eta informazio eta orientazio profesionalaren inplantazioan.
- Nafarroan garatzeko ikastetxe integratuaren ereduaren kasketa, arautegi organiko berri baten gainean izango lituzkeen ondorioekin.

## 2. Orientazio profesionalaren sare integratua.

Sare honek, Interneteko portal batek lagundua eta Lanbide Heziketaren Nafarroako Kontseiluak bultzatua eta Nafarroako enplegu zerbitzuak garatua Hezkuntza Departamentuaren laguntzarekin, helburu nagusia du pertsonen bide profesional eta formatiboekin zerikusirik duten erabakian hartzen laguntzea, aldi berean bermatuz lan merkatua, integrazio laborala eta konpetitibitatearen arteko egokipen zuzena.

2008-2009 ikasturtean informazio eta orientazio pertsonalaren sare integratuaren egitura garatu da, eta gehitu dira enplegu, hezkuntza eta agente ekonomiko eta sozialen arteko edukiak. Kontrastatu dira web tresta honen erabilpenak lanbide heziketaren sei ikastetxeren laguntzarekin.

2009ko ekainaz geroztik posible da portal honetarako sarbide publikoa eta lanbide heziketaren ikastetxeek gaitasuna daukate sartzeko eta dagokien edukiak gaurkotu.

## 3. Eskumenaren akreditazioa

Sistemaren ardatz bat da, besteen artean, formalak ez diren eta informalak diren ikastetik datozen konpetentzia profesionalak onartzea eta balioztatzea. Estatuak prozedura hau erregulatu du, Nafarroaren aldetik ekarpen garrantzitsuekin, 1224/2009 Errege Dekretuaren bidez.

Gaurregun aipatu oinarriko arauaren garapenean lantzen ari da, Hezkuntza Departamentutik eta baita Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguaren aldetik ere.

Azpirarratzekoa da osasun larrialdietako teknikari tituluko langileei egindako eskaintza, tituluak lortzeko frogan markoan, 1538/2006 Errege Dekretuak ezarrita, honetan lanbide esperientzia onartzeko prozedura integratu da eta utzi du 1224/2009 Errege Dekretua garatzen den unean aplikatzekoak izango diren metodologietan aurreratzen.

## 4. Lanbide heziketaren titulu berrien diseinua.

Katalogo nazionalaren kualifikazioak dira oinarriko erreferentzia dira Estatuak tituluak diseinatzeko. Kualifikazio pertsonalen katalogo nazioanala, lurralde nazional osoan aplitzekoa, osatuta dago sistema produktiboko kualifikazio identifikatuz eta baita haiekin lotutako formazio asoziatuarekin heziketa profesionala eta sistema produktiboaren arteko egokitzapena erraztuz.

Nafarroako Foru Komunitateak, Nafarroako kualifikazioen Institutuaren bidez, zuzenean kualifikazio profesionalen katalogo nazionalen parte haru du, energia et auraren familia profesionalaren garapenean. Prozesu honetan zuzendu dituzte espertu nazional talde bat, nazioartekoak, prestakuntzan espertoak eta enpresetako ordezkariak. Hauek, orain arte eta azkeneko zenbait adostasun faltan, diseinatu dituzte hurrengo kualifikazio profesionalak (beltzean 2008-2009 ikasturterako diseinatutakoak):

### UR ETA GAS AREA

- Ur sareen muntaia eta mantenimendua
- Gas sareen muntaia eta mantenimendua
- Jasotze instalakuntzen eta gas aparatuen muntaia, zerbitzuan jarraipen, mantenimendua eta inspektzioa.

- Ur eta saneamendu instalakuntzen eta sareen mantenamendu eta muntaiaren kontrola eta antolakuntza.
- Gas sareen muntaiaren eta mantenamenduaren gestioa.

#### ENERGIA BERRIZTAGARRIEN AREA

- Parke eoliko muntaia eta mantenamenduaren gestioa.
- Instalazio solar fotoboltaiketako muntaia eta mantenamendua
- Instalazio solar termikoen muntaia eta mantenamendua
- Instalazio solar fotoboltaiketako antolakuntza eta proiektuak
- Instalazio solar termikoen antolakuntza eta proiektuak

#### ERAGINKORTASUNAREN AREA

- Eraikuntzen eraginkortasun energetikoa.

#### ELEKTRIZITATE PRODUKZIOAREN AREA

- Zentral termoelektrikoetako operazioaren gestioa
- Zentral hidroelektrikoetako operazioaren gestioa
- Subestazio elektriko muntaia, operazio eta manenamenduaren gestioa

Nafarroako kualifikazioen Institututik parte hartu da Energia eta Ura (ENA) familia profesionalaren tituluen diseinu lanean, etab aita beste familia batzutako tituluen disinuaren kolaborazioan, espertuen parte-hartzearen bidez. Parte hartu den ENAren tituluak hauek dira:

- Eraginkortasun energetiko eta energia solar termikoko goi mailako teknikaria (1177/2008 Errege Dekretua)
- Energia berriztagarrietako goi mailako teknikaria (onartze prozesuan)
- Zentral elektrikoetako goi mailako teknikaria (onartze prozesuan)

Nafarroako LH tituluen curriculum eta egituraren garapena.

Halaber, Hezkuntza Departamentuak 2009-2010 ikasturtean inplantazioko eta beren eskaintza dagoeneko gure Komunitatean ematen zen ordezkatzan duten curriculumen garapena eta adaptazioa. Zehatz-mehatz, honako tituluak dira:

- DF 46/2009 Soldadura eta kaldereria teknikaria.
- DF 42/2009 Karrozeria teknikaria.
- DF 45/2009 Planta kimikoko teknikaria.
- DF 43/2009 Osasun larrialdietako teknikaria.
- DF 46/2009 Instalakuntza elektriko eta automatikoko teknikaria.
- DF 48/2009 Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioaren goi mailako teknikaria.
- DF 47/2009 Konstrukzio metalikoetako goi mailako teknikaria.
- DF /2009 Autozioko goi mailako teknikaria.

Aurreko titulu hurrengoak gehitu behar zaizkio, 2007-2008 ikasturtean onetsia keta inplantatuak izan zirenak:

- DF 92/2008: Sukaldaritza eta Gastronomia teknikaria
- DF 94/2008: Mekanizatuan teknikaria.
- DF 93/2008: Haur Hezkuntzan goi mailako teknikaria.
- DF 95/2008: Analisi eta kalitate kontrolaren Laborategiko goi mailako teknikaria.
- DF 118/2008: Eraginkortasun energetikoko eta energia solar termikoko goi mailako teknikaria.

Titulu guzti hauen egituraren eta curriculumaren garapena izan da irakasle taldeek egindako proposamenen bidez, eta baita gure ingurugiro territoriala, naziona eta europarrari buruzko gaurkotutako ikasketa sektorialen bidez. Titulu guzti hauek kokatuta daude 5/2002 Lege Organikoaren garapenean, kualifikazioei eta lanbide heziketari buruz, 2/2006 Lege Organikoaren garapenean, Hezkuntzako, Estatuaren titulu bakoitzaren onarpenari dagokion Errege Dekretuen garapenean eta baita 54/2008 Foru Dekretuaren garapenean ere, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren lanbide heziketaren garapena eta antolakuntza ezartzen dituena. Titulu berri hauen oinarria dira duela gutxi onetsitako eta enpresei egokitutako kualifikazio profesionalak. Enpresen eta erakundeen espertuen talde nazionalek defendatu dituzte, etorkizunari begira, eskumen profesional azpimarragarrienak. Geroago Nafarroan antzeko lana egin da titulua gure egoera soziolaboral eta ekonomikoei egokitzeko, baita Hezkuntza Departamentuak planteatu duen ikuspegi didaktikoari eta antolatzailearekiko eta komenigarriena den aukera estrategikoari. Gainera, titulu baten helburua hezteaz denez, ez bakarrik tekniko onak, baizik eta benetako profesionalak, titulu bakoitzaren egiturak zenbait kalifikazio profesional ditu eta baita enpleabilitate espektro handiago baterako eta hezkuntza pertsonaleko sendotasun handiagorako oinarritzko prestakuntza gehigarria.

### **3.9. Bibliotekak eta argitalpenak.**

#### **3.9.1. Eskola biblioteketako Programa. Dokumentazio zentroa.**

Hezkuntza Departamentuaren biblioteka eskolarren programatik bultzatu eta koordinatu dira ekintza asko ikastetxeek eta irakasleek haien bibliotekak bihur ditzaten baliabideetako hezkuntza praktikak indartzen laguntzen duten, baita bere errealitatearekin bat plan lektorren elaborazioarekin kolaboratzen duten eta baita ikaste prozesuan gero eta autonomia handiagoa uzten duten baliabide aniztunak eskaintzen duten espazio dinamikoa.

#### **Hezkuntza Departamentuaren barruan burututako ekintzak**

Antolakuntza eta Berrikuntza zerbitzuaren Dokumunikazio zentroa arduratzen da azken eskuratze bibliografikoen eskuratzeaz, katalogazioa zeta informazioa zeta eskaintzen du bilaketa bibliografikoen eta aholkularitza dokumentalaren zerbitzu bat. 2008-2009 eskola ikasturtean 160 erregistro berri etorri dira fondo dokumentalera.

Era berean, irakurketarekin eta eskolako liburutegiekin zerikusia duten jardueraz arduratzen da, Hezkuntzako, Gizarte Politikako eta Kiroleko Ministerioarekin, beste autonomia erkidego batzuekin eta Nafarroako Gobernuo Kultura Departamentuarekin elkarlanean. Beste batzuetan bezala, Jardunbide egokiak eskola liburutegietan Lehiaketa Nazionalako 2008-2009 ikasturteko memorien ebaluazioan parte hartu da.

#### **Hezkuntza Departamentuko beste liburutegi batzuetan egindako jarduerak**

Dokumentazio Zentroak harreman estua du Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) liburutegiekin, Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroko (EIBZ) liburutegiarekin eta, hein txikiago batean, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko (NHBBZ) liburutegiarekin.

Honetan datza elkarlana: alderdi teknikoetan laguntzea, hala nola, Abies 2 programaren eguneratzea, programa hori liburutegi horietako beharrei egokitzea, eta antolaketarekin eta seinalizazioarekin (SHUeko posterrak eta apalategietako eta guneetako kartelak) zerikusia duten materialak banatzea eta baita dokumentu bibliografikoak eskuratzea ere.

#### **Ikastetxeei zuzendutako jarduerak**

Ikastetxeei aholkularitza zuzena ematea

Gero eta ikastetxe gehiagotan erabiltzen da Hezkuntza Departamentuko Dokumentazio Zentroan hedatutako liburutegi eredua. Horrek liburutegietako funtsen antolaketari eta informatizatzeari buruzko kontsulta kopurua handitu du.

Aholkularia joan da hala eskatu zuten ikastetxeetara. Kotsultak mota hauetakoak izan dira: gune eta funtsen banaketa; liburutegiko funtsak katalogatzeko nazioarteko arauak praktikan ezartzea (SHU); Abies 2 programa informatikoa instalatzea; informazioa bilatu eta hedatzea.

2007-2008 ikasturtean Lehen zein Bigarren Hezkuntzako 20 ikastetxe bisitatu dira.

Aholkularitza telematikoa

Badira zazpi urte zerbitzu hau abian dela eta bertako parte-hartzea handia da. Abies erabiltzen duten ikastetxeek kotsultak egin ditzakete PNTEren eskola liburutegietako berrietan edo Hezkuntza Ministerioak Nafarroako Foru Komunitatearen eskura jarri zituen posta elektronikoko helbideen bitartez; helbide horiek Abiesen webgunean daude.

2008-2009 ikasturtean 50 kotsulta izan dira, zeinak erantzuteaz gainera datu-baseen berrikuspena eta hobekuntza eskatu zuten.

Abies 2 eskola liburutegiak kudeatzeko programa mantentzeko lanak

Eskola liburutegi bateko lan teknikoak errazten dituen programa honen eskaria handia da, eta aldatu eta eguneratzen ari da, katalogatzeko eremu batzuetan gertatzen diren arazoak direla-eta. Ikasturte honetan eguneratu egin da programa, gaur egun erabiltzen den bertsiora iritsi arte: Abies 2.0.8.3. Era berean, katalogoko kontsultak on line egiteko aukera ematen duen Bonsai programaren hedapena erraztu da.

Eskola liburutegien webgunea

Kontsultak hobetzeko eguneraketa berri bat egin da.

Irakurketa kanpainak familian

Ikasturte honetan jarraitu da irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko Departamentua sustatzen ari den *Familia irakurlea* izeneko kanpainarekin. Seme-alabak Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan dituzten familiei aurten **Galaxiacomic** programa proposatu zaie. Honako honetan gurasoei eskatu zitzaizen eskola liburutegi edo liburutegi publiko batera joan eta han zikloko sei komiki irakurtzea. Hau guztia egin zen sare osorako hautaturiko lanak erosi zituzten liburutegi publikoen sarearekin koordinaturik.

Ikastetxeek aurreko kanpainetako eskuorriak (gaztelaniaz eta ele biz) eska ditzakete.

Ikasturte honetan ere prestatu eta banatu da Villar Arellanok idatzitako *¿Jóvenes y Lectura? Algunos interrogantes sobre la lectura en la adolescencia* (Gazteak eta irakurketa? Zenbait zalantza nerabegaroko irakurketaren gainean) izeneko informazio eskuorria, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen familiendako prestatua.

Horrela, liburutegien programak parte hartu du irakurketan txertatutako gaitasunak hobetzeko proiektuan aurrez ikusitako ekintzetako batean.

Funts berriez hornitzea eskola liburutegiak eta irakurketa gidak

Prestakuntza jarduerekin eta ikastetxeetako liburutegietan komikiak sartzeko familia irakurlearen kanpainarekin batera, ikastetxeetan banatu da *Los babilonios* liburua, Saurék argitaratu eta Martínez de Antoñanak idatzitakoa. Gaztelaniaz eta euskaraz.

Era berean, palestinar errefuxiatuen esparruen gainean Aldea GKE-k argitaratutako lana banatu da.

Eta, orobat, CIVICANen 2009ko irakurketa gidak.

Sariak

Zortzigarren urtez jarraian Irakurketa sustatzeko sarietarako deia egin da eta 2009ko irailean epaia emanen da.

<b>16. koadroa Prestakuntza jarduerak eskola liburutegietan. 2008/2009 ikasturtea</b>	
<b>Jarduerak</b>	<b>Parte-hartzea - Ziurtagiriak</b>
Abies 2.0. Oinarrizkoa	27
Eskola liburutegian nola ikasi eta ikertu. Proiektu dokumental integratuak. Moodle-n	50
<i>Baliabide dokumentalak ikastetxeetan</i> funtzionario berrien hasierako prestakuntzarako modulua	600
Liburutegiaren gaineko lantaldeak	6
Eskola liburutegien mintegia	40

*Iturria: Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzua*

### 3.9.2. Argitalpenak

Testu eta Material Didaktikoen Bulegoak 2008ko uztailaren 1etik 2009ko ekainaren 30a bitartean testu hauek argitaratu ditu:

### **Blitz, liburutegiko sagua**

- Leer y escribir en la era de Internet
- Irakurtzea eta idaztea Interneten garaian
- Argumentar para debatir
- Debaterako argudiatu

### **Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren argitalpenak**

- Hezkuntzako adierazle-sistema Nafarroan 2007
- Ebaluazio diagnostikoaren esparru teorikoa. Lehen Hezkuntza
- Ebaluazio diagnostikoaren esparru teorikoa. Bigarren Hezkuntza
- Ebaluazio diagnostikorako koadernoak
- English Literacy (CD ROMa) (Ebaluazio diagnostikoa)
- Ebaluazio diagnostikoaren esparru teorikoa. Lehen Hezkuntza
- Ebaluazio diagnostikoaren esparru teorikoa. Bigarren Hezkuntza
- Ikasleen oinarritzko gaitasunen ebaluazio diagnostikoa (hiruorrikoa)
- Ikasleen oinarritzko gaitasunen ebaluazio diagnostikoa
- Komunikazio gaitasuna: testu idatzien ekoizpena

### **Curriculumak**

- Batxilergoko curriculumak I. I. liburukia / Batxilergoko curriculumak II. II. liburukia / Bizikidetzarako hezkuntza
- Zurekin barre egin, ez zutaz barre egin

### **Lanbide Heziketa. Lantokietako prestakuntza**

- LP (Lantokietako prestakuntza)

### **Ikasketa gida**

- DBH: beste urrats bat
- DBH: beste urrats bat
- LOE Batxilergoa
- Batxilergoa LOE

### **Instrumenta**

- La Posadera de Carlo Goldoni

### **Irakurketa plana**

- Galaxia Comic (gaztelaniaz / euskaraz)
- Gazteak eta irakurketa? (gaztelaniaz / euskaraz)
- Con la lectura ganamos altura (berrinprimaketa)
- Irakurmena hobetzeko plana (triptikoa)
- Moodle plataforma (foiletoa)

### **Berrikuntza sariak**

- Carlo Goldoniren *La Posadera*

### **Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarrizko gaitasunen hobekuntza plana**

- Lehen hezkuntzako ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzeko plana
- Ibilbide literarioak Nafarroan
- Kultura ibilbideak Nafarroan: diplomak
- Ospitaleko hezkuntza unitatea (triptiko elebiduna)
- Graduko unibertsitateko ikasketetara sartzeko probak (diptiko elebiduna)
- Petilla Aragoi VII. Sariketa (diptikoa)
- Curriculum Bereziko Unitateetan (CBU) irakasle esperientziak trukatzeko jardunaldiak
- El mutismo selectivo / Mututasun selectiboa (CD ROMa) (NHBBZ)
- El proceso evaluador de las necesidades educativas del alumnado con altas capacidades / Adimen gaitasun handiak dituzten ikasleen hezkuntza premien ebaluazio prozesua (CD ROMa) (NHBBZ).
- Ezgaitasun-aniztasuna duten ikasleak. (CD ROMa) (NHBBZ)
- Ikastetxe publikoak antolatzeko eta jarduteko jarraibideak. 2009-2010 ikasturtea

### **2009ko irailean argitaratzeko tramitatzen ari diren argitalpenak**

- Hezkuntza proiektua eta proposamen pedagogikoa Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan (0-3 bilduma)
- DBHn irakurketa gaitasunak hobetzeko plana (2008-2009) (Irakurketa plana)
- Gatazken bitartekaritza eta konponketa (Bizikidetzarako hezkuntza)



### 3.10. Nafarroako Arartekoaren jarduerak hezkuntza arloan

#### 3.10.1. 2008an aurkeztutako kexak

Erakundeak 2008. urtean prestatu zuen urteko txostenean jasotakoaren arabera, Nafarroako Arartekoak 2008an hezkuntzari buruzko 34 kexa jaso zituen, hau da, kexa kopuru osoaren %5,26.

Azken hiru urteetan pixkana-pixkanaka gutxitzen joan dira hezkuntza arloko kexak: %10,6 2005ean, %5,68 2006an eta %4,3 2007an. Aurten %1 egin du gora 2007. urtearekin alderaturik.

Eduki zehatzei dagokienez, ondoko hau da gaien aurkibidea:

Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak (0-3 urte): 5

- Haur eskoletan onartzeko prozesuarekiko desadostasuna (bi kexa).
- Haur eskola publikoetan sartzeko ezarritako baremoarekiko desadostasuna.
- Udalerrri bateko haur eskola publikoetan zerbitzua ematen duten langileen erreibindikazioei laguntzea.
- Udal eskola bateko egutegia ez dago egokitua.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta nahitaezko ikasketak: 15

- Gunerik eza ikastetxe pribatu bateko jantokian.
- Ikastetxe bat irekitzea eraikuntza lanak bukatu gabe daudela.
- Ikastetxean hobetzeko lanak egin behar direlako ikasleak lekuz aldatzearekin ados ez izatea.
- Eskualdeko ikastetxe publiko bateko hustutze eskaileretan akatsak daude.
- Pirinioetan ikastetxe publiko berri bat eraiki beharra.
- Ikastetxe pribatu bateko eskola jantokian ez dago zaintzailerik hezkuntza premia bereziak dituen neska batendako.
- Ikastetxez aldatzeko ukoaren aurrean ados ez izatea.
- Ikastetxeetara sartzeko desberdintasuna ikasle zaharraren irizpide osagarria ezartzeagatik.
- Ikastetxez eta ereduaz aldatzeko eskaera bati emandako informazioa ez da nahikoa.
- Ikastetxe itunduetan ikasgela bakoitzeko gehienez zenbat ikasle behar den zehazteko Departamentu eskudunak ez du irizpide homogeenorik.
- Hizkuntza ereduaz aldatzeko eskaera bati ez zaio erantzunik eman.
- Ikastetxe batean D ereduko ordutegiarekiko desadostasuna, eskolako autobusaren ordutegia harekin bat ez datorrelako.
- Ikastetxe pribatu batean ikasle bati eman zaion tratua txarra salatzea.
- Ikasle bati ireki zaion diziplina espedientea tramitatzerakoan izan diren irregulartasunak.
- Ikasliburuak finantzatzeko sistemarekin ados ez izatea.

Beste ikasketa batzuk: 4

- Hizkuntza Eskola Ofizialean deialdi bikoitza ezabatzea.
- Musikako proba batean lortutako kalifikazioarekiko desadostasuna.
- Irakaskuntza ertainetarako beka bat ukatzea.
- Musika ikasketetako seigarren kurtsoan sartu ahal izateko proba bat eskatzearekin ados ez izatea.

Arartekoaren 2008ko txostenean, Hezkuntzaren eta Ikasketen atalean, unibertsitateko ikasketei dagozkien beste kexa batzuk bildu badira ere, txosten honetan ez dira jaso.

### **3.10.2. 2008an luzatutako ebazpenak.**

#### **Onetsitako ebazpenak**

- 08/14 espedientea, langile kontratudunen antzinasuna onartzeko negoziazio ezari buruzkoa.
- 08/175 espedientea, eraikitze lanak bukatu gabe egonik ikastetxe bat irekitzeari buruzkoa.
- 08/207 espedientea, bularra emateko baimena lanaldi osoetan metatzeari buruzkoa.
- 08/281 espedientea, ikasle bati ireki zaion diziplina espedientea tramitaterakoan izan diren irregulartasunei buruzkoa.
- 08/337 espedientea, Erronkaribarren beste ikastetxe bat eraiki beharrari buruzkoa, oraingoaren egoera oso txarra delako.
- 08/388 eta 08/389 espedienteak. Espediente horietan zenbait irakaskuntza kidegotan sartzeko eta igotzeko deitutako hautapen prozeduran gertatu den diskriminazioa salatzen da; autonomia erkidego batean lanean ari diren funtzionario bitartekoek ezin dute ariketa bat Administrazioak prestatutako txosten batez ordezkatu; txosten horretan haien ezagutzak baloratzen dira.
- 08/844 espedientea, hizkuntza eredia aldatzeko eskaera bati erantzunik ez emateari buruzkoa.
- 08/474 espedientea, salatzeke seme edo alaba zaintzeko lanaldi murrizketa bat emateko baldintza moduan jartzea hura benetan ordezkatzeko aukera izatea.

#### **Onetsi gabeko ebazpenak**

- 07/412 espedientea, entzumen urritasuna duen ikasle bat beste autonomia erkidego batera joateko garraio gastua ordaintzeko laguntza ukatzeari buruzkoa.
- 08/85 espedientea, diru publikoarekin ari diren ikastetxeetan ikasle ohi bat eskolatzeko irizpidearekin ados ez izateari buruzkoa.
- 08/99 espedientea, irakaskuntzako kidegoetan sartzeko deialdian ezarritako terminoetan, udaleko musika eskola batean emandako zerbitzuen ziurtagiria ez konputatu izanari buruzkoa.

### **3.10.3. 2008ko abenduaren 31n erantzun gabeko ebazpenak:**

- 08/254 espedientea, Hello Azpilagaña eskolan onartzeko prozesuarekin ados ez izateari buruzkoa, Iruñean erroldaturikoendako lehentasunezko zerrenda izateagatik.
- 08/431 espedientea, Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroak antolatutako euskarazko ikastaroetan online ezin matrikulatu izanari buruzkoa.
- 08/505 espedientea, Epaimahai kalifikatzaileak emandako puntuazioarekin ados ez izateari buruzkoa.

### **3.10.4. 2008. urtean, hezkuntza arloan emandako gomendio eta iradokizun nagusiak:**

Atal honetan bildu dira lege betebeharren gaineko gomendio, iradokizun eta gogorazpen nagusiak, ofizioz kanpo edo herritarren eskariaz egindakoak:

#### **Hezkuntza Departamentuari:**

- Arreta Faltaren Nahastea eta Hiperaktibitatea (AFNH) hauteman eta tratatzeko neurriak har daitezela.

- Eskolako jazarpenari aurrea hartu eta hura tratatzeko neurriak har daitezela.
- Eskolatze prozesuan eroldari buruzko datuak faltsutzen direnean, kontrol mekanismoak eta zigor klausulak ezar daitezela.
- Diru publikoarekin ari diren 0-3 urteko ikastetxeetan sartzeko berdintasun baldintzak berma daitezela, ikastetxea dagoen udalerrian erroldatutakoendako lehentasunezko zerrendak ezarri gabe.
- Ez daitezela ikastetxeak funtzionamenduan jarri eraikitze lanak erabat bukatu arte eta behar diren lizentziak lortu arte.
- Erronkaribarren beste ikastetxe bat eraiki behar bada, hura eraikitzeo ekintzak bultza daitezela.
- Zehapen prozeduretan ikasleen eskubideak eta haien bermeak erregulatu dituen araudia zehatz-mehatz betetzen dela zaindu dadila.
- Departamentuak ikasturtea antolatzeko aurrez ikusten dituen epeetatik kanpo irakasleek hamabi urtetik beherako adingabeak zaintzeko eskatzen dituzten lanaldi murrizketak emateko ez dadila baldintza modura jarri eskatzailearen ordezkia kontratatzea.
- Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialei C1 eta C2 mailak erdiesteko espezializazio ikastaroak zein baldintzatan baimenduko zaizkien zehaztu dadila; maila horiek zehazturik daude Hizkuntzatarako Europako Erreferentzia Marko Bateratuan (Bologna).
- Nafarroako Parlamentuak 2008ko apirilaren 23an hartutako Ebazpena bete dadila. Ebazpen horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarritzko irakaskuntzarako testuliburua finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legeak aipatutako materialak eskuratzea. Bereziki liburu dendatan egitea.
- Irakaskuntzako kidegoetan sartu eta igotzeko deitutako hautapen prozesuetan, beste hezkuntza administrazio batzuekin behar diren koordinazio tresnak ezar daitezela diskriminaziorik gerta ez dadin izangai batzuekin, hain zuzen ere probetako bat egin beharrean Administrazioak prestatutako txostenarekin ordezkatzeko aukera egiten dutenekin, ondorio horretarako alegatutako irakaskuntza zerbitzuak autonomia erkidego batean edo bestean egin izana kontuan izan gabe.

### **3.11. Comptos Ganberaren txostena**

2008. urtean ez du Comptos Ganberak hezkuntzarekin loturiko txostenik idatzi Nafarroan.

## 4.- ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK

### 4.1. Bekak. Nafarroako Gobernuaren Deialdi Orokorra. Testuliburuak lortzeko laguntzak. Beste deialdi batzuk

#### 4.1.1. Nafarroako Gobernuaren laguntza osagarri orokorrak

<b>17. Iaukia - Bekak. Nafarroako Gobernuaren Deialdi Orokorra Erdi eta Goi Mailako Ikasketetarako, 2004/2005tik 2008/2009ra bitarteko ikasturteak</b>					
<b>Ikasturtea</b>	<b>2004/05</b>	<b>2005/06</b>	<b>2006/07</b>	<b>2007/08</b>	<b>2008/2009</b>
1. ESKABIDE KOPURU OSOA (ikasleak)	6.004	5.638	5.446	5.580	5.834
2. EMANDAKO BEKA KOPURU OSOA	3.619	3.402	3.364	3.238	3.465
2.1 Unibertsitatetik kanpoko mailetan	1.412	1.279	1.261	1.222	1.261
2.2 Unibertsitateko mailetan	2.267	2.123	2.103	1.987	2.165
2.3. Masterreko ikasketetan				29	39
<b>3. EMANDAKO ZENBATEKO OSOA</b>	<b>5.501.468</b>	<b>5.279.392</b>	<b>5.347.848</b>	<b>5.346.948</b>	<b>5.942.964</b>
3.1 Unibertsitatetik kanpoko mailetan	1.109.467	1.015.887	1.014.339	1.047.721	1.064.476
3.2 Unibertsitateko mailetan	4.392.001	4.263.505	4.333.509	4.225.830	4.774.502
3.3 Masterreko ikasketetan				73.395	103.986
<b>4. ORDAINDUTAKO ZENBATEKO OSOA</b>	<b>3.119.070</b>	<b>2.840.831</b>	<b>3.062.052</b>	<b>2.801.656</b>	<b>3.100.883</b>
4.1 Unibertsitatetik kanpoko mailetan	541.827	447.966	496.773	463.224	407.092
4.2 Unibertsitateko mailetan	2.577.243	2.392.865	2.565.280	2.288.545	2.648.491
4.3 Masterreko ikasketetan				49.887	45.300
<b>5. BEKA KOPURUA UNIBERTSITATETIK KANPOKO MAILETAN</b>					
<b>5.1 IRAKASKUNTZA</b>					
Beka kopurua	182	143	137	153	130
Zenbatekoa	48.948	37.383	37.589	44.542	36.025
<b>5.2 GARRAIOA</b>					
Beka kopurua	991	915	902	858	953
Zenbatekoa	445.982	417.210	406.095	387.142	499.384
<b>5.3 JANTOKIA</b>					

Beka kopurua	17	17	19	21	10
Zenbatekoa	5.834	5.996	6.659	7.117	3.294
5.4 EGOITZA					
Beka kopurua	362	317	313	313	259
Zenbatekoa	600.544	551.670	556.661	598.457	516.595
5.5 BEREZIA					
Beka kopurua	11	5	10	13	11
Zenbatekoa	8.159,30	3.628	7.335	10.464	9.177
UNIB. KANPOKO ZENB. GUZTIRA (*)	<b>1.109.467</b>	<b>1.015.887</b>	<b>1.014.339</b>	<b>1.047.722</b>	<b>1.064.476</b>
6. UNIBERTSITATEKO BEKA KOPURUA KONTZEPTUEN ARABERA					
6.1 IRAKASKUNTZA					
Beka kopurua	2.221	2.093	2.046	1.945	2.115
Zenbatekoa	2.530.330	2.420.921	2.436.610	2.333.942	2.642.331
6.2 GARRAIOA					
Beka kopurua	399	340	403	343	305
Zenbatekoa	137.714	135.917	170.794	140.672	145.262
6.3 JANTOKIA					
Beka kopurua	186	186	217	185	193
Zenbatekoa	49.606	52.375	66.743	56.699	64.590
6.4 EGOITZA					
Beka kopurua	1.095	1.036	993	970	1.037
Zenbatekoa	1.663.692	1.639.530	1.642.181	1.679.111	1.906.089
6.5 BEREZIA					
Beka kopurua	10	13	14	12	12
Zenbatekoa	10.670	14.762	17.181	15.407	16.230
#### 4.3.6. Elkarrizketako laguntzaileak ikastetxe publikoetarako

Deialdia martxoaren 15eko 259/2007 ebazpenaren bidez egin zen<sup>7</sup>

#### Laguntzaile hautagaien konparazio-taula:

<b>46. laukia - Elkarrizketako irakasle laguntzaileen bilakaera, 2003/2004tik 2007/2008rako ikasturteak</b>					
<b>Hizkuntza</b>	<b>2003/2004</b>	<b>2004/2005</b>	<b>2005/2006</b>	<b>2006/2007</b>	<b>2007/2008</b>
Ingelesa	46	35	31	37	43
Frantsesa	10	3	4	4	5
<b>Guztira</b>	<b>56</b>	<b>38</b>	<b>35</b>	<b>41</b>	<b>48</b>
<b>Ikastetxeak</b>					
HLHI	50	57	25	49	52
DBHI	31	40	17	24	30
<b>Guztira</b>	<b>81</b>	<b>97</b>	<b>42</b>	<b>73</b>	<b>82</b>

Iturria: Eskolako Hizkuntza Planifikazioko Zerbitzua.

#### 4.3.7. Atzerriko hizkuntzako irakasleentzako laguntzak 2007ko udan

Eskabideak guztira: 182

Ingeleseko eskabideak guztira: 170

Frantsesezko eskabideak guztira: 11

Alemanezko eskabideak guztira: 1

Ukapenak guztira: 12 (horietariko 6 erreserbako hautagaiekin ordeztuta).

Erreserbako eskabideak guztira: 56

Eskabide soilak guztira: 8

<b>47. laukia - Atzerriko hizkuntzako irakasleentzako laguntzak, 2004tik 2008ra</b>					
<b>Irakasleak</b>	<b>2004</b>	<b>2005</b>	<b>2006</b>	<b>2007</b>	<b>2008</b>
Lehen Hezkuntzako sare publikoa	24	8	9	18	62
L. Hezkuntzako itunpeko sarea	4	0	2	4	7
B. Hezkuntzako sare publikoa	26	8	15	17	32
B. Hezkuntzako itunpeko sarea	6	3	1	0	5
<b>Guztira</b>	<b>31</b>	<b>19</b>	<b>27</b>	<b>39</b>	<b>106</b>

Iturria: Eskolako Hizkuntza Planifikazioko Zerbitzua.

<sup>7</sup> 58. zenb. NAO, 2007ko maiatzaren 9koa.



#### 4.4. Ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzeko planak.

##### 4.4.1. Lehen Hezkuntzako ikasleen hobekuntza-planak.

###### Abiapuntua.

2005-2007ko Haur eta Lehen Hezkuntzako plana amaitu ondoren, Ikuskapen Zerbitzuak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe-hobekuntzako planak eta hobekuntza-arloak aztertu zituen: hizkuntza-gaitasuna, matematika-gaitasuna, barruko ebaluazioa, hezkuntza-balioak eta familientzako informazioa.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe-hobekuntzako planak aztertuta, honako taula honetako emaitzak ondorioztatzen dira:

<b>48. laukia - Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzeko planaren kalitatea, ereduaren eta titulartasunaren arabera</b> (ebaluaturiko ikastetxeekiko ehunekoak)			
<b>Publikoa</b>	<b>M+R</b>	<b>A+B</b>	<b>Gainerakoak</b>
G	23,08	69,23	7,69
G/A	29,76	60,71	9,52
G/A/D	29,41	64,71	7,69
D	40,00	27,50	32,50
<b>Itunpekoa</b>	<b>M+R</b>	<b>A+B</b>	<b>Gainerakoak</b>
G	13,33	86,67	0,00
G/A	35,71	64,29	0,00
D	43,75	37,50	20,00

Eskala: (M) Txarto diseinatuta, (R) Hala-moduz diseinatuta, (A) Diseinu onargarria, (B) Diseinu ona.

Iturria: Antolamendu eta Berrikuntza Zerbitzua.

Bestalde, 2007an Ikuskapenak Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6. mailetakoko planean jasotako hobekuntza-arloen kanpoko ebaluazioa egin zuen. Nafarroa osoari buruzko emaitzak taula honetan jasota daude:

<b>49. laukia - Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzeko plana aplikatzearen emaitzak</b>				
<b>Problemen ebazpena</b>				
		<b>2. maila</b>	<b>4. maila</b>	<b>6. maila</b>
B. bestekoa		21,63	22,31	20,15
Desbideratzea		6,76	7,60	7,13
Helburuak lortu	Gaingitu	%68	%71	%59
	Prozesuan	%7	%6	%8,5
	Gaingitu ez	%25	%23	%32,5

<b>Gaztelaniaz irakurritakoa ulertu</b>				
		<b>2. maila</b>	<b>4. maila</b>	<b>6. maila</b>
B. bestekoa		19,81	20,88	24,15
Desbideratzea		6,33	5,53	5,52
Helburuak lortu	Gainditu	%46	%43	%53
	Prozesuan	%17	%21	%19
	Gainditu ez	%37	%36	%28
<b>Euskaraz irakurritakoa ulertu</b>				
		<b>2. maila</b>	<b>4. maila</b>	<b>6. maila</b>
B. bestekoa		20,81	18,85	25,84
Desbideratzea		5,96	5,45	4,97
Helburuak lortu	Gainditu	%51	%28	%65
	Prozesuan	%17	%23	%19
	Gainditu ez	%32	%49	%16
<b>Testu-sorkuntza. Gaztelania, 2006/2007</b>				
<b>Balorazio orokorra</b>		<b>2. maila</b>	<b>4. maila</b>	<b>6. maila</b>
Helburuak lortu	Gainditu	%37	%45	%36
	Prozesuan	%40	%32	%36
	Gainditu ez	%23	%23	%28

Idatzizko probaren balorazio orokorra egiteko, aintzat hartu dira barruko kohesioa, koherentzia nahiz egokitzapena, zuzenketa eta baliabideen aberastasuna. Gainera, idazkiaren planifikazioa ere kontuan hartu da.

Iturria: Antolamendu eta Berrikuntza Zerbitzua.

Hezkuntza-balioei eta familien inplikazioari dagokionez, galdeketak egin badira ere, ez dago datu erabakigarririk.

### **Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzeko Planaren diseinua (2007-2011).**

Ikastetxeko planen eta ebaluaturiko eremuen azterketaren emaitzak erreferentetzat erabili ziren, Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzeko plana diseinatzeko eta egiteko.

Bien bitartean, diagnostiko-ikerketa horiek baliozkoak izan ziren 2007-2008 ikasturtearen hasieran Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek eta ikastetxeek, bidezko ikuskatzailearen bitartez, ikastetxeko emaitzak jakiten joateko, Nafarroako emaitzei dagokienez. Horrela, ikastetxe bakoitzeko ikuskatzaileak eta zuzendaritza-taldeak hobekuntza-ildoak identifikatu eta jarduketak planifikatu zituzten sendotasunak mantentzeko eta gabeziadun alderdiak nahiz eremuak hobetzeko, ikastetxe bakoitzaren errealitatera egokituta.

Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarrizko gaitasunen hobekuntza-planaren helburua HLOren curriculum berrietan jasotako oinarrizko gaitasunen lan-ildoak sustatzea da. Gainera, hobekuntza-eremuen hautapenean eta lehenespenean Europako helburuak ere aintzat hartu dira, baita Espainiako hezkuntza-sistema hobetzeko helburuak, nazioarteko ebaluazioak nahiz Sailak egindakoak eta Saitetik sorturiko jarraibideak ere.

### **Lehen Hezkuntzako Hobekuntza Planaren ezarkuntza.**

Hobekuntza-planak ikastetxe bakoitzean sortu behar badira ere, Hezkuntza Sailak jarraibideak ezarri, tresnak eskaini eta, gainera, bermatu egin behar du ebaluazioak daudela eta aintzat hartzen direla, hobekuntza iraunkorra izateko.

### **Hobekuntza-arloak:**

Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzeko planak honako hobekuntza-arlo hauek ezartzen ditu:

- hizkuntza-komunikazioko gaitasuna
- matematikako gaitasuna
- mundu fisikoa ezagutzeko eta horrekin elkar eragiteko gaitasuna
- informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala
- hezkuntza-balioak.

Arloak ez ezik, helburu, xede eta jarduketa zehatzak ere finkatzen dira; horiek, orientazio gisa, baliozkoak izango dira ikastetxeek euren errealitatera ondoen egokitzen direnak hautatzeko eta lehenesteko.

Halaber, ikastetxeen kalitatea kudeatzeko sistemen prozesuak eta laneko agiriak ere jasotzen dira; horiei esker, ikastetxeek hauxe zehaztu ahal dute: helburuak, xedeak, adierazleak, arduradunak, jarraipenerako nahiz ikuskapenerako epeak,...

Ikasturte hasierako jarraibideetan ezartzen denez, beharrezkoa da ikastetxe bakoitzak Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzeko Planean adierazitako hobekuntza-arloak garatzea, barruko eta kanpoko ebaluazioen emaitzak aintzat hartuta; gainera, ikastetxeko programazioan zehaztu egin beharko da hori.

Plana baliozkoa izateko erreferentzetat, 2009ko maiatzean Lehen Hezkuntzako ikasleei egingo zaizkien ebaluazioen egutegia aurreratzen da.

Halaber, 2008-09 ikasturteko amaierako Memorian ikastetxeko emaitza orokorrak jasoko dira, diagnostiko-ebaluazioari dagokionez, baita barruko ebaluazioetan lorturiko emaitzak ere; halaber, hobekuntza-planean hartuko diren neurriak adieraziko dira.

Azkenik, ikastetxeek egokitu egingo dituzte, apurka-apurka, arloen ebaluazioa eta programazioa, curriculumean ezarritako oinarrizko gaitasunak sartuta, Hezkuntza Sailak ezarritakoaren arabera.

Hezkuntza Sailak, [www.pnte.cfnavarra.es/planesdemejora](http://www.pnte.cfnavarra.es/planesdemejora) orriaren bidez, irakasleei laguntzeko materialak jartzen ditu ikastetxeen esku, hobekuntza-arloak garatzeko; halaber, barruko nahiz kanpoko ebaluazioan laguntzeko agiriak ere eskaintzen ditu, baita nazioarteko ebaluazioen esparru teorikoa eta proba askatuak ere. Era berean, familientzako informazioa ere badauka, eta, gaurkotu ondoren, plana egiteko nahiz formalizatzeko behar diren agiri guztiak deskargatzeko aukera emango du.

### **4.4.2. Bigarren Hezkuntzako ikasleen hobekuntza-plana. Irakurmen Plana**

#### **Abiapuntua.**

Hobekuntza-planak egiteko proposamenek, itxuraz, Lehen Hezkuntzako etapako prozedura berak erabiltzen dituzte; hala eta guztiz ere, Bigarren Hezkuntzaren eraketa desberdinak, planak egiteko ohiturek eta etaparen nortasunak beste emaitza batzuk sortzen dituzte.

2005ean Ikuskapen Zerbitzuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren diagnostiko-ebaluazioa egin zuen. Ebaluatoriko ikasgaiak Matematika, Gaztelania eta Euskara izan ziren.

Ebaluazioaren helburua informazio objektiboa lortzea zen, DBHko lehenengo zikloa amaitzen duten ikasleen eta etapa amaitzen dutenen gaitasunen eta ezagupenen garapen maila baloratzeko; hain zuzen ere:

- a) Edukiak menderatu eta gaitasunak lortzen dituztenak zenbat diren jakitea, eta menderatzen ez dituztenak zenbat diren eta ozta-ozta menderatzen dituztenak nahiz menderatzeko prozesuan daudenak zenbat diren jakitea ere bai.
- b) DBHko etapa eta 1. zikloa amaitzen duten ikasleentzat zailtasunik handiena duten ikaskuntzak identifikatzea.
- c) Sendotasunak eta hobekuntza-arloak ezartzea, ebaluaturiko arloetan.
- d) Datu objektiboak eta fidagarriak edukitzea, Foru Erkidego osorako hobekuntza-ildo nagusiak ezartzeko.
- e) Ikastetxeei informazioa ematea, euren hobekuntza-planetan jarduketa-ildoak zehazteko eta lehenesteko.

Ebaluazio horren ondorioz, ekainaren 27ko 673/2006 Ebazpena argitaratu zen, eta horrek zortzi hobekuntza-arlo ezarri zituen, oinarrizko zortzi gaitasunei zegozkienak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztiek hobekuntza-plana egin dute; horren barruan, gutxienez, ebazpenean ezarritako hobekuntza-arloak jaso dituzte. Hobekuntza-arloen helburu bakoitzerako, gainera, jarduketa, arduradunak, aldiak, prozedurak, baliabideak eta ebaluazioa garatu behar zituzten; era berean, ikastetxearen lehenagoko beste plan batzuen eraginezko hobekuntza-alderdiak jaso zitzaizkion, honako honi lotutakoak: tutoretza, bizikidetza, dibertsitatearen tratamendua, eskola-liburutegia, irakurmenaren sustapena, etab.

Hala ere, tresna hori ez zen askorik bete.

2006an nazioarteko PISA ebaluazioa egin eta hori Nafarroako lagin adierazgarri bati aplikatu zitzaion. Emaitzak Espainiako batez bestekotik gorakoak izan arren, emaitzarik garrantzitsuena gure hezkuntza-sistemako hobekuntza-ildoak identifikatzeko aukera ematea eta irakasleen artean nahiz gizartean entzute handia lortzea izan da; horrela, esan daiteke ebaluazio horren emaitzek eta horietatik ondorioztaturiko hobekuntza-ildoek orain arte baino harrera hobea izango dutela.

Ebaluaturiko arloek (Zientziak, Matematika eta Irakurmena) emaitza hauek eman dituzte:

- Zientziak

Gutxi gorabehera, 17. postuan, parte hartu duten herri guztien artean. Nazioarteko testuinguruan, Nafarroaren posizioa nahiko altua da. Batez besteko puntuazioa OCDEko batez bestekoa baino 11 puntu altuagoa da, estatus sozioekonomikoa eta kulturala apur bat baxuagoa izan arren.

- Matematika

Posizio altua, 14. posizioa, gutxi gorabehera, parte hartu duten herri guztien artean. Batez besteko puntuazioa OCDEko batez bestekoa baino 17 puntu altuagoa izan da.

- Irakurmena

Posizio ertaina, gutxi gorabehera, 22. posizioa. Batez besteko puntuazioa OCDEko batez bestekoa baino 11. puntu baxuagoa.

### **Irakurmen-planaren sortzea.**

PISAREN emaitzak ikastetxe guztietan jakinarazi ziren, eta ikuskapenak eztabaida hasi zuen zuzendaritza taldeekin edo pedagogia-koordinazioko batzordeekin, ebaluazioaren emaitzei eta hobekuntza-ildoak zehazteari buruz.

Agerian gelditu da irakurmena lehenagoko hobekuntza-arloa dela Nafarroako institutu guztietan; lehenagoko hobekuntza-proposamenen esperientzietan (ikastetxeetan sustraitu gabeak) oinarrituz,

## ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK

---

“Irakurmenean inplikaturiko gaitasunak hobetzeko proiektua” izeneko koadernotxo prestatu genuen; bertan, DBHko arlo guztietatik irakurmen mailako ulermena hobetzeko proposamena dago jasota.

Proposamena Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako irakasleei aurkeztu zitzaizen, hori justifikatzen duten PISAren emaitzekin eta DBHko arloetan irakurmena euskarritu ahal duten materialekin batera.

Ezaugarri aipagarri bat proposaturiko ekintzen errepertorioa berez manuzkoa ez izatea da. Proiektuaren helburua irakasle bakoitzak eta mintegi bakoitzak erabilgarriak eta egingarriak diren konpromisoak bereganatzea da. Proposamen eragilea da, eta, horren bitartez, irakurmen-planaren eraikuntzak oinarri errealak edukitzea lortu nahi da.

Irakurmen-plana zenbait fasetan garaturiko ekintza globalizat sortu zen; horrek zenbait frontetan izan behar zuen eragina, eta, horrekin batera, tresnak eta ekintzak ere eskaini behar ziren.

Hasieran, irakurmen mailako hobekuntza-beharrizanen azterketaren ondorioz, Bigarren Hezkuntzako etapan “Irakurmenean inplikaturiko gaitasunak hobetzeko proiektua” egin zen.

Agiri honen helburua “ikasteko irakurtzea” da, “irakurtzen ikastea” baino gehiago; halaber, Hezkuntza Sailaren helburuak jasotzen ditu, irakurmen mailako ulermena hobetzeari dagokionez. Nafarroako Foru Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztiei bidalitako agiri horrek Irakurmen Plana egiteko modua azaltzen du, baita hezkuntza-komunitateak arlo horretan izan beharreko konpromisoa ere.

Irakurmen-planaren helburuak honako hauek dira:

- DBHko ikasle guztiek irakurmen-gaitasunak hobetzea eta ohitura eraginkorrak nahiz irakurtzeko zaletasuna garatzea.
- Bigarren Hezkuntzako irakasle guztiak curriculumeko arlo guztietako irakurmen-gaitasunak hobetzeko helburuan inplikatzeko.
- Eskola-komunitatea irakurmen-gaitasunak hobetzen inplikatzeko. Familien laguntza.

“Irakurmenean inplikaturiko gaitasunak hobetzeko proiektua” deritzonarekin batera, 35 orduko ikastaroa antolatu zen Bigarren Hezkuntzako arlo guztietako irakasleentzat, eta horren izenburua “DBHko irakurmen-gaitasunak hobetzeko tresnak” izan zen. Bertan parte hartu zuten 70 irakasleek (ikastetxe publikoetakoak eta itunpeko ikastetxeetakoak) agerian jarri zuten irakasleek eta zuzendaritza taldeek soluzioa eman nahi diotela arazoari.

Ikastaroari laguntzeko tresnatzat, Bloga ireki zen, Irakurmen Ikastaroko partaideen eta tutoreen arteko komunikazioen laguntzako eta dinamizazioko elementutzat; bertan, gainera, partaideek landutako materialak jaso eta hedatu ziren.

#### **4.5. Europar Batasuneko hezkuntza-programak.**

Europar Batasuneko hezkuntza-programak IIP (IKASKUNTZA IRAUNKORREKO PROGRAMA) deritzen organismo autonomaren bidez kudeatzen dira.

Helburua ezagupenaren gizarte aurreratua sortzea da, garapen ekonomiko iraunkorra, enplegu aukera gehiago nahiz hobeak eta gizarte-kohesio handiagoa duena. Helburu orokorra, izan ere, parte hartzen duten Europako herrien hezkuntza- eta heziketa-sistemen arteko trukea, lankidetzaren eta mugikortasuna erraztea da, horiek mundu osoan kalitate-erreferenteak izateko.

Programa horien barruan, honako azpiprograma hauek daude:

##### **COMENIUS**

Comenius programaren helburua Europako dimentsioa indartzea da, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren arloan, ikastetxeen arteko kooperazioa eta mugikortasuna sustatuz; gainera, hauxe ere lortu nahi du:

- Ikastetxeen eta irakasleen partaidetza handitu.
- Proiektuen jarraipena sustatu.
- Laneko gai batzuk bultzatu.
- Gaikako mintegiak sustatu.
- Emaizak hedatu eta ustiatu.

Agentzia Nazionalak kudeaturiko ekintza deszentralizatu hauetarako diru-laguntza ematen du:

- Ikastetxeen arteko eskola-elkartea, ikasleentzako eta irakasleentzako baterako hezkuntza-proiektuak garatzeko.
- Irakasleentzako eta irakaskuntzako beste langile batzuentzako heziketa-ikastaroak, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren kalitatea hobetzen laguntzeko.
- Edozein arlotako etorkizuneko irakasleentzako laguntzak, irakaskuntza prozesuan Europako dimentsioa hobeto ulertzeko.
- Mugikortasun-jardueretarako prestakuntzako bisitaldiak, eskola-elkartea garatzeko.
- Ikastetxeen arteko Comenius-Regio elkarteak eskualde arteko lankidetzaren sustatzeko, eskualde mugakideen arteko lankidetzaren ere barne (erabilgarria 2009tik aurrera).

##### **ERASMUS**

Erasmus programaren helburua partaide guztien irakaskuntza- eta ikaskuntza-beharrizanei erantzuna ematea da, goi-hezkuntza formalean eta hirugarren mailako lanbide-heziketan, karreraren edo kualifikazioaren iraupena edozein izan arren (doktoretza-ikasketak barne); halaber, bermeak eman nahi dizkie halako heziketa ematen duten erakundeei.

##### **GRUNDTVIG**

Grundtvig programa sektorialaren helburua helduen hezkuntzaren Europako dimentsioa eta kalitatea hobetzea da, zentzu zabalean; horren barruan, irakaskuntza formala, ez-formala eta irakaskuntza informala sartzen dira, norbere konturako ikaskuntza ere barne.

Helburuak honako hauek dira:

- Ikaskuntza iraunkorreko Europako esparrua sortzen laguntzea.
- Grundtvig ikaskuntzako elkarte kopurua handitzea eta kalitatea hobetzea.

- Sustatzaileen arteko esperientzia-trukea sustatzea.
- Proiektuen emaitzen zabalkundeko eta ustiapeneko jarduerak bultzatzea.

Agentzia Nazionalak kudeaturiko ekintza deszentralizatu hauetarako diru-laguntza ematea:

- Ikaskuntzako elkarteak, guztien intereseko gaien inguruan, horiek osatzen dituzten herrietako elkarteentzat (parte hartzen duten elkarteak).
- Banakako mugikortasuna; horren barruan partaideen bisitaldiak, laguntzak eta trukeak sar daitezke, pertsona helduen hezkuntza formalean eta ez-formalean, baita pertsona helduen hezkuntzako langileen lanbide-arloko heziketa eta garapena ere.
- Prestakuntzako bisitaldiak; mugikortasunerako laguntza, erakunde bateko ordezkari bat kontaktuko mintegi batera edo etorkizuneko kideekiko bilera batera joan ahal izateko.

Halaber, Hezkuntzarako, Ikus-entzunezko Baliabideetarako eta Kulturarako Agentzia Nazionalak kudeaturiko ekintza zentralizatu hauetarako diru-laguntza ere ematen du.

### LEONARDO DA VINCI

Leonardo da Vinci programaren helburua hezkuntzan eta Lanbide Heziketan inplikaturiko pertsona guztien irakaskuntza- eta ikaskuntza-beharrizanei erantzuna ematea da, baita heziketa hori ematen edo errazten duten erakundeei laguntza ematea ere.

Helburu bereziak:

- Heziketako eta heziketa iraunkorreko jardueretako partaideei laguntza ematea, ezagupenak, gaitasunak eta trebakuntzak lortzeko eta erabiltzeko, eta, horrela, euren nortasuna eta lanbidea garatu ahal izateko.
- Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako sistemen, erakundeen eta jardunen kalitatean eta berrikuntzan hobekuntzak sustatzea.
- Lanbide Heziketaren eta mugikortasunaren erakarpina handitzea, enpresentzat eta norbanakoentzat, eta heziketa-fasean dauden langileen mugikortasuna erraztea.

### IKASKETA BISITALDIAK

IIPren Zeharkako Programaren (1. gakoko jarduera) barruko ikasketa-bisitaldien helburuak honako hauek dira: Europako lankidetzaren sustatzea eta informazioa nahiz esperientziak trukitzea, hezkuntzako eta lanbide-heziketako adituen artean, Ikaskuntza Iraunkorreko Programan parte hartzen duten herrien interes komuneak diren arloetan.

Bisitaldiek, bertan parte hartzen dutenei, aukera ematen diete beste herri batzuetako ikuspegiak ezagutzeko; gainera, erantzukizun politikoak dituzten pertsonen informazio hobea eta gaurkotuagoa eskaintzen diete, Europako hezkuntzari buruz.

2007tik hezkuntzako adituetarako ikerketa-bisitaldiak (lehen Arion bisitaldiak) integratu dira, baita lanbide-heziketako adituei zuzendutakoak ere (lehen Cedefop bisitaldiak).

Agentzia nazionalak (OAPPE) kudeaturiko ekintza deszentralizatu da, Europako CEDEFOP (Lanbide Heziketa Garatzeko Europako Zentroa) agentziarekin lankidetzan garatutakoa.

Hurrengo tauletan, datu batzuk ikus daitezke:

<b>50. laukia - Europako Comenius eta Grundtvig hezkuntza-proiektuak, 2007/2008 ikasturtea</b>			
	<b>Laguntza kop.</b>	<b>Elkarte kop.</b>	<b>Zenbatekoa</b>
<b>COMENIUS</b>			
Mugikortasunerako lag.	26		41.000
Prestakuntzako bisitaldiak	2		3.000
Eskola-elkarteak		12	72.000
<b>GRUNDTVIG</b>			
Mugikortasunerako lag.	3		3.800
Elkarteak		6	102.000
<b>Guztira</b>			<b>221.800</b>

<b>51. laukia - Leonardo programa: 2003/2004tik 2007/2008ra bitarteko ikasturteetako datuak</b>					
<b>Ikasturteak</b>	<b>2003/2004</b>	<b>2004/2005</b>	<b>2005/2006</b>	<b>2006/2007</b>	<b>2007/2008</b>
Ikasleak	98	124	170	174	198
Irakasleak	-	9	9	6	7
Proiek. aurrend.	-	1	1	1	2

Iturria: Lanbide Heziketako Zerbitzua.

## **BESTE EKIMEN BATZUK**

### **Europako zigilua**

“Hizkuntzen irakaskuntzako eta ikaskuntzako ekimen berritzaileetarako Europako zigilua” Europako Batzordearen ekimena da, eta hizkuntzen interesa sustatu nahi du, Europako benetako integrazioarako beharrezko tresnatzat.

Europako zigilua

### **Portfolio**

Europako Kontseiluak sustaturiko agiri pertsonala da; bertan, hizkuntzaren bat ikasi dutenek edo ikasten ari direnek (eskolan edo eskolatik kanpo) erregistratu egin ditzakete hizkuntzen nahiz kulturen ikaskuntzaren arloko esperientziak, eta horiei buruzko hausnarketa egin dezakete.

### **Europass**

Europass agirien txostena da; lagungarria da hiritarrek bizitza osoan lorturiko gaitasunak, titulazioak eta ziurtagiriak herrien edo sektoreen artean argi eta erraz jakinarazteko.



### **Europako Kontseiluaren beka**

Europako Kontseiluaren Programa da, Hezkuntzako Profesionalek Heziketa Iraunkorrerako. Beka-programa honen jasotzaileak hezkuntza-sistemako irakasleak eta teknikariak dira, unibertsitatekanpoko mailakoak, eskatzen diren ikastaroei lotutako gaietan lan egiten ari direnak.

### **Lanpostuz lanpostuko trukea**

Bigarren Hezkuntzako eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleentzako "Lanpostuz lanpostuko" trukeak. Espainiako irakasleek parte hartzen duten herrietako irakasleekin trukatzeko dituzte euren lanpostuak.

### **Alde biko elkarrekin parte hartzen ari diren Nafarroako ikastetxeak (COMENIUS proiektua):**

- Juan Bautista Irurzun IP. Azkoien.
- Valle del Ebro BHI. Tuter.
- Cardenal Larraona ikastetxea. Iruñea.
- Amaiur Ikastola HLHIP. Iruñea
- Labiaga Ikastola. Bera.
- Zizur Nagusiko BHI.
- Eunate BHI. Iruñea.
- San Cernin ikastetxea, Irakaskuntzako Kooperatiba. Iruñea.
- San Fermin ikastola. Zizur Txikia.
- Cuatrocientos Institutu Tekniko Komertziala (S. Koop). Iruñea.
- Valle del Ebro BHI. Tuter.
- Navarra Villoslada BHI. Iruñea.

#### 4.6. Eskolatik kanpoko jarduerak.

##### 4.6.1. Eskolatik kanpoko jarduerak.

52. laukia - Eskolatik kanpoko jardueretarako diru-laguntzak, 2004tik 2008ra								
Urt.	Ikastetxe publikoak		Itunpeko ikastetxeak		Ikastetxe onuradunak		Ikasle onuradunak	
	Aurrekontuan	Esleituta	Aurrekontuan	Esleituta	Publikoak	Itunp.	Publ.	Itunp.
2004	201.221	201.221	76.159	76.159	232	65	54.631	29.650
2005	100.000	100.000	50.000	50.000	228	63	57.386	30.074
2006	99.850	99.850	49.393	49.393	225	63	58.153	30.595
2007	209.040	209.040	77.900	77.900	212	66	57.039	31.966
2008	216.357	216.357	79.848	79.848	210	60	55.721	30.956

Iturria: Antolamendu eta Berrikuntzako Zerbitzua.

##### 4.6.2. Eskola Bidaiariak:

53. laukia - Eskola Bidaiak programarako laguntzak, 2004tik 2007ra						
Urtea	Ekarpena	Zenbatekoa	Ikastetxe onuradunak		Ikasle onuradunak	
			Nafarroa	Beste AAEE batzuk	Nafarroa	Beste AAEE batzuk
2004	HKM	29.615				
	Nafarroako gobernua	20.725	12	30	180	450
2005	HKM	30.505				
	Nafarroako gobernua	20.925	12	30	180	450
2006	HKM	54.468				
	Nafarroako gobernua	26.000	12	30	180	450
2007	HKM	58.841				
	Nafarroako gobernua	24.845	11	30	165	450
2008	HKM	59.075				
	Nafarroako gobernua	25.714	11	30	165	450

Iturria: Antolamendu eta Berrikuntzako Zerbitzua.

**ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK**

**4.6.3. Kultura-ibilbideak:**

<b>54. laukia - Kultura-ibilbideen programa, 2004tik 2008ra</b>					
Urtea	Gastua (eurotan)	Ikastetxe onuradunak		Ikasle onuradunak	
		Publikoak	Itunpekoak	Publikoak	Itunpekoak
2004	119.924	116	44	3.428	2.690
2005	119.999	89	31	2.535	1.445
2006	150.000	114	32	2.878	1.561
2007	156.001	118	32	3.036	1.616
2008	161.461	121	30	3.212	1.421

*Iturria: Antolamendu eta Berrikuntzako Zerbitzua.*

**4.6.4. Literatura-ibilbideak:**

Programa hau, HKMrekin lankidetzan, 2004an hasi zen.

<b>55. laukia - Literatura-ibilbideak programarako laguntzak, 2004tik 2008ra</b>						
Urtea	Ekarpena	Zenbatekoa	Ikastetxe onuradunak		Ikasle onuradunak	
			Nafarroa	Beste AAEE batzuk	Nafarroa	Beste AAEE batzuk
2004	HKM	31.696				
	Nafarroako gob.	20.792	3	4	72	96
2005	HKM	37.242				
	Nafarroako gob.	20.942	5	4	120	96
2006	HKM	53.259				
	Nafarroako gob.	20.604	6	6	144	144
2007	HKM	37.784				
	Nafarroako gob.	22.100	4	4	96	96
2008	HKM	37.901				
	Nafarroako gob.	22.874	4	4	96	96

*Iturria: Antolamendu eta Berrikuntzako Zerbitzua.*

#### 4.6.5 Zientzia-ibilbideak:

Programa hau, HKMren lankidetzarekin, 2006/2007 ikasturtean hasi zen.

<b>56. laukia - Zientzia-ibilbideen programarako laguntzak, 2006/2007 eta 2007/2008 ikasturteak</b>						
Urtea	Ekarpena	Zenbatekoa	Ikastetxe onuradunak		Ikasle onuradunak	
			Nafarroa	Beste AAEE batzuk	Nafarroa	Beste AAEE batzuk
2006/07	HKM	53.234				
	Nafarroako gob.	38.757	5	6	120	144
2007/08	HKM	33.878				
	Nafarroako gob.	26.613	3	4	72	96

Iturria: Antolamendu eta Berrikuntzako Zerbitzua.

#### 4.6.6 Naturaren Ikasgelak Integrazio Programa

Programa honek ez dauka hitzarmenik.

Araudi berezia: abenduaren 21eko 3997/2007 Agindua; horren bidez, "Naturaren Ikasgelak" integrazio-programan parte hartzeko laguntzak ematen dira, 2008ko uztailaren 1etik abuztuaren 14ra bitarteko aldirako.

Datu ekonomikoak eta partaidetzari buruzkoak:

- Nafarroako plaza kopurua: 15 plaza (6 HBBko ikasleentzat eta 9 araubide orokorrekoentzat).
- Aurkezturiko eskabide kopurua: 22.

#### 4.6.7 Biztanlerik gabeko herriak hezkuntzaren arloan suspertzeko eta erabiltzeko programa

Programa honek ez dauka hitzarmenik.

Araudi berezia:

Irailaren 28ko 2968/2007 Agindua: irakastegunetan "Biztanlerik gabeko herriak hezkuntzaren arloan suspertzeko eta erabiltzeko programa" deritzon jardueran parte hartzeko deialdia.

Otsailaren 18ko 498/2008 Agindua: udako txandetan "Biztanlerik gabeko herriak hezkuntzaren arloan suspertzeko eta erabiltzeko programa" deritzon jardueran parte hartzeko deialdia.

Programa honetan Nafarroako 2 ikastetxek hartu dute parte, 2008ko irakastegunetan.

**ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK**

**4.7. Gurasoen Elkarteak eta Ikasleen Elkarteak.**

**4.7.1. Gurasoen Elkarteak.**

**4.7.1.1. Ikasleen Guraso Elkarteei eta Federazioei emandako Diru-laguntzak.**

<b>57. laukia - Ikasleen Gurasoen Elkarte eta Federazioetarako diru-laguntzak, 2004tik 2008ra</b>			
Urtea	Esleituriko zenbatak.	Elkarteak	Federazioak
2004	172.247	132.985	39.262
2005	97.750	75.480	22.270
2006	146.625	113.220	33.405
2007	244.375	188.700	55.675
2008	244.375	188.700	55.675

*Iturria: Antolamendu eta Berrikuntzako Zerbitzua.*

<b>58. laukia - Ikasleen Gurasoen Elkarteak, 2004tik 2008ra</b>									
Federazioa	HERRIKOIA			CONCAPA			SORTZEN		
	Elkarte kop.	Kideak guztira	Esleituriko zenbatekoa (euroak)	Elkarte kop.	Kideak guztira	Esleituriko zenbatekoa (euroak)	Elkarte kop.	Kideak guztira	Esleituriko zenbatekoa (euroak)
2004	127	28.500	21.335	40	16.500	11.215	33	5.825	6.712
2005	127	28.500	11.856	40	16.500	6.478	35	6.200	3.935
2006	146	29.000	18.227	40	16.500	9.340	35	6.400	5.838
2007	144	29.000	30.144	40	16.500	15.780	36	6.450	9.751
2008	148	29.000	30.377	40	16.700	15.613	36	6.530	9.684

*Iturria: Antolamendu eta Berrikuntzako Zerbitzua.*

<b>59. laukia - IGEentzako laguntzak, 2007/2008 ikasturtean</b>			
2008	Guraso Elkarten Federazioak	Itunpeko ikastetxeetako IGEak	Ikastetxe publikoetako IGEak
Kopurua	3	178	52
Esleituriko zenb. eurotan	55.675	133.857,35	54.842,65

*Iturria: Antolamendu eta Berrikuntzako Zerbitzua.*

**4.7.1.2. Ikasleen gurasoen heziketarako elkarteak.**

**4.7.1.2.1. CONCAPA-Nafarroak antolaturiko heziketa-jarduerak (2007/2008)**

CONCAPA-Nafarroak antolaturiko heziketa-jarduerak, 2007-2008 ikasturterako, kontuan hartuta CONCAPA-Nafarroa Familiako Gurasoen eta Ikasleen Gurasoen Konfederazio Katoliko Nazionalaren barruan dagoela; konfederazio hori 1929an sortu zen, familiaren interesak sustatzeko eta seme-

alabek, eskolan, euren sinesmenen eta uste sendoen arabera heziketa jasotzeko. Azken batean, helburua familiaren eta eskolaren arteko batasuna eta partaidetza sustatzea da.

70eko hamarkadatik aurrera, Espainiako legerian sarturiko aldaketen eta horiek hezkuntzaren arloan izandako ondorioen eraginez, Konfederazioak hezkuntzara eta gurasoen partaidetza aktibora (seme-alaben hezkuntzan) bideratu zuen gehienbat bere jarduerara. Horrela, presentzia handiagoa izan zuen gurasoen ordezkartzako erakundeetan, "Guraso Mahaian" (Nafarroako Foru Erkidegoan oraintsu sortutakoa), Estatuko Eskola Kontseiluan eta Autonomietako Eskola Kontseiluetan (horien artean, jakina, Nafarroako Eskola Kontseiluan, eta, bertan, Batzorde Iraunkorren eta Osoko Bilkuran dauka ordezkartza).

CONCAPA Nafarroaren barruan, ikasleen 44 Guraso Elkarte sartzen dira, bai Nafarroako itunpeko ikastetxe pribatuak eta bai ikastetxe publikoak; guztira, 15.000 familietara heltzen da.

Ikasturte bakoitzean, CONCAPA Nafarroak jarduerak antolatzen ditu, batzuk beste erakunde eta elkarte batzuekin lankidetzan, gurasoei euren heziketa- eta hezkuntza-lanean laguntzeko, bai seme-alabekin, bai familiaren arloan, beharrezko oreka eta heziketa lortuta kalitatezko heziketa hobea eskaintzeko eta seme-alaben bikaintasuna lortzeko, familiaren eta eskolaren arteko beharrezko binomioaren barruan.

Jarduerak horiek urte osoan hedatzen dira; horrela, heziketa-egutegi osoa planteatzen da, ikasturte osoan zehar, baita oporretan ere; izan ere, Concaparen ustez, oporretan ez dira guztiz galdu behar gurasoen eta ikastetxeen arteko harremanak. Oro har, aurkezturiko jarduerak ondoren adierazitakoaren arabera bildu ahal dira:

- Familiak sentsibilizatzea, gero eta kontzientzia handiagoa edukitzeko, eskolaren eta familiaren arteko harreman gero eta estuagoak behar izateari buruz; horretarako, familiaren eta ikastetxeen arteko heziketa- eta lankidetzaz- zikloak ezarri behar dira.
- Familiaren barruan bizitzaren defentsarako gizarte-sentsibilizazioko jarduerak egitea.
- Adin txikikoa babesteko kanpainak, teknologia berrien erabileraren eraginezko zaurgarritasunei dagokienez, zirkularren, liburuxken eta konferentzien bidez.
- Gurasoen elkartegintza sustatzeko jarduerak, lege-aholkularitzaren eta ikastetxeetako hizketaldien bitartez.
- Hezkuntzako legeria egitean eta zuzentzean parte hartzea, Nafarroako Eskola Kontseiluaren bidez.
- Eskola askea defendatzea, eztabaidetan eta mahai-inguruetan parte hartuta.
- Hitzaldi-zikloak.
- CONCAPAren biltzarretara joatea.
- CONCAPA Nazionalak antolaturiko heziketa-jardueretara joatea.
- HKMk prebentzioari buruz antolaturiko ikastaroetara joatea.

Era berean CONCAPA Konfederazio Nazionalaren bidez ere parte hartzen du, irakaskuntzarekin lotutako gobernu kanpoko nazio eta nazioarteko erakundeetan.

CONCAPAren heziketa-jarduerak bi bideren bitartez egin dira:

- CONCAPA-Nafarroa Federazio Autonomikoak antolaturiko jarduerak.
- KONFEDERAZIO NAZIONALAK eta PROFORFA FUNDAZIOAK egindako jarduerak; horien bidez, heziketa-ikastaro asko antolatzen dira gurasoentzat, eta, horietan, federaturiko IGERen bateko kideak izan eta eskaintako ikastaroekiko interesa duten guraso guztiek hartu ahal dute parte.

CONCAPA NAFARROAK 2007-2008 ikasturterako antolaturiko heziketa-jarduerak.

### *IGEen heziketa-ikastaroa.*

Urtero IGEen zuzendaritza-batzetako kideentzako heziketa-ikastaroak egiten dira; hain zuzen ere, 2 ordukoak dira, eta honako gai hauei buruzkoak:

- Hezkuntza-sistemaren eraketa. Hezkuntzari buruzko Lege Organiko berriaren garapena; hezkuntza-sistemako berritasun nagusietara egokitzeko egutegia.
- Gurasoen eginkizuna ikastetxeetako eskola-kontseiluetan. Partaidetza berriak eta ordezkaritza, HLO aplikatzearen ondorioz.

### *"Familia-Eskola topaketak".*

Familia Ekintza elkartearekin lankidetzan, CONCAPA-Nafarroak halako topaketak antolatzen ditu urtero; horietan unean uneko arazo larriren bat aztertu eta eskola-komunitatean nahiz familia-komunitatean eztabaidatzen da; horretarako, "Familia-Eskolako XI. Topaketak" antolatu ziren, "Haurrek eta gazteek internet erabiltzearen arriskuen prebentzioa" izenbururekin.

Jarduera hori, urte honetan, "Kiaranet.com" enpresaren laguntzarekin garatu da; gainera, Iruñeko Udalak "Civivox Iturrama" deritzonoko lokalak utzi ditu; aurreikusitako hitzaldi trinkoak larunbat goizean egingo dira, eta, bertan, hiru gai nagusi eztabaidatuko dira, topaketa hauen bederatzigarren edizioa José Iribas Sánchez de Boado jaunak (Iruñeko Udaleko alkateordea) inauguratu ondoren aztertzeko.

Hiru hitzaldi planteatu dira, bakoitza bere mahai-ingururako; lehenengo eta behin, "Erabilerak, ohiturak eta arriskuak", eta horren txostengilea Fernando García jauna da (Civirte ikerketa taldearen sortzailea eta "Educar hij@s [interactiv@s](mailto:interactiv@s)" deritzonaren egilea); gero, bigarren bilkura sareko delinkuentzian aditua den Oscar Esteban Remacha jaunak emango du, eta honako honi buruzkoa izango da: "Interneteko arriskuak: antolaturiko delinkuentzia, adin txikikoen erakarpina eta informazioaren lorpena". Azkenik, erakusketa praktikoena izango duen jardunaldia Kiaranet enpresako Alfredo Caballero jaunak emango du, eta horren izenburua "Iragazkiak eta segurtasuneko beste hesi batzuk" izango da.

"Udaberriko hitzaldien zikloa" ere klasikotzat har daiteke, Concapak urtero garatzen duen jarduera-programaren barruan; horrela, apirilaren amaieratik maiatzaren erdialdera, hiru hitzaldi egingo dira, hezkuntzako gaiet buruz; urte hauetan gaurkotasan handiko gaiak planteatu dira, esate baterako, "Dibertsitatea eta egokitzapena eskolan", "Pisa txostenaren laburpena" eta "Genero dibertsitatearen arabera irakaskuntzaren hobariak edo eragozpenak"; horiek guztiak Natalia López Morata andrearen mailako irakasleek eman dituzte, eta horrek gizakiaren burmuinak generoaren arabera dituen ageriko desberdintasun filologikoekin aberastu zituen bilkurak. Ikus-entzule kopuru handia bertaratu zen, batez beste 120 pertsona, eta ikus-entzulerik gehieneko hitzaldian 300 pertsonak hartu zuten parte.

### *Familiaren jaia.*

Concapak hogeita seigarren urtez jarraian antolatu du ikuskizun hau, Iruñea hiriaren bihotzean bertan; federazio hau harro dago jaialdiarekin: 28.000 ikasletik gora biltzeaz gain (euren familiekin), Nafarroako Familia guztiei ere irekitzen dizkie Iruñeko Zitudelaren ateak; horiek Federazioarekin ospatzen duten jai-jardunaldi hau, eta horren helburua FAMILIA erakundearen garrantzia nabarmentzea da; izan ere, gizarte-garrantzia edukitzeaz gain, familiaren sustraiak pertsonaren jatorriaren barruraino sartzen dira.

Ikasleen Gurasoen Federazioak (CONCAPA NAVARRA), aurreko urteetako formatua mantenduz, besteak beste honako jarduera hauek egingo ditu asteburuan:

- Antzezlanak, dantzak, abesbatzak, tresnak, jotak, etab., eta horietan federaturiko ikastetxeetako ikasleek hartuko dute parte.

- Jolas puzgarriak dituen haur-parkea.
- Ogitartekoen eta edarien doako banaketa (Nafarroako produktuen dastaketa). “Janari-manipulatzailer txartela duten langileak, osasun-agintaritzaren eskudunaren baimena dutenak).
- “La Trova” antzerki taldearen ekitaldia.
- Ikastetxeetako marrazkien eta gainerako lanen erakustaldi grafikoa.
- Eukaristia; Francisco Pérez González artzapezpiku jaunak etorri ezin izana zuritu eta Familiako ordezkari pastoralala den Javier Zabaleta jaunari eskuordetu dio eginkizuna.
- Familiaren Jaiari buruzko kartel- eta lema-lehiaketaren sari-banaketa.
- Beste probintzia-federazio batzuei eta CONCAPAren Konfederazio Kontseiluari egindako gonbidapena.
- Federazioko ikastetxeek proposaturiko ohiko beste talde batzuen jarduketak, edo ikuskizuna alaitzen duten beste talde batzuen jarduketak.
- Haur-antzerkia: “Kolins Clow”.

Eta, larunbateko berritasuntzat, jaialdiaren XXVI. Edizioaren hasieran, “Familiak bere oraingo formatuan dituen erronkak” deritzonari buruzko hitzaldia edo tailerra egin zen. Mahai-inguru oso interesgarrian 90 urteko hizlariak hartu zuten parte, baita 19 urteko hizlari gazteek ere, eta horiek euren ikuspegi desberdinak aurkeztu zituzten; mahai-ingurua oso atsegina izan zen, agerian gelditu baitziren belaunaldi hain desberdinen artean sortzen diren harremanak.

Edizio honetan 12.000 pertsona inguruk hartu dute parte; horiek goizeko puntutik eta Iganeko Eukaristiaren egintza nagusira, Concapako federatuekin batera daude Familiaren Jaiaren ospakizunean.

#### *CONCAPA gizartean eta irakaskuntzan*

CONCAPA-Nafarroa kide aktiboa da bere helburuekin erlazionaturiko erakunde askorekin. Horietan, bere elkarteen ordezkariatzat jarduten du, eta horien guztien interesak defendatzen ditu. Autonomia mailan, honako hauetan dauka presentzia:

- Nafarroako Eskola Kontseilua.
- Beka-batzordea.
- Diru-laguntza batzordea.
- Eskolatzeko-batzordea.
- Kontzertu-batzordea.
- Elizbarrutiko Kontseilu Pastoralala.

#### *Zuzendaritza-batzordeko kideek honako honetan hartu dute parte:*

- 8 bilera IGEekin.
- 14 hizketaldi eta hitzaldi.
- Nafarroako eskola-kontseiluen jardunaldiak.
- Biltzar katolikoak eta bizitza publikoa.
- CONCAPAren biltzar nazionala.
- Konfederazio-kontseiluaren 4 bilera.
- CONCAPA nazionalaren 2 biltzar nagusi.



- Federazioetako presidenteen bilera 1.

### *CONCAPA* komunikabideetan izandako presentzia

CONCAPA-Nafarroak badaki garrantzi handikoa dela gizartean dugun eginkizuna garrantzitsua izatea; horrela, errazago defendatuko ditugu ordezkatzeko ditugun gurasoak. Lan horren zati handi bat komunikabideetako presentziaren bitartez egiten dugu, bertan iritzia eman eta, gainera ahalegina egiten baitugu gizarteak gure helburuak ulertzeko eta horiek lortzen laguntzeko.

Urte honetan, CONCAPA-Nafarroa sarritan irten da komunikabideetan, edo askotan izan du presentzia bertan.

Aurten komunikabideetan izandako presentzia hauxe izan da:

- Idatzizko komunikabideetan egindako 36 adierazpen.
- Toki-telebistetako programetan izandako 14 agerraldi.
- Toki-irratietan izandako 15 esku-hartze.
- 4 prentsaurreko.
- Komunikabideetara bidalitako 6 prentsa-ohar.

CONCAPA Nafarroak familiaren arloko hezkuntza gaietan (bere federatuen eta Nafarroako gizartearen inguruan) parte harturiko eta antolaturiko jardueren memoriatzat edo txostentzat baliozkoa izan daiteke hori.

### **4.7.1.2. HERRIKOAK 2007/2008 ikasturtean egindako heziketa-jarduerak**

HERRIKOAK, Nafarroako Ikasleen Guraso Elkartearen Federazioak, gaur egun 148 IGE ditu elkartuta (2008ko ekaina).

Herrikoa heziketa-programa Federazioko jarduerarik garrantzitsuena da. Heziketa hezkuntzaren arloan eta ikastetxeetako nahiz beste organo batzuetako partaidetzaren arloan oinarritzen da.

Eskola- eta familia-inguruko hezkuntzaren inguruan sortzen diren zailtasunek hezkuntza-agintarien eta erakunde-baliabideen inplikazioa behar dute, hezkuntza-komunitateko kide guztiek elkar ulertzeko eta bizikidetzarako heziketaren sustapenean.

HERRIKOAK Federazioak zenbait alderditan egituratu du heziketa; alde batetik, Federazioko bertako hezitzaileen heziketa-beharrizanari eman diote erantzuna, eta, bestetik, gurasoen heziketari.

Honako jarduera hauek egin dira:

- IGEei eta guraso guztiei zuzendutako heziketa-plana egitea, eta hori ikasturte osoan garatu da.
- Jardunaldiak eta Topaketak antolatzea, egitea eta ebaluatzea; ondorioak ateratzea.
- CEAPAREN eta beste erakunde batzuen heziketa-programetan parte hartzea.
- "Guraso Eskolak" sustatzea.
- Nafarroako Eskola Kontseiluan eztabaidaturiko gaiak prestatzea eta ikertzea.
- Eskariei erantzuna emateko profesionalen datu-basea mantentzea.

Herrikoa Federazioak honako honi buruzko ikastaroak eta tailerrak eskaini dizkie elkarteei:

### *Familia-hezkuntza:*

- Komunikazioko trebetasunak.
- Sexu-hezkuntza, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gurasoentzat.
- Ikastetxeetako bizikidetzaren familietatik hobetzeko modua.

- Nerabezaroa.

*Partaidetza:*

- Eskola-kontseiluak.
- Batzen funtzionamendua.

*Honako honi buruzko informazio-hitzaldiak:*

- Eskola-jardunaldia.
- Ikasketa antolatze modua.
- Bullyinga.
- Hiritartasunerako hezkuntza, ikasgai berria.
- Zentzuzko kontsumoa.
- Gatazken hobekuntza.
- Komunikazioko trebetasunak.

*Hauxe egin da:*

- 11 tailer.
- 4 ikastaro.
- Guztira 109 ordu eman dira.
- 69 bilkura.
- 1.023 partaide.
- Ikasleekin egindako tailerrak, Sexu Hezkuntzari eta "Hizkuntza-ereduak eta Oinarrizko Gaitasunak" deritzonari buruz.

*Federazioak honako balorazio hau egin du:*

- Oso egokia jasotzaileentzat.
- Funtsezko informazio- eta heziketa-zerbitzua.
- IGEak hurbiltzeko bide garrantzitsua.
- Etengabe birziklatu beharra, errealitatera hobeto egokitzeko.

*Jardueretako partaideek honako ebaluazio hau egin dute:*

- Tailerraren iraupena: arrunta (%70), laburregia (%30).
- Erabilitako adibideak eta dinamikak: egokiak (%100).
- Ikastaroko giroa: ona (%100).
- Edukien transmisioa, hezitzaileak egindakoa: egokia (%100).
- Instalazioak: egokiak (%80), ezegokiak (%20).
- Ikastaroaren balorazioa 1etik 10era: 7 gutxienekoa eta 10 gehienekoa.
- Oharrak eta iradokizunak: gai guztietan sakontzea; denbora luzeago eskaini beharra; oso interesgarria seme-alabak ikasketetan antolatzen laguntzeari buruzko gaia, bullyingak partaidetza handia eragin eta egoera berriak jarri ditu agerian, gurasoen ustez eskolan landu behar direnak, murriztu ahal izateko; seme-alabek halako gaiak landu beharra, familian hobeto landu ahal izateko; oso praktikoa izan da familia-bizikidetzaren hobetzeko.

*Heziketa non eman den:*

## ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK

---

Sangüesa IP, Olazagutía IP, Los Sauces de Barañain IP, Tafalla IP, Puente La Reina IP, Etxarri Aranaz IP, Hegoalde-Iruña ikastola, Catalina de Foix IP (Zizur Nagusia), Barañain BHI, Arantza IP, Ablitas IP, Castejón IP, Santesteban IP, Los Sauces Barañain IP, San Adrian BHI, Hilarión Eslava IP (Burlata), Noain IP, Beriain IP, Noain BHI, Olite IP, Eulza IP (Barañain), Goizueta IP eta "Aurtzaro" Haur Eskola (Iruña).

Arduradunaren balorazioa hauxe izan da:

- Parte hartu duten gurasoek interes handia erakutsi dute seme-alabekiko komunikazioa eta informazioa hobetzeko.
- Partaidetza oso positiboa izan da, bai etorle kopuruaren aldetik eta bai etorleok bilkuretan izan duten jarrerari dagokionez.
- Gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa sustatzeko baliabideak eman dira.
- Gizarte-trebetasunak familia-harremanak hobetzeko bitartekotzat.
- Gure seme-alaben autoestimua sustatzeko modua.
- Bizitzako etapa horretan harremanak hobetzea ahalbidetzen duten nerabegaroko alderdiak.
- Autokontrola eta emozioen erabilera lantzeko modua.
- Gatazken erabilera, gatazkek negoziazioaren bidez konpontzen ikasteko tresnatzat.
- Partaidetza-gaiak landu dira, batez ere zuzendaritza-batzordeetako kideekin.
- Seme-alaben ikasketa-aldia antolatzen laguntzeko modua azaldu da.
- Lan oso pozgarria egin da; partaideen eta hezitzailearen artean sorturiko komunikazio-giroa oso ona izan da gai bakoitzean sakontzeko, eta, gainera, berez tailerrekoak izan ez diren gaien jakinarazpena ere erraztu da. Era berean, giro hori oso ona izan da taldeko dinamika batzuk lantzean konfiantza hartzeko.
- Hezitzaileak Federazioaren kezka jakinarazi du, gurasoak lan honetan hezteari eta horien ondoan egoteari dagokionez.
- Instalazioak ez dira egokienak izan.
- Gaiak gehiago sakondu behar dira.

Federazioak heziketari buruzko balorazio hauxe egin du, lorturiko esperientzian oinarrituz:

- Heziketarekin jarraitu behar da, gaurkotuta egoteko eta gurasoen eskariei erantzun hobea emateko.
- Komenigarria da heziketa federazioko kideek ematea, IGEekiko inplikazioa behar baita; dena den, gerta daiteke kasuren batean adituren bat behar izatea.
- Beharrezkoa da IGEetako kideek heziketan parte hartzea.
- Berdinen arteko heziketaren garrantzia baloratzen dute, ikaskuntza eskuragarriagoa baita.
- CEAPAn ematen den heziketa homologatzeko aukera bilatzen dute.

Federazioak hobekuntza-proposamen hauek egiten ditu:

- Heziketa-lanean parte hartzen edota hori aurkezten jarraitzea, horren presentzia behar duten lekuetan.

- Gurasoen heziketarekin jarraitzea; izan ere, Federazioak ematen duen zerbitzua da eta ikastaroetako partaideek horri buruzko balorazio oso positiboa egiten dute. Euren ustez, gurasoek orientazioa behar dute euren seme-alabak hezteko moduari buruz, eta hori egiteko duten modua euren errealitateari oso ondo egokitzen zaio.
- Federazioaren heziketari buruzko informazioa bidali behar da ikastetxeetako zuzendaritzetara edo Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako Orientazio Sailetara; izan ere, ikastetxe horietan irakasleak inplikatu behar dira, gurasoei adorea emateko: bestela, horietan sartzea ia ezinezkoa da.

CEAPAREN jardueretan parte hartzea (Ikasleen Guraso Elkarten Estatuko Konfederazioa).

CEAPAK antolatutako hezitzaileen heziketako ikastaroak jaso dituzte:

- Oinarrizko gaitasunak: Topaketa: "Eskolaren eta familiaren arteko lankidetzaren sustatzeko modua". Atlantida proiektua.
- Kontsumo arduratsuari buruzko hezitzaileen heziketa-ikastaroa.
- "Alkoholaren prebentzioa" jardunaldia (Osasun Ministerioa, Madril).
- "Baterako hezkuntza" deritzonari buruzko jardunaldiak.
- Kontsumo arduratsuari buruzko jardunaldia.
- Iberoamerikarekiko Esperientzia Trukeari buruzko Atlantida jardunaldiak.
- CEAPAK Valentzian antolatutako udako ikastaroak, "Guraso-elkarteen Oinarrizko Kudeaketa Gaitasunak" deritzonari buruz.

CEAPAKO zuzendaritza-batzordetik HERRIKOAKO bi pertsonak hartu dute parte: Valle Ballano, mahaikide autonomikoaren lanak eginez, eta Pedro Rascón, Konfederazioko presidentetzat eta presidenteordetzat, 2007/2008 ikasturtean.

Beste topaketa edo jardunaldi batzuetan ere parte hartu dute:

- Gutxiengo Hizkuntzen Europako Batzordea (Madril, 2007-9-13).
- CRANA. "Kontratazio elektrikoa" mahai-ingurua.
- Ikastetxeetako bizikidetzari buruzko jardunaldia, FAPA Kantabria deritzonak antolatuta.
- CEIN. "Ekiten Ikastea" deritzonako Hezkuntza Baliabideen Zentro berriaren aurkezpena.
- Santander "Educaparty".
- FAD. "Ekintza magistrala" sari-banaketa, Zartzuela jauregian (Madril).
- "Hiritar Hezkuntza" jardunaldia, Diputatuen Kongresuan (Madril).
- Alter Nativas. "Nerabe migratzaileak eta gizarte-partaidetza" deritzonari buruzko jardunaldiak (Iruñea).
- Punto Radio-Estella. "Hiritar Hezkuntza" deritzonari buruzko hizketaldia.
- "Guraso Mahaia" deritzonari buruzko parlamentu-agerraldia.
- "Eskola Laikoa" kanpainaren aurkezpena, CEAPA, Madril.
- Kontsumo arduratsuari buruzko "Gurasoek dute hitza" kanpainaren eta hitzaldiaren aurkezpena. Iruñea.
- ESICen hitzaldia, "Nork esan zuen hezitzailea izan nahi zuela?" deritzonari buruz.
- Hezkuntza Ministerioaren "Jardun onak" sariko epaimahaia.

## ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK

---

- "Hiri Hezitzaileak" deritzonari buruzko Estatuko Eskola Kontseiluaren jardunaldiak.
- Hiritar Hezkuntzari buruzko jardunaldia FAPARek antolatuta (Aragoiko Federazioa).
- FAPAR jardunaldiak (Aragoiko Federazioa), "Bizikidetz" gaiari buruz.
- CDNk "Hezkuntza" gaiari buruz antolaturiko jardunaldiak.
- HERRIKOA Federazioaren XXX. urteurrenaren ospakizuna.
- Nafarroako Parlamentuaren jardunaldia, testuliburuak doakoak izateari buruzko gaia lantzeko.
- Estatuko Eskola Kontseiluko jardunaldia, Oinarrizko Gaitasunei buruz.
- Nafarroako Berdintasun Institutuaren bilkurak, generoko indarkeriari buruz.
- Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardunaldia, Oinarrizko Gaitasunei buruz.
- Laikotasunari buruzko jardunaldia, Nafarroako Errepublikaren aldeko Hiritar Batasunak antolatuta.
- Errioxako Federazioak Larderon egindako jardunaldiak, "Hiritar Hezkuntza" deritzonari buruz.
- Nafarroako Eskola Kontseiluak "Oinarrizko Gaitasunak" gaiari buruz egindako jardunaldiak.
- Estatuko Eskola Kontseiluak Bilbon egindako jardunaldi autonomikoak, "Oinarrizko Gaitasunak" deritzonari buruz.
- Nafarroako Parlamentuko Ekonomia Batzordearen agerraldia, "2008/2012 azpiegitura-plana" deritzonari buruz.
- Euskal Herriko Eskola Publikoaren jaialdia, HEIGE Konfederazioak Barakaldon antolatuta.
- Nafarroako Hezkuntza Sailaren "Erretzaile bati zuzendutako gutun irekia" lehiaketako epaimahaia.
- Nafarroako FAD sarien epaimahaia.

#### 4.7.1.2.3. SORTZEN GURASOAK elkarteak 2007/2008 ikasturtean antolaturiko jarduerak.

##### Lan-ildoak

###### 1.- Euskal curriculum:

Ikastetxeetan 2. hiruhilekoan egindako lana atzeratu egin da, eta denbora gutxi egon da planeamendua betetzeko.

###### 2- Hizkuntza-ereduen azterketa:

Euskalduntzetik eleaniztasunera: British eskolen inguruan sorturiko plataformatik; plataforma horren helburua D eredu eskolen arteko diskurtsoaren hausnarketa, gaurkotzea eta zabalkundea zuzentzea da. Euskalduntze-ereduan sakontzea eta sozializaziorako mezua indartzea. Jardunaldiak antolatu dira, honako sindikatu hauen lankidetzarekin: STEE-EILAS, LAB, ELA eta HIK- HASI.

###### 3- SORTZEN-IKASBATUAZ deritzonaren antolamendua eta zabalkundea:

Ikastetxeetan Sortzen-Ikasbatuaz deritzonaren Batzordea osatzeko, eskoletan jarraitu beharreko pausoak finkatu dituen Planifikazioa sortu zen. Lehenengo hiruhilekoan, bilerak antolatu ziren ikastetxe askorekin, eta batzuekin egin ere egin ziren. Hala eta guztiz ere, hiruhilekoan lanarekin jarraitzeko, atzerapenak ez zuen bitarte nahikorik utzi pentsaturikoa gauzatu ahal izateko.

##### Koordinazioa

Sortzen-ikasbatuaz elkarteak nazioko urte berriari dagokionez sorturiko lan-ildoak eta ekimenak:

###### 1- Jaia:

- Aurrerapausoa eman da, jaien nazio-dimentsioa lortzeko.
- Hirietan egintzak antolatu dira, jaia girotzeko; hiri bakoitzean bat antolatu da: Agurainen Pirritx eta Porrotx; Aian igandeko jaialdia, Gipuzkoako eskolen partaidetzarekin, eta Bilboko alde zaharrean, ostiral batean, euskal jaialdia antolatu zen.
- Eskolak jaiaren inguruan girotzea: eskolen inplikazioa jaiaren. Gutxieneko batzuk bermatu behar dira: materialaren lanketa, abestia, autobusa,...
- Irabazi ekonomikoa handitzea lortu zen.

###### 2- Euskal curriculum:

- Euskal curriculumaren azken fasea amaitu ez arren, egiten ari garenari buruzko jendaurreko erakustaldia egin zen Kurasaalen, ekainaren 20an.
- Kontrasteko lehenengo faserako aldaketak egin ziren: erlijioa atal berezizat ez agertzea eta gizarte-zientzietako aldaketa garrantzitsuak.
- Curriculum Berezia ez zen abendurako bete. Atzeratu egin zen eta, atal guztiak bildu zirenerako, apirila zen.
- Denbora gutxi gelditzen zen Curriculum Bereziaren kontrastea egiteko, eta hori hurrengo ikasturterako amaitu beharko da.

###### 3- Hizkuntza:

- Hizkuntza-ereduei buruzko lege berriaren iruzurrari ez.
- Gure iritzia jendaurrean aurkeztea: artikuluak, salaketa-lana,...
- Kontseiluaren hizkuntzaren ildoan eragina dugu, eta gure ekarpena bermatzen dugu.
  - . Lan horretarako talde bat sortu zen.
  - . Kontseiluan parte hartzen jarraitu.

- Euskal Herri osora zuzendutako hizkuntzaren sistema bat.
- 4 - *“Euskaraz mintza” deritzona sustatzeko, indartzeko eta hedatzeko lana.*
- 5 - *“Eskolak euskaldundu” plataforman parte hartzea.*
- 6 - *PEDAGOGIA BATZORDEA suspertzea eta lehentasunezko lan-ildoak aurreikustea. Kaseta proiektuaren inguruko topaketak antolatzeak aukera dago.*

### 7 - *Beste zenbait.*

- Hezkuntzako Akordiotik sor daitezkeen gaien inguruko partaidetza eta hedapena.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen proiektua ezagutzea.

### 8 - *Elkartearen antolamendua*

- Sortzen-lkasbatuaz elkarteko Batzordea ikastetxeetan.

### 9 - *Biltzar nazionala:*

Batzordeburu berria aukeratzea eta erabateko nazio iraunkorra aurkeztea; bi urterako planifikazioa diseinatzea, eztabaidatzea eta onartzea.

#### *Hiriko Batzorde Iraunkorra indartzea:*

Iruñeko eskolen artean, zuzeneko partaidetza izan dutenekin jarraipena egin da, eta ordezkariekin harreman oso estuak izan ditugu. Gainera, beste ikastetxe batzuekin ere harreman estu-estuak izan genituen.

### **Harremanak**

#### *Erakundeekin:*

Ahalegina egin da Hezkuntza Saileko sailburuekin harremanak izateko eta gai anitzak eztabaidatzeko. Ahal den neurrian, Euskararen Kontseiluaren jarraipena egin da.

Nafarroako Eskola Kontseiluan parte hartzeaz gain, informazioa bildu eta gure proposamenak bideratu egin ditugu.

#### *Eragileekin:*

Hezkuntzako eragileak:

- STEE-EILAS, ELA eta LAB sindikatuarekin ikasketa sustatu da; gainera, ikasketa sustatu da, honako ekintza hauek bideratuta British inguruko plataforman eta jardunaldien antolamenduan. Aldi berean, harremanak izan dira honako haekin: IA, NIE, NIZE eta ADI:
- Lan egin da Nafarroa 0-3 plataforman parte hartzen duten eragileekin.
- Une jakinetan, harremanak izango dira honako hauekin: Herrikoa, CCOO eta UGT.

Beste eragile batzuekin:

- Eskola euskalduntze-plataformako eragileekin, postalen kanpainan, ikasturte honetarako planeamenduaren arabera, ekimena ikastetxeetara bideratuz. EHErekin eta EHBerekin ere funtzio bera egin da.
- Unibertsitatean euskara sustatzeko jarraipen-batzordea.
- Oinarriak elkartean izandako eztabaidan parte hartzea, eta elkartearen erabakien zabalkundea egitea.
- Euskararen Kontseiluarekin eta Behatokiarekin.

#### *Ikastetxeekin:*

- Euskal curriculum eta beste ekimen batzuk, baita S-laz kontseiluen proposamenen gauzapenean ere.

*Kideekin:*

Irakasleekin, eskola-kontseiluen osaketan, irakasleekin bilerak antolatuz.

Gutunen bidez: gurasoekin, Iruñeko batzorde iraunkorretan esku hartzen ez duten Guraso Elkarrekeko harremanak indartzeko asmoz; deialdiak nahiz bilerak egin eta gainerako guztiekiko harremanak indartu ziren.

*Komunikabideekin:*

Sortzen-lkasbatuaz elkartearen erreferentzialtasuna indartzeko prozesuan egindako adierazpen publikoak.

**4.7.2. Ikasleen elkartek.**

60. laukia - Ikasleen elkarrekei eta federazioei emandako laguntzak (2004tik 2008ra).											
Elkartea	Ikastetxea	2004		2005		2006		2007		2008	
		Zenbat.	Kide kop.	Zenbat.	Kide kop.	Zenbat.	Kide kop.	Zenbat.	Kide kop.	Zenbat.	Kide kop.
Santiago 93	N <sup>a</sup> S <sup>a</sup> del Puy I.	483	63	219	59	329	48	763	79	771	86
Luis Amigó	Luis Amigó I.	614	266	364	290	562	306	1.287	398	983	390
Salestarrak	Salestarrak IP	1.160	876	608	870	959	870	1.662	702	1.428	718
Los Fueros	San Adrián BHI	772	285	384	285	598	285	-	-		
Alusfron	Azagra DBHI	671	209	314	205	480	195	1.043	195	1.038	177
Sta. Luisa	Sta. Luisa de Marillac I.	-	-	-	-	-	-	629	200	724	200
Alibas	Basoko BHI	-	-	361	566	446	475	761	356	936	356

*Iturria: Eskola Antolamendu eta Berrikuntza Zerbitzua.*



### **4.8. Bizikidetzarako aholkularitza**

Hiritarreko nahiz gizarteko eta norbere ekimeneko gaitasunak curriculumean sartzeak berebiziko esparrua eskaintzen du balioen hezkuntza ohiko hezkuntza-jardueran sartzeko.

Bizikidetzara eta Balioen Hezkuntza Negoziatua sortzeak (Hezkuntza Garapeneko Atalaren barruan) lan hori zuzentzeko eta hezkuntza-planifikazioan kokatzeko batasuna ematen dio Sailari.

#### **Lankidetzako eta esperientzia-trukeko sareak eta trebakuntza.**

- Bizikidetzako heziketa-sareak antolatzea eta finkatzea. 5 saretan hezitako 150 pertsona.
- Ikastetxean 15 mintegi antolatzea eta horietariko bederatzitan trebatzea. Gutxi gorabehera, 400 pertsona.
- Esperientziak azaltzeko eta trukatzeko jardunaldiak antolatzea; 120 pertsonako partaidetza, eta 55 ikastetxe inguru.
- Praktikako irakasleak trebatzea, "Ikastetxeko irakaskuntza-lanbiderako funtsezko oinarriak" ikastaroan. Gutxi gorabehera, 600 partaide.
- Nafarroako sektore publikoko orientatzaile guztientzako trebakuntza. 120 profesional.
- Bizikidetzara-trebakuntzako plana aurkeztea, zuzendaritza-taldeei. Jardueraren izena "Bizikidetzaren hobekuntza zuzendaritza taldetik" izan zen. 20 inguruk hartu zuten parte.
- Zuzeneko trebakuntza, eskabidea egin duten ikastetxeei, modu zabalean edo lan taldeetarako.
- Familiei hizketaldiak ematea edota sustatzea, beharrezana egon denean.
- Hizketaldiak bi udaletan, bi kasuetan ere udalak berak eta ikastetxeetako erakundeek sustatuta.
- Hetzizaileen trebakuntzarekin jarraitzea Madrilen.

#### **Zabalkundea: WEB eta kanpainak.**

- WEB orria gaurkotzea. 15 agiri berri sartzea.
- "Hemen bai giro" kanpaina aldatzea eta hedatzea.
- Datorren urteko kanpaina hastea eta diseinatzea.

#### **Bizikidetzara-planak.**

- Eskabidea egiten duten ikastetxe guztiei aholkua ematea, aurrez aurreko kontsultei eta telefonoz egindakoei erantzun egokia emanez.

#### **Biltzarretara eta ikastaroetara joateko eta bizikidetzarako estatu-behatokia.**

- Estatu-behatokiaren laneko bilkuretan eta jardueretan parte hartzea.
- Almeriako biltzarrerara joatea. Gaia, Eskolako Jazarpena.
- HKMk Madrilen antolaturiko Bizikidetzara Biltzar Nazionalera joatea.
- Burgosen egindako Espainiako bizikidetzara-behatokien topaketan parte hartzea.
- Hautaturiko ikastetxeen prestakuntzan parte hartzea, bizikidetzaren ebaluaziorako estatu-laginean.

- HKMren konpromisoa, lagina Nafarroako Foru Erkidegorako adierazgarriagoa den lagin batera zabaltzeko.

### **Berdintasuna**

Aholkularitzaren lana bizikidetzan oinarritu da, baina genero-berdintasunaren sustapenean eta garapenean ere parte hartu du, batez ere irakasleentzako heziketa-jarduerak antolatuz; jarduera horien helburua baterako hezkuntza eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa da, eta, horretarako, bi programa egon dira, bata Haur eta Lehen Hezkuntzarako, eta bestea Bigarren Hezkuntzarako:

- Haur eta Lehen Hezkuntzaren etapako heziketa. Ikastetxeko mintegia: "Lotu Proiektua. Maitasunaren eta sexualitatearen tratamendua indarkeriaren prebentziorako". Jasotzailea Hezkuntza Komunitate osoa da. 07/08 ikasturtean mintegi horrek bere seigarren edizioa hasi du, eta, bertan, 110 pertsona inguruk hartu dute parte.
- Bigarren Hezkuntzaren etapako heziketa; horren programaren barruan, "Berdintasunerako hezkuntza, indarkeriaren prebentziorako" mintegia sartzan da, eta hori 12 pertsonaren partaidetzarekin egin da.
- Erakundeen lankidetzan, batez ere Berdintasunerako Nafarroako Erakundearekin eta Emakumearen Nazio Erakundearekin.
- Etxeko tratu txarrak edota sexu-erasoak izan dituzten emakumeen laguntza integralerako erakunde arteko akordioaren jarraipena egiteko batzordean parte hartzea.
- Berdintasuneko Tekniketako trebakuntza-jardueretan parte hartzea; jarduera horiek INAPek eta INAIk antolatu dituzte.
- Aholkularitza familiei, ikasleei eta ikastetxeei.
- Beste esku-hartze batzuk: deialdien jakinarazpena eta publizitatea, berdintasunari lotutako gertaerak eta informazioak irakasleei eta Emakumearen Institutuak Lotu Proiekturako bidalitako materialak.
- Hezkuntza Sailaren Bizikidetzan weben ikastetxeetako mintegien ondoriozko materialak sartzea.

**ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK**

<b>61. laukia - Bizikidetzaren aholkularitza: kasuen laguntza 2007/2008 ikasturtean</b>									
<b>Hilabeteak</b>	<b>Jazarp.</b>	<b>Eskabideak</b>	<b>Ikasleak</b>	<b>Familiak</b>	<b>Ikastetx.</b>	<b>B. batzuk</b>	<b>Telefonoa</b>	<b>Posta elektronikoa</b>	<b>Presentzia</b>
Uzt.-07	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Abuzt.-07	2	2		1	1		2		
Irail.-07	0	5		2	3		5		
Urr.-07	9	17		5	10	2	13	1	3
Azar.-07	3	14		5	5	4	12		2
Abend.-07	6	13		3	3	7	9		4
Urt.-08	9	16	2	5	5	4	10	1	5
Ots.-08	6	14	2	7	5	2	13	1	
Martx.-08	7	19	1	11	1	6	13	2	4
Apir.-08	6	16		8	6	2	13	2	1
Mai.-08	8	20		7	13		20		
Ek.-08	3	13		3	7	3	9	1	3
<b>Guztira</b>	<b>59</b>	<b>149</b>	<b>5</b>	<b>57</b>	<b>59</b>	<b>30</b>	<b>119</b>	<b>8</b>	<b>22</b>

*Iturria: Antolamendu eta Berrikuntza Zerbitzua.*

#### **4.9. Balioen hezkuntzako programak**

##### **Lan-arloa: Osasunaren Sustapena / Osasunerako Hezkuntza**

###### *a) Jarduerak Osasun Sailarekin lankidetzan.*

Osasunaren Sustapeneko / Osasunerako Hezkuntzako jarduerak Osasun Sailarekin lankidetzan egiten dira, horretarako sorturiko Batzorde autonomikoaren eta Batzorde teknikoaren bitartez, eta horiek Osasuna Sustatzeko Eskolen Europako Sarearekin (OSEES) lotuta daude. 2007/2008an Lan Arlo honetan egindako jarduerak honako hauek izan dira:

- Autonomia Koordinazioko Batzordearekin egindako bilerak, Osasuna Sustatzeko Nafarroako Eskolen Sarea bultzatzeko.
- OSEESren jarraipeneko batzorde teknikoa. Batzorde teknikoa hamaika aldiz bildu da ikasturte honetan.
- OSEES eskola berrietarako deialdia, zuzendari nagusiaren Ebazpenaren bidez. 5 ikastetxe onartu dira.
- Eskolan Osasuna Sustatzeko Sarietarako deialdia, Ebazpenaren bidez.
- Nafarroako OSEESn lan egiten duten ikastetxeei buruzko informazio-liburuxkaren prestakuntza.
- Lankidetzat Drogamendekotasunen aurkako Foru Planarekin.
- Irakasleen trebakuntzarako materialen edizioa: ikasgela osasuntsuak... nerabe gaituak.
- Hezkuntza afektibo-sexualeko mintegiaren programazioa, koordinazioa eta gauzapena, Hezkuntza Sailaren Irakasleen urteroko Trebakuntza Planaren barruan.
- CAPen "doluari eta heriotzari" buruzko hezkuntza zibiko eta moraleko ikastaroa egiteko programazioa, koordinazioa eta gauzapena.
- "Eskolara itzuli" liburuxkaren ikuskapena.
- Gaiari buruzko parlamentu-ekimenei buruzko txostenak.
- Osasun Ministerioak antolaturiko Kalitate Jardunaldietan parte hartzea.

###### *b) Osasunari lotutako beste jarduera batzuk, OSEESan eta Osasun Sailarekiko hitzarmenean sartuta ez daudenak:*

- Tabakismoaren Prebentziorako eta Kontrolerako Aholku Batzorde Teknikoan egotea. Hiru bilera egin dira; gainera, lankidetzan jardun da Kerik gabeko IX. Astean eta Gutuna erretzaile bati lehiaketan.
- Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak eskatuta bilera egitea, Haurren Loditasunaren Prebentziorako "Lasai jolastu, jan eta dibertitu" programaren zabalkundea egiteko; programa hori CEIMDeK egin du (Kirolaren Medikuntza Ikerketako Zentroa).

##### **Lan-arloa: Ingurumen Hezkuntza**

Ingurumen Hezkuntzako programetako jarduerak CRANArekin lankidetzan egiten dira (Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroa), eta zentro hori Nafarroako Gobernuak Nekazaritza eta Ingurumen Saileko Ingurumen eta Ur Zuzendaritzaren mendekoa da. Lan-arlo honetan 2007/2008an egindako jarduerak honako hauek izan dira:

- Koordinazio-bilerak CRANako zuzendariarekin.

- Koordinazio-bilerak CRANako Ur Foroaren arduradunarekin eta Iruñeko Mankomunitateko ikastetxeetako jardueren arduradunarekin.
- Uraren Gazte Foroa eta Expo Zaragoza 2008 deritzenen arteko zentroen mintegia; ikastetxe ugari 500 ikaslek eta 40 irakaslek baino gehiagok hartu dute parte.
- Ikastetxeko energia-planak: informazio-bilkura.
- "Aurrezpena eta eraginkortasun energetikoa ikastetxeetan" mintegiaren eraginezko lan taldeen kontrola.

### **Lan-arloa: Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntza**

Hezkuntza Sailaren helburu nagusienetarikoa bat Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntza estrategia egitea eta garatzea da, Nafarroako Gobernuak garapenerako lankidetzarekin duen konpromiso orokorraren barruan.

Sailaren inplikazio handiago hau laneko bi alderditan oinarrituz ulertzen da:

- Garapenerako Hezkuntza (GH) Nafarroako hezkuntza-sistemako planetan eta programetan sartzea, eta GHk Foru Erkidegoko irakasleen trebakuntzan eta ikastetxeetan duen presentzia indartzeko ekintzak sustatzea, nafarrek garapenerako lankidetzaren orokorrean duten sentsibilizazio eta konpromiso maila handitu ahal izateko.
- Lankidetzako eta garapenerako proiektuak nahiz programak sustatzea eta garatzea, hezkuntza-sektorea eta oinarritzko hezkuntza sustatzeko, Nazioarteko Lankidetzaren jasotzen duten herrietan; hori Nafarroako Lankidetzako I. Plan Gidarian jasotako jarduketaren ildo estrategikoen eta horren jarduketaren ildo nagusien arabera garatu behar da (pobrezia ezabatzea; generoko berdintasuna sustatzea; ingurumen-iraunkortasuna bermatzea; Giza Eskubideak, demokratizazioa eta kultura-identitatearen errespetua defendatzea; eta gaitasun nahiz antolamendu komunitarioak sortzea), berak lehenetsitako herrietan.

2007/2008 ikasturtean honako jarduerak egin dira:

#### *a) Nafarroako Lankidetzaren eta Garapenerako Kontseiluarekin:*

- Nafarroako Lankidetzaren Kontseilua eratzea.
- Nafarroako Lankidetzaren Kontseiluko Hezkuntza Batzordean parte hartzea.
- Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuko zuzendariarekin bilerak egitea.

#### *b) Irakasleen trebakuntza, Nafarroako CONGDrekin lankidetzan:*

- Iruñeko PGZren garapenerako heziketa-ikastaroa.
- Iruñeko PGZren garapenerako hezkuntza-materialak aurkezteko tailerrak.
- 2008-2009 ikasturterako ikastaroen programazioa.

#### *c) Sailaren beraren proiektuak:*

- Saharari laguntza emateko proiektua egitea.
- Nafarroako Parlamentuko "Bakea eta askatasuna Saharan" talderako koordinazioa eta laguntza.
- Ikastetxeetan egindako Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntza proiektuen jarraipena: TribuCAN – Haur Herrixkak – Alboan...

### **Lan-arloa: Zentzuzko Kontsumorako Hezkuntza**

2007/2008 ikasturtean zentzuzko kontsumoari lotutako jarduerak egin dira:

- Kontsumo Zerbitzuaren informazio-bilerarako deialdia egin da, ikastetxeetan kontsumo-proiektuak koordinatzen dituzten pertsonekin.
- Proiektuen ebaluazioa eta memoriak egin dira.
- Parte hartu da Kontsumoko Institutu Nazionalak antolaturiko informazio, heziketa eta hezkuntza taldearen jardueretan; Madrilén, Toledon eta Palma Mallorcan izan dira.
- COMENIUS proiektuko kideen topaketan parte hartu da; Sofian izan da.

### **Nafarroako Parlamentuari buruzko unitate didaktikoa**

1996an, Nafarroako Parlamentuak eta Hezkuntza Sailak akordioa sinatu zuten; horren bidez, Nafarroako Parlamentuari buruzko gida didaktikoa editatu zen.

Curriculum berriek arloek eta ikasgaiek ikasleen artean garatu eta sustatu behar dituzten oinarrizko gaitasunak zehazten dituzte. Horietariko bat gizarte eta hiritar gaitasuna da. Gainera, Lehen Hezkuntzako azken zikloan eta DBHn ematen den Hiritar Hezkuntza deritzon arlo berriaren barruan, Espainiako konstituzioari buruzko edukiak daude jasota, baita gizarte demokratikoen, Autonomien Estatuaren, Espainiako estatuaren eta Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzkoak ere.

Gida horretan jasotako proposamen pedagogikoa gaurkotzeko, Nafarroako Parlamentuak eta Hezkuntza Sailak akordio bat sinatu dute. Bertan, Nafarroako Parlamentuari buruzko unitate didaktikoak sortzea dago aurreikusita, Lehen Hezkuntzako azken zikloko ikasleentzat (5.a eta 6.a) eta DBHko 3. nahiz 4. mailetakoko ikasleentzat; unitate horiek baliozkoak izango dira Nafarroako Legegintza Ganbararen funtzionamendua eta jarduera hobeto ezagutzeko.

Lan hori egiteko, irakasle talde bat eratu da, eta horiexek eramango dute aurrera proiektua, Balioen Hezkuntzako Negoziatuak koordinatuta.

### **Balioen Hezkuntzako langileek landutako beste gai batzuk**

2007/2008 ikasturtean honako jarduera orokor hauek egin dira, Balioen Hezkuntzako gaiei dagokienez:

#### *a) Bide Hezkuntza:*

- Bide Segurtasuneko Batzorde Teknikoan parte hartzea, 2008ko Bide Segurtasunari buruzko jarduketa-proposamenak aurkezteko eta jasotzeko.
- Euchires 2007 proiektuari laguntzea; eraginkortasuna egiaztaturik duen bide-prebentzioko Europako proiektua da. Proiektua PGZen informazio-bilkuretan aurkeztea.
- "Road Show" deritzonaren zabalkundea egitea; gazteentzako bide-hezkuntzako jarduera bitxia da, bizkarrezur-muineko lesioa ikertzeko Elkarteak egindakoa.
- DYArekin lankidetzak-bilkurak egitea, istripuen prebentziorako ekintzetarako.

#### *b) Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenarekiko harremanak, zenbait ikastetxetan Justizia Hezkuntzako programa abiatzeko.*

#### *c) Nafarroako Kirol Institutuak egindako lankidetzak-eskabidea, Nafarroan Kiroleko Plan Estrategikoa sortzeko.*

#### *d) Nafarroako Ogasunean iruzurraren aurka Borrokatzeko Planeko Zerga Hezkuntzako agiriaren berrikuspena.*

### **Irakasleen trebakuntza**

Balioen Hezkuntzak aurreikusitako irakasleen trebakuntzako jarduerak, 2007-2008 ikasturtean garatzeko aurreikusitakoak, honako hauek izan ziren:

Ikastaroa: "Gaixotasun- eta heriotza-egoerak modu positiboan eramateko modua". 76 partaide.

Ikastaroa: "Garapenerako hezkuntza: hiritartasun berrirako eta bizikidetzarako ezinbesteko estrategia". Nafarroako GKEen koordinatzaileak antolatuta (CONGD). Partaide kopurua: 24.

Mintegia: "Hezkuntza sexuala eta afektiboa Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan". Partaide kopurua: 26.

Ikastetxeen arteko mintegia: "Eskola iraunkorra: uraren inguruko proposamenak. Nafarroako gazte-foroa eta Zaragozako Expoko topaketa". CRANArekin lankidetzan antolatuta. 8 lan talde ikastetxeetan.

Ikastetxeko mintegia: "Eskola osasunaren prebentziorako lekutzat. Osasuna Sustatzeko Eskolen Europako Sarean integratzea (OSEES)". Osasun Sailarekin lankidetzan (OPIren Osasunaren Sustapena eta Drogamendekotasunen Foru Plana). Ikastaroan 17 ikastetxek hartu dute parte.

Elkartasunerako material didaktikoak aurkezteko tailerra. Haur eta Lehen Hezkuntza. Nafarroako CONGDek antolatuta. 17 partaide.

Elkartasunerako material didaktikoak aurkezteko tailerra. Haur eta Lehen Hezkuntza. Nafarroako CONGDek antolatuta. 14 partaide.

Informazio-bilkura: "Eskola iraunkorra: ingurumena eta ura ikastetxeetan". 13 partaide.

"Drogamendekotasunen prebentzioa ikastetxean" moduluak (Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza). Drogamendekotasuneko Foru Planari eskabidea egin dioten 20 ikastetxeetan.

"Bide Hezkuntza. Curriculumeko integrazioa, materialak eta hezkuntza-baliabideak" deritzonari buruzko beste hiru mintegi eten egin ziren, behar beste partaide ez zutelako.

## **4.10. Beste hezkuntza-programa batzuk.**

### **4.10.1. Iruñeko Udala**

#### **Guraso-elkarteetarako heziketa-programa**

2006/2007 ikasturtean 45 federaziok eta elkartek hartu dute parte (Iruñean, guztira, 46 daude); partaide kopuru osoa 4.205ekoa izan da, eta partaidetza 193 informazio- eta heziketa-bilkuraren bidezkoa izan da, eta, guztira, 312,75 ordu izan dira. Hizlariak 60 izan dira.

Hizketaldien gaiak hurrengo epigrafe orokor hauetan bilduta daude:

Hezkuntza Hiria: kultura desberdinak, aisialdia, astialdia	3 bilera (%1,55)
Komunikazioa: gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa, eta familia-elkarrizketa	62 bilera (%32,12)
Osasun-ohiturak: elikadura, drogamendekotasunak, sexu-hezkuntza	54 bilera (%27,98)
Menu irekia: Bigarren Hezkuntzarako sarbidea, haurren erasokortasuna, familia gaur	62 bilera (%32,12)
Familia: eredu berriak	5 bilera (%2,59)
Familien partaidetza: gurasoen eskola	1 bilera (%0,52)
Zeharkakoak: kirola, kultura arteko hezkuntza	6 bilera (%3,11)

#### **Beste programa batzuk**

##### **“Ezagutu Iruñea”**

Programaren helburu orokorra gure hiria hobeto ezagutzea izan da; horretarako, Iruñeko historia eta hiri-bilakaera aztertu dira.

Ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleei zuzenduta dago.

98 taldek hartu dute parte (guztira, 2.139 pertsona): Iruñeko ikastetxeetako 30 talde, Nafarroako gainerako lekuetako 30 ikastetxe, Nafarroatik kanpoko 20 ikasle talde eta helduen 18 talde.

##### **Mendiko diapositiben proiektzioak.**

Helburua Iruñeko ikasleei beste herri batzuetako bizimoduak jakinaraztea da; hain zuzen ere, jardueren protagonistak diren Nafarroako mendizaleek bizi izandako esperientziak erakustea, eta gazteak sentsibilizatzea, mendiko arriskuei aurre egiteko entrenamendu eta prestakuntza egokia behar izateari buruz.

48 proiektzio egin dira; horietatik 3 Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei dagozkie, eta 45 Lehen Hezkuntzako ikastetxeei; guztira, 2.095 ikaslek hartu dute parte.

##### **Gayarre antzokiko eskola-bisitaldiak.**

Helburua etorkizuneko ikusleen heziketan laguntzea da, horien iritzi kritikoaren eta estetikoaren gaitasunean eragin izanik. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleei zuzenduta dago.

20 ikastetxetako 962 ikaslek hartu dute parte.



### **Antzerki-tailerrak ikastetxe publikoetan.**

Helburu orokorra haurren adierazpen-baliabideak aberastea da: ahotsa, mozorroa, keinu dramatikoak, gorputz-mugimendua. Gainera, horiek erabiltzeko eta aztertzeko teknikak ere eskaintzen zaizkie, euren komunikazioa eta gainerakoekiko harremanak errazteko. Lehen Hezkuntzako 1-5. mailetakoko ikasleei zuzenduta dago.

Lehen Hezkuntzako 1. eta 5. mailetakoko 83 taldek hartu dute parte; guzira, 26 ikastetxetako 1.675 haur izan dira.

### **Irakurtzeko zaletasunaren sustapena.**

Programaren helburuak honako hauek dira: irakurtzeko zaletasuna sustatzea, irakurtzearen aldeko jarrera positiboak eragitea, ikastetxeei baliabide erabilgarriak eskaintzea, literatura-sormenean lan egiten duten pertsonak harremanetan jartzea eta ahozko kontaketa bultzatzea.

Programak hauxe eskaintzen du:

- Irakasleentzako mintegiak: 29 heziketa-bilera egin dira, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 28 ikastetxetan.
- Ahozko narrazioko saioak. Guztira ipuin-kontalaritzako 100 saio egin dira, eta horietan Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 4.402 ikaslek hartu dute parte.
- Haur-literaturako egileekin egindako topaketak. Guztira, 91 topaketa egin dira, eta horietan ikastetxeetako eta institutuak 4.214 ikaslek hartu dute parte.

### **4.10.2. Iruñea/Montejurra Eskualdeko Mankomunitatearen programak**

#### **Familiako irakurmena sustatzeko heziketa-jarduerak**

2007/2008 ikasturtean, FIRA taldeak irakurmena sustatzeko jarduera garatzen jarraitu du. Ikasturte honetan, honako datu hauek eman dituzte: 3 ama Lizarrako PGZko Irakurle Klubean sartu dira; Lizarrako Arieta Elko 4 gurasok irakurgaiak gomendatu dituzte "Lizarrak irakurtzen du" aldizkari 5. zenbakian, eta aldizkari horren 2.600 aleak doan banatu dira ikastetxeetan eta liburutegietan; eta Tuterako, Murchanteko eta Cascateko 21 pertsona "Familiako irakurmena" deritzonari buruzko hizketaldian egon ziren (Tuteran maiatzaren 15ean emandako hizketaldia).

#### **4.11. Familiari Laguntzeko Plana.**

Nafarroako Gobernuak Familiari Laguntzeko Plana onetsi zuen, 2001eko maiatzaren 7an. 2006an horren lehenengo fasea amaitu eta bigarren fasea hasi zen, hurrengo lau urteetarako programazioarekin; gainera, Gizarte Arazoak dituzten Haurrei eta Gazteei Laguntzeko Planaren ebaluazioa ere hasi zen.

Jarduketa guztien azpian dauden, jarduketok oinarritzen dituzten eta Planaren filosofia euskarritzen duten printzipioak honako hauek dira:

- Unibertsaltasuna: diseinaturiko neurrien barruan, Nafarroako familia guztiak sartu behar dira.
- Partaidetza: familia subjektu aktibotzat hartu behar da, politiken diseinuan.
- Subsidiaritatea: jarduketa publikoek familien garapen handiagoa ahalbidetu behar dute.
- Erantzukizun publikoa: botere publikoek bete egin behar dute Konstituzioan ezarritakoa.
- Baliabideen integrazioa; izan ere, familia-politika bat eraginkorra izateko, beharrezkoa da baliabide horiek guztiak aintzat hartzea.
- Administrazioen arteko koordinazioa eta integrazioa: harmonizazio eta eraginkortasun ahalik eta handiena lortu behar da, Gobernuko sailen baliabide erabilgarrien kudeaketan eta aplikazioan, gainerako herri-administrazioak eta gizarte-erakundeak kontuan hartuta.
- Deszentralizazioa eta pilaketarik eza, familiari laguntzeko baliabideak aplikatzeko orduan.
- Jarraipena eta egonkortasuna: arau orokorrak eta jarduketak epe luzerako ikuspegiarekin eratzten dira.

Familiari Laguntzeko Planaren 2. fasearen helburu orokorrak honako hauek dira:

- Nafarroako gizarteak familiak gizartearen garapen iraunkorraren oinarritzko gunetzat eta funtsezko bermetzat duen garrantziaz jabearaztea.
- Familia egonkorak indartzeko eta finkatzeko laguntza ematea.
- Familien autonomia garatzea, familiak gizarte-garapenaren benetako protagonistak izateko.

Bigarren fasean honako programa hauek sartzen dira:

- Familia gizartean.
- Familia eta politika sektorialak.
- Laneko eta familiako bizitza moldatzea.
- Beharrian bereziak dituzten familiei laguntza ematea.
- Familiei laguntza ematea euren funtzioetan.
- Familiaren Zuzendaritza Nagusiaren kudeaketan kalitate-kultura berria ezartzea.

Programa horietariko bakoitzak helburu eta neurri zehatzak ditu. Horien guztien artean, beheko laukian Hezkuntza Sailean zuzeneko eragina dutenak ageri dira.

**ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK**

<b>62. laukia - Familiari Laguntzeko Planaren 2. faseko Programak, Helburuak eta Neurriak, Hezkuntza Sailari dagozkionak</b>		
<b>Programak</b>	<b>Helburuak</b>	<b>Neurriak</b>
Familia eta politika sektorialak (2. programa)	Nafarroako Gobernuko sailetakoa politika sektorialetan "familiako ikuspegia" bermatzea	Protokolo adostua egitea, familiako politika sektorialen jarraipen egokia egiteko
	Familiari zuzendutako ekintzen koordinazioa eta partaidetza instituzionala sustatzea	Familiari Laguntzeko Planeko jarraipen-batzorde zuzentzaileak eta teknikoak dinamizatzea eta horiei eraginkortasuna ematea
		Koordinazio-sistema bat sortzea, familiaren arloko ekimenak adostasunez garatzeko
		Familiari laguntzeko programak, baliabideak eta zerbitzuak hedatzeko agiriak prestatzea
	Familiari laguntzearen arloan hartzen diren neurrien eraginkortasuna eta eragingarritasuna ebaluatzeko aukera ematen duen sistema eragilea edukitzea	Familiari laguntzeko neurrien eraginkortasuna eta eragingarritasuna ebaluatzeko adierazle-sistema diseinatzea
		Urteko txostena egitea eta, bertan, saileko arlo honetan egindako ekarpen nagusiak jasotzea
		Nafarroako Gobernuko estatistiken programetan, Familiari Laguntzeko Planaren garapenari eta Familiako Zuzendaritza Nagusiko prestazioei buruzko informazio garrantzitsua jasotzea
Jarduketa-ildo berriak formulatzea, beharrian berriei erantzuna emateko	Batzorde Teknikoaren barruan, lan talde malguak ezartzea, sektore jakinetako beharrian berriak aztertze eta lotze, eta beharrian horiei erantzuna emateko	
Laneko eta familiako bizitza moldatzea (3. programa)	Laneko eta familiako bizitza moldatzea errazten duten baliabideak eta estrategiak sustatzea	Prestazio teknikoak: zerotik hiru urtera bitarteko haurrentzako haur-eskolak
Beharrian bereziko familiei laguntzea (4. programa)	Familia-disfuntzioko egoeren prebentziorako eta laguntzarako zerbitzuak eta baliabideak edukitzea	Familia Orientazioko Zerbitzuaren inplementazioa
Familiari laguntzea euren funtzioetan (5. programa)	Aitatasun eta amatasun arduratsua garatzeko estrategiak eta baliabideak eskaintzea	Familiarentzako kanpainak, jardunaldiak eta heziketa-ekintzak garatzea
		Sailen arteko lankidetzak eta beste erakunde batzuekiko akordioak ezartzea, heziketa-ekintzak garatzeko
		Heziketa sustatzeko materialen prestakuntza

Iturria: Familiari Laguntzeko Plana. Nafarroako Gobernua. Garapen-fasea 2007-2010. Nafarroako Gobernua, Familia Zuzendaritza Nagusia. 2007ko otsaila.

Programa bakoitzarekin batera, horren gauzapean eta emaitzei dagozkien adierazleak aurkeztuko dira.

Planaren 2007-2010 aplikazio-aldiaren ebaluazioa egingo da.

### Beste jarduera batzuk

2007ko martxoaren 12an, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Sailak eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak beste lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten, "Ikasi telebista ikusten" kanpainari eta "Familia, telebista eta beste pantaila batzuk" programari jarraipena emateko.

Hitzarmenean ezarritako jarduerak honako honetan oinarritzen dira: gurasoei, elkarteei, erakundeei eta familiarekin lotutako taldeei heziketa-bilkurak ematea, adin txikikoak telebistaren eta beste pantaila batzuen erabilera egokian orientatzeko.

Programaren aurrekontua 19.000 eurokoa izan da. Heziketa-materialak landu dira, familiei emateko.

Programa 2007ko urtarriletik ekainera bitartean garatu zen; hiru tailer eman ziren, eta horiek amaitu barik gelditu ziren urte horretako azken hiruhilekoan. Guztira, 34 tailer eman ziren eta horietan 685 gurasok hartu zuten parte; horiek amaitzean, poztasun maila oso altua izan dela esan daiteke.

Eskariak IGEetako presidentek edota kideek egin zituzten, batez ere.

<b>63. laukia - "Familia, telebista eta beste pantaila batzuk" programan parte hartu duten ikastetxeak</b>		
<b>Ikastetxea</b>	<b>Data</b>	<b>Partaide kop.</b>
Burlada Ikastetxe Publikoa	07-01-19	17
Burlada Ikastetxe Publikoa	07-01-19	27
Etxalarko Landagain Eskola Publikoko IGE	07-02-26	13
Lekunberriko Eskola Publikoko IGE	07-03-12	11
San Fermín Ikastola	07-03-12	33
Zigandako Paz Ikastola	07-03-19	44
Goizueta Ikastetxe Publikoa	07-03-23	13
Olazagutia Kultura Etxea	07-03-26	14
Noaineko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua	07-03-29	38
Altsasuko Ludoteka	07-04-02	8
Beriaineko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua	07-04-03	26
Barasoaineko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua	07-04-03	23
Cadreitako Oinarrizko Gizarte Zerbitzua	07-04-20	5
La Compasión Escolapios Ikastetxea	07-04-23	30
Egoalde Ikastola	07-04-23	4
Elvira España Ikastetxe Publikoa	07-04-24	25
Mendigoiti eta El Lago Ikastetxe Publikoa	07-04-27	12

## ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK

Onabide Elkarte	07-05-04	17
Eskolapioak	07-05-07	44
Amaieur Ikastolako IGE	07-05-07	9
Obispo Irurita Ikastetxea	07-05-08	24
Mendialadea Ikastetxeko IGE	07-05-10	15
Irabia Ikastetxea	07-05-12	18
Santa Ana Ikastetxea	07-05-14	24
Remontival Estella	07-05-14	11
Remontival Estella	07-05-15	23
Julián Gayarre Ikastetxe Publikoko IGE	07-05-15	10
Iturmendi Ikastetxeko IGE	07-05-18	16
Sagrado Corazón Ikastetxea	07-05-21	53
Carcastilloko Ikastetxe Publikoa	07-05-21	9
Anapamu (Erditze anizkoitzetan jaiotako seme-alaben Nafarroako Guraso Elkarte)	07-06-02	13
Zizur Nagusia Ikastetxe Publikoa	07-09-20	22
Martzilla	07-10-08	12
San Adrián	07-10-09	20

*Iturria: Nafarroako Gobernuaren Familiari Laguntzeko Plana. Garapen-fasea 2007-2010. Nafarroako Gobernu, Familia Zuzendaritza Nagusia. 2007ko otsaila.*

Hitzarmen horretan oinarrituz, azaroaren 20an eta 21ean, "Haurtzaroaren Mundu Egunean" eta "Telebistaren Mundu Egunean", hurrenez hurren, bi jardunaldi egin ziren. Lehenengoan, hizketaldia egin zen hezkuntzako profesionalekin, gizarte-zerbitzuekin eta osasun-zerbitzuekin, eta horren zuzendaria COMUNICAR taldeko zuzendaria den José Ignacio Aguaded izan zen. Bigarrena, gurasoei zuzenduta egon zen, eta zuzendaria María Luisa Ferrerós izan zen: haurren psikologoa eta "Enséñale a ver la tele" liburuaren egilea.

#### **4.12. Nafarroako Eskola Kontseiluaren Jardunaldiak Ikastetxeko Eskola Kontseiluekin.**

IX. jardunaldia, 2008ko apirilaren 19an egindakoa; horren lema "Oinarrizko gaitasunak: arrakastarako bidea" izan zen.

166 pertsonak hartu zuten parte; horietatik, %73,50 ikastetxe publikoetakoak izan ziren, eta %26,50 ikastetxe pribatuetoakoak.

**Programa** hauxe izan zen:

- 9:45 h. Irekiera ofiziala eta ongietorria; Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin zuen (Nafarroako Hezkuntza Sailburua).
- 9:55 h. Jardunaldiaren eta txostengilearen aurkezpena; Carmen Maestrok egin zuen, Estatuko Eskola Kontseiluko presidentea.
- 10 h. 00' Elena Martín Ortega andrearen txostena (Psikologia Ebolutiboko irakaslea, Madrileko Unibertsitate Autonomoan).
- 11 h. 00' Hizketaldia.
- 11 h. 30' Atsedena. Kafea.
- 12 h. 00' Ángel Sanz Moreno jaunaren txostena (Nafarroako Hezkuntza Ikuskatzailea).
- 12 h. 30' Tailerrak. Partaideen aurkezpena eta banaketa:
  - 1. Hizkuntza-komunikazioko gaitasuna.
  - 2. Matematikako gaitasuna.
  - 3. Kultura eta arteko gaitasuna.
  - 4. Inguru fisikoaren ezagupeneko eta horrekiko elkarreagineko gaitasuna.
- 13 h 30' Amaierako hizketaldia.
- 14:00 h. Bukaera: DUGUNA dantza taldea.

#### **Jardunaldien edukiari buruzko erreferentzia.**

Berlaratuek jardunaldien ebaluazioa egin zuten, eta horren emaitza hauxe izan zen:

**ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK**

<b>64. laukia - Nafarroako Eskola Kontseiluaren IX. Jardunaldiaren ebaluazioaren emaitzak</b>						
	<b>Erantzun ez</b>	<b>Oso ondo</b>	<b>Ondo</b>	<b>Hala-moduz</b>	<b>Txarto</b>	<b>Oso txarto</b>
Epea	%1,33	%34,67	%56,00	%6,67		%1,33
Diptikoa		%32,00	%65,33	%1,33		%1,34
Antolamendua	%2,67	%44,00	%52,00	%1,33		
Gaia		%78,67	%21,33			
Dokumentazioa	%10,67	%6,67	%42,67	%40,00		
Elena Martín txostengilea		%93,33	%5,33	%1,33		
Ángel Sanz txostengilea	%5,33	%69,33	%22,67	%2,67		
1. tailerra		%79,31	%13,79	%3,45		%3,45
2. tailerra		%50,00	%42,86	%7,14		
3. tailerra		%63,64	%36,36			
4. tailerra		%66,67		%16,67		%16,66
Jardunaldiaren balorazio orokorra	%6,67	%66,67	%26,66			






## 5.- GIZA BALIABIDEAK

### 5.1. Irakaskuntzako funtzio publikoa

#### 5.1.1. Irakasle plantillaren bilakaera ikastetxe publikoetan

70. koadroa - Ikastetxe publikoetako irakasleen bilakaera, ikasmalaka, 2004/2005 ikasturtetik 2008/2009ra					
Irakasten duen ikasketa maila	2004/2005	2005/2006	2006/2007	2007/2008	2008/2009
Haur Hezkuntza soilik	680	686	704	813	866
Lehen Hezkuntza soilik	1.701	1.796	1.886	1.951	2.068
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza soilik	975	893	1.035	1.051	1.133
Batxilergoa soilik	111	177	128	150	189
Lanbide Heziketa soilik	679	638	669	686	732
Haur eta Lehen Hezkuntza	539	576	512	616	633
Lehen Hezkuntza eta DBH	43	55	37	38	42
DBH eta Batxilergoa	914	877	822	792	858
DBH / Batxilergoa / Lanbide Heziketa	65	85	60	72	86
Berariazko Hezkuntza Berezia	59	61	66	88	88
Beste aukera batzuk (ikasketa mailen beste konbinazio batzuk)	23	13	105	159	175
<b>Guztira</b>	<b>5.789</b>	<b>5.857</b>	<b>6.024</b>	<b>6.416</b>	<b>6.871</b>

Iturria: Nafarroako Hezkuntza estatistika



<b>71. koadroa - Araubide bereziko irakasleen bilakaera ikastetxe publikoetan, 2004/2005 ikasturtetik 2008/2009ra</b>					
<b>Zein ikastetxetan irakasten duten:</b>	<b>2004/2005</b>	<b>2005/2006</b>	<b>2006/2007</b>	<b>2007/2008</b>	<b>2008/2009</b>
<b>Arte Eskolak</b>	<b>75</b>	<b>75</b>	<b>79</b>	<b>79</b>	<b>87</b>
Batxilergoa soilik	21	19	19	25	28
Lanbide Heziketa soilik	1	2	2	2	2
Batxilergoa eta Lanbide Heziketa		1	3	1	1
Arte Plastikoak eta Diseinua soilik	36	36	40	37	41
Batxilergoa eta Arte Plastikoak eta Diseinua	17	17	15	14	15
Musika kontserbatorioak	144	155	167	175	170
Musika eskolak	546	541	541	562	588
Dantza eskola	14	14	12	13	13
Hizkuntza Eskola Ofizialak eta horien zabalgunek	80	81	80	82	79
Helduen Hezkuntza zentroak	98	91	95	95	103

Iturria: Nafarroako Hezkuntza estatistika

### 5.1.2. Irakasleen administrazio araubidepeko kontratazioak (aldi baterakoak)

<b>72. koadroa - Irakasleen kontratazioaren bilakaera ikastetxe publikoetan, 2004/2005 ikasturtetik 2008/2009ra. Zein kidegotakoak diren.</b>					
<b>Irakasten duten ikasketa maila</b>	<b>2004/2005</b>	<b>2005/2006</b>	<b>2006/2007</b>	<b>2007/2008</b>	<b>2008/2009</b>
Bigarren Hezkuntzako irakasleak	378	416	586	865	621
Lanbide Heziketako irakasle teknikoak	78	75	78	88	91
Hizkuntz Eskola Ofizialetako irakasleak	12	13	14	17	14
Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleak	62	94	107	97	95
Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleak	18	20	21	21	23
Arte Plastikoetako eta Diseinuko tailer maisu-maistrak	8	8	9	8	9
<b>Guztira Bigarren Hezkuntza</b>	<b>556</b>	<b>626</b>	<b>815</b>	<b>1.096</b>	<b>853</b>
Maisu-maistrak	794	553	546	808	907
DBHko maisu-maistrak	124	127	74	83	87
<b>Guztira maisu-maistrak</b>	<b>918</b>	<b>680</b>	<b>620</b>	<b>891</b>	<b>994</b>
<b>Guztira</b>	<b>1.474</b>	<b>1.308</b>	<b>1.435</b>	<b>1.987</b>	<b>1.847</b>

Iturria: Giza Baliabideen Zerbitzua Lan-kontratudunen Nomina Bulegoa eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Bulegoa.

## 5.1.3. Erlijo irakasleen kontratazioa.

73. koadroa - Erlijo irakasleen kontratazioaren bilakaera, 2004/2005 ikasturtetik 2008/2009ra										
	2004/2005 ikasturtea		2005/2006 ikasturtea		2006/2007 ikasturtea		2007/2008 ikasturtea		2008/2009 ikasturtea	
	L. osoa <sup>1</sup>	L. partz.	L. osoa	L. partz.	L. osoa	L. partz.	L. osoa	L. partz.	L. osoa	L. partz.
Bigarren Hezkuntza	45	17	47	13	49	7	44	61 ordu	52	142 ordu
Lehen Hezkuntza	86	49	92	42	94	44	131	336 ordu	131	283 ordu

Iturria: Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzua

## 5.1.4. Funtzio publikoan sartzea eta espezialitate berriak eskuratzea, 2008/2009 ikasturtea.

Oposizio-lehiaketan deialdiak, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kidegoan, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoan eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako kidegoan sartzeko

74. koadroa - Estatistika: maisu-maistren kidegoetan sartu eta bertara igotzeko hautapen prozesua, 2008/2009 ikasturtean, eta espezialitate berrien eskuratzea							
MAISU-MAISTREN kidegoan sartzeko hautapen prozesua							
Especialitatea:	Eskainitako lanpostuak			Esleitutako lanpostuak		Betetako lanpostuak	
	Elbarrientz at gordetako txanda	Sarbid e irekiko txanda	Guztira	Elbarrientz at gordetako txanda	Sarbid e irekiko txanda	Guztira	%
Audición y Lenguaje	2	10	12	1	11	12	100
Educación Física		26	26	0	26	26	100
Francés		2	2	0	2	2	100
Inglés	4	102	106	1	105	106	100
Música	2	10	12	0	12	12	100
Educación Infantil	8	92	100	2	98	100	100
Pedagogía Terapéutica	5	40	45	0	45	45	100
Primaria	4	76	80	2	78	80	100
Entzumena eta Hizkuntza	1	3	4	0	4	4	100
Gorputz Hezkuntza		8	8	0	8	8	100
Frantsesa		2	2	0	2	2	100
Ingelesa	2	48	50	0	50	50	100

<sup>1</sup> L. osoa = Lanaldi osoa. L. partz. = Lanaldi partziala.

Musika	1	7	8	0	7	7	87,5
Haur Hezkuntza	4	61	65	0	65	65	100
Pedagogia Terapeutikoa	1	19	20	0	20	20	100
Lehen Hezkuntza	3	27	30	0	30	30	100
Euskara (Nafarroa)	1	29	30	0	30	30	100
<b>GUZTIRA</b>	<b>38</b>	<b>562</b>	<b>600</b>	<b>6</b>	<b>593</b>	<b>599</b>	<b>99,83</b>
<b>ESPEZIALITATE BERRIAK eskuratzea</b>							
	<b>Onartuak</b>		<b>Aurkeztuak</b>		<b>Gaitasuna aitortu zaienak</b>		
<b>Espezialitatea</b>	<b>Kopurua</b>	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>		
o	3	0	-	-	-		
Educación Física	3	0	-	-	-		
Francés	1	1	%100	1	%100		
Inglés	2	0	-	-	-		
Música	19	5	%26	1	%20		
Educación Infantil	13	6	%46	4	%67		
Pedagogía Terapéutica	6	3	%50	3	%100		
Primaria	1	1	%100	0	%0		
Entzumena eta Hizkuntza	2	0	-	-	-		
Gorputz Hezkuntza	2	0	-	-	-		
Musika	11	2	%18	2	%100		
Haur Hezkuntza	6	2	%33	0	%0		
Pedagogia Terapeutikoa	5	2	%40	2	%100		
Lehen Hezkuntza	74	22	%30	13	%59		
<b>GUZTIRA</b>	<b>3</b>	<b>0</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>		

Iturria: Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzua

### 5.1.5. Lekualdatze lehiaketak

Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren abenduaren 4ko 3315/2008 Ebazpenaren bidez onetsi zen Nafarroan maisu-maistren lanpostuak betetzeko deialdia. Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren abenduaren 4ko 3316/2008 Ebazpenaren bidez onetsi ziren Bigarren Hezkuntzako katedradunen eta irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen eta Arte eta Hizkuntza ikasketetako irakasleen Kidegoetako irakasle funtzionarioen lekualdatze lehiaketak egiteko deialdiak.

Deialdien ondorioak koadro hauetan laburbildu dira:

<b>75. koadroa - Irakasleen lekualdatze lehiaketa, 2008/2009 ikasturtea</b>		
	<b>Parte-hartzaileak<sup>2</sup></b>	<b>Destinoa lortu dutenak</b>
Ikastetxera berraxikitzea	2	1
Lehentasunezko eskubidea	4	4
Lekualdatze lehiaketa	448	183
Baztertuak	26	-
<b>Guztira</b>	<b>449</b>	<b>188</b>

Iturria: Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzua.

<b>76. koadroa - Irakasleen lekualdatze lehiaketa, 2008/2009 ikasturtea</b>					
Nahitaezko destinoak:					2
Borondatezko destinoak:					186
Uko egindakoak:					33
Baztertuak:					26
<b>Guztira</b>					<b>310</b>
<b>Destinoa aldatu dute</b>	<b>Destinoa lortu duten behin-behinekoak</b>	<b>Destinoaren zain daude</b>	<b>Nafarroan sartu dira</b>	<b>Nafarroatik irten dira</b>	<b>Guztira</b>
125	63	97	17	71	<b>373</b>

Iturria: Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzua.

<b>77. koadroa - Bigarren Hezkuntzako katedradunen eta irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren eta Arte eta Hizkuntza ikasketetako irakasleen Kidegoetako irakasle funtzionarioen lekualdatze lehiaketak, 2008/2009 ikasturtea</b>							
<b>Parte-hartzaileak</b>		<b>Emaitzak</b>					<b>Guztira</b>
			<b>BH</b>	<b>Lanbide Heziketak o irakasle teknikoak</b>	<b>HEO</b>	<b>Musika eta Arte Eszenik.</b>	
Nahitaezkoak	611	Destinoa lortu dute	206	13	5	1	226
Borondatezkoak	259	Behin-behinekoa destinoarekin	152	6	4	0	162
Ukoak	29	Destinoaren zain daude	409	36	4	0	449
Baztertuak	20	Nafarroan sartu dira	42	1	1 <sup>3</sup>	0	46
<b>Guztira</b>	<b>870</b>	Nafarroatik irten dira	23	6	2	1	32

<sup>2</sup> Pertsona batzuek atal batean baino gehiagotan hartu dute parte.

<sup>3</sup> Parte hartzaile batek bi destino lortu ditu.

Iturria: Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzua.

### 5.1.6. Beste deialdi batzuk

#### Merezimendu lehiaketa zuzendariak berriz ere aukeratzeko:

Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiaren otsailaren 23ko 67/2009 Ebazpenaren bidez onetsi zen, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketa arautzeko deialdia.

Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiaren maiatzaren 13ko 202/2009 Ebazpenaren bidez argitara eman zen, Nafarroako ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatzeko prozeduraren barrenean, hautatutako izangaien izenen zerrenda.

- Hautatuetako hiruk hasierako prestakuntza programa egin beharko dute.
- Hautatuetako zazpik ez dute hasierako prestakuntza programa egin beharko eta lau urterako izendatuak izanen dira.<sup>4</sup>

Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiaren ekainaren 29ko 351/2009 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendariak ez-ohiko prozeduraz izendatu ziren, otsailaren 23ko 67/2009 Ebazpenean ezarritako prozedurari jarraituz:

- 23 hautatu izan ziren, eta horietatik:
  - 11 izendatu zituzten lau urterako
  - 12 izendatu zituzten urte beterako.

### 5.1.7. Irakasleen ordainsarien bilakaera.

78. koadroa - Ikastetxe publikoetako irakasleen hileko ordainsariaren bilakaera, 2005 urtetik 2009ra							
			2005	2006	2007	2008	2009
BHko irakasleen kidegoa eta araubide berezia	Katedradunak	Mailari dagokion soldata	1.751,84	1.816,66	1.854,80	1.891,90	1.929,74
		Irakasleen osagarri berezia	613,14	635,87	670,70	746,92	761,86
		<b>Osotara</b>	<b>2.364,98</b>	<b>2.452,53</b>	<b>2.525,50</b>	<b>2.638,82</b>	<b>2.691,60</b>
	BHko irakasleak	Mailari dagokion soldata	1.751,84	1.816,66	1.854,80	1.891,90	1.929,74
		Irakasleen osagarri berezia	508,03	526,83	559,41	633,41	646,08
		<b>Osotara</b>	<b>2.259,87</b>	<b>2.343,49</b>	<b>2.414,21</b>	<b>2.525,31</b>	<b>2.575,82</b>
Lanbide Heziketako irakasle teknikoan kidegoa	Mailari dagokion soldata		1.445,27	1498,74	1.530,21	1.560,82	1.592,04
	Irakasleen osagarri berezia		586,78	608,49	639,02	705,02	719,12
	<b>Osotara</b>		<b>2.032,05</b>	<b>2.107,23</b>	<b>2.169,23</b>	<b>2.265,84</b>	<b>2.311,16</b>

<sup>4</sup> 67/2009 Ebazpeneko Zortzigarren Oinarria, 1 eta 2 atalak: 1. "... gutxienez ere zuzendaritza-taldea osatzen duten edozein kargutan bi urtez zuzendari lanetan aritu direla frogatzen duten izangai hautatuek"; 2. "... ikastetxe publikoetan zuzendari lanetan aritzeko onartuta egonik, karguan aritu ez direnek edo bi urte baino gutxiago aritutakoek, ez eta Hezkuntza Departamentuak antolatzen duen Zuzendaritza Taldeentzako Prestakuntza Programa egin dutenek ere".

Maisu-maistren kidegoa	Mailari dagokion soldata	1.445,27	1.498,74	1.530,21	1.560,82	1.592,04
	Irakasleen osagarri berezia	484,17	502,08	530,37	594,20	606,09
	<b>Osotara</b>	<b>1.929,44</b>	<b>2.000,82</b>	<b>2.060,58</b>	<b>2.155,02</b>	<b>2.198,13</b>
DBH	Mailari dagokion soldata	1.445,27	1.498,74	1.530,21	1.560,82	1.592,04
	Irakasleen osagarri berezia	508,16	526,96	559,41	633,41	646,08
	DBHko osagarri berezia	78,78	81,69	83,40	85,06	86,77
	<b>Osotara</b>	<b>2.032,21</b>	<b>2.107,39</b>	<b>2.173,02</b>	<b>2.279,29</b>	<b>2.324,89</b>

Iturria: Giza Baliabideen Zerbitzua.

### 5.1.8. Erretiroak.

79. koadroa - Erretiroak, 2008/2009 ikasturtea					
	Adinagatik	Ezgaitasuna	Borondatezkoa (HLO)	Beste batzuk	GUZTIRA
Irakasle kidegoa	3	9	86	12	110
Bigarren Hezkuntzako irakasleak	0	1	26	7	34
Irakasle teknikoak	0	1	2	0	3
Ikuskatzaileak	0	0	0	0	0
Arte Plastikoko eta Diseinuko irakasleak	0	0	1	0	1
Kontserbatorioetako eta HEOko irakasleak	0	0	3	2	5
<b>Guztira</b>	<b>3</b>	<b>11</b>	<b>118</b>	<b>21</b>	<b>153</b>

Iturria: Giza Baliabideen Zerbitzua, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Bulegoa.

### 5.1.9. Unibertsitatetik kanpoko irakasleen mahai sektoriala eta 2001eko maiatzaren 31ko itunaren jarraipen batzordea.

Unibertsitatetik kanpoko irakasleen mahai sektoriala zortzi sindikatuk osatzen dute, hain zuzen ere ondoko hauek:

	Ordezkariek	%
CCOO	9	19.14
STEE-EILAS	8	17.02
AFAPNA	7	14.90
APS	7	14.90
LAB	6	12.77
CSIF	4	8.51
ANPE	3	6.38
ELA	3	6.38
Osotara	<b>47</b>	<b>100</b>

2008/2009 ikasturtean zehar Unibertsitatetik kanpoko irakasleen mahai sektoriala eta Itunaren jarraipen batzordea hainbatetan bildu dira. Jarraian ematen dira bilkuren datak eta bertan aztertutako gaien zerrenda:

- 08/10/10: Itunaren jarraipen batzordea. Batzordearen akten sinadura (maiatzaren 14koa, ekainaren 4, 6, 10 eta 13koak eta uztailaren 18koa eta 30ekoa). Ikasturte hasierako balorazioa eta gorabeherak. 2008-2009ko aurrekontuei buruzko informazioa. 2008-2009ko egutegiaren berrikuspena .
- 08/10/14: Irakasleen mahai sektoriala. Mahaiaren akten sinadura (ekainaren 6, 11 eta 17koak eta uztailaren 31koa). Ikasturte hasierako gorabeherak. Ordezkapenak/lanpostu hutsak. Aurrekontuen egoera.
- 08/10/21: Itunaren jarraipen batzordea. Irakasleak aldi baterako kontratatzeko ez-ohiko prozedura.
- 08/10/21: Irakasleen mahai sektoriala. Irakasleak aldi baterako kontratatzeko ez-ohiko prozedura.
- 08/10/31: Itunaren jarraipen batzordea. Plantilla eta lekualdatze lehiaketaren deialdia, 2008-2009 ikasturterako.
- 08/11/19: Itunaren jarraipen batzordea. Prestakuntza ikastaroen homologazioa. Lanaldi jarraitua.
- 08/12/09: Itunaren jarraipen batzordea. Urriaren 21eko eta 31ko saioen akten sinadura. Lan eskaintza publikoan deitutako lanpostuak.
- 08/12/09: Irakasleen mahai sektoriala. Urriaren 14, 21 eta 31ko akten sinadura. Maisu-maistren kidegoko oposizioen deialdia.
- 08/12/15: Itunaren jarraipen batzordea. Bitarteko irakasleak kudeatzeko sistemaren gaineko negoziazio prozesuaren hasiera.
- 08/12/18: Itunaren jarraipen batzordea. Azaroaren 7ko eta 12ko saioen akten sinadura. Bitarteko irakasleak kudeatzeko sistemaren gaineko negoziazio prozesuaren segida.
Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan euskararen sartzea eta erabiltzea arautzen duen maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuak ezartzen du euskaraz ikasten duten edo euskara irakasgai modura ikasten hasten diren ikasleek euskaraz ikasten segitu beharko dutela eskolaldi osoan. Aldaketak egin behar izanez gero, eskatu beharko dira eta haiek onartu edo ezetsiko dira, arauz xedatutakoaren arabera.

Arauek ezarri dute ereduz aldatzen ahal dela hezkuntza-maila edo -etapa bat bukatzean, disfuntzio psikopedagogiko larriak daudenean, bizitokiz aldatzean edo ikastetxez aldatzean, betiere aurreko eredurik ez badago ikastetxe horretan. Haur Hezkuntzarako eskaturiko aldaketak automatikoki ontzat ematen dira etapa hori ez baita nahitaezkoa.

2008-2009 ikasturtean, 1.846 eredu aldaketa baimendu dira eta euskara eremu euskalduneari ikastetik 84 ikasle salbuetsi dira.

<b>Koadro 207 zk. - Hizkuntza ereduz aldatzen diren ikasleen bilakaera, 2004/2005 ikasturtetik 2008/2009 ikasturtera bitarte</b>					
	2004/2005	2005/2006	2006/07	2007/2008	2008/2009
Eremu euskalduna:	20	10	29	29	22
Eremu mistoa:	539	562	697	684	1.019
Eremu ez-euskalduna:	510	423	493	517	805
<b>Guztizkoak</b>	<b>1.069</b>	<b>995</b>	<b>1.219</b>	<b>1.230</b>	<b>1.846</b>
A eredutik G eredura	806	813	965	977	1.528
G eredutik A eredura	83	86	108	109	110
D eredutik G eredura	110	42	69	72	119
D eredutik A eredura	48	38	59	59	73
A/G eredutik D eredura	22	14	9	13	11
D eredutik B eredura	0	1	9	0	5

Iturria: Euskara Atala

### 8.2.2. Garraio eta jantokirako laguntzak hizkuntza eredia aukeratzeagatik

Deialdia garatzen da euskara sustatzeko eta bultzatzeko printzipioa betetzeko, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean eta apirilaren 13ko 85/1989 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Deialdiak hogeitun urte bete zituen 2008-2009 ikasturtean. Eskabideak aurkezteko epea geroratu zen eta 2008ko abenduaren 27tik 2009ko urtarrilaren 26a arte ireki zen.

<b>Koadro 208 zk.- Garraio eta jantokirako laguntzak, hizkuntza aukeragatik, 2003/2004 ikasturtetik 2008/2009 ikasturtera bitarte</b>			
Ikasturtea	Onarturiko eskaerak	Zenbatekoa (eurotan)	Batez bestekoa
2003/2004	469	145.871	311,03
2004/2005	536	156.204	291,43
2005/2006	542	145.805	269,01
2006/2007	523	144.088	269,80

## EUSKARA NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMAN

2007/2008	556	142.392	259,07
2008-2009	<b>572</b>	<b>100.554</b>	<b>175,79</b>

*Iturria: Euskara Atala*

### Hizkuntza ereduak baimentzea

2008-2009 ikasturtean D ereduak baimendu zen Mutiloako San Pedro ikastetxean eta Noaingo San Miguel ikastetxean eta A ereduak Iruñeko Salestarren ikastetxean.

### Materialak sortu eta eskuratzea

Argitaratu edo eskuraturiko materialak honako hauek dira:

- Haur kantarien Jaialdiak haurrendako eta gazteendako kantu lehiaketako finalistak.
- Haur Kantarien Jaialdiak lehiaketaren antolaketa Hezkuntza Departamentuak laguntzen du diruz. Hartara, DVD bat prestatu du eta hartan jaso haurrendako eta gazteendako 2009ko lehiaketako finalistaren grabazioekin. 350 ale erosi dira ikastetxeetan banatzeko.
- "Ni ere bertsolari" liburua  
Bertsolaritzaren programaren barnean, ikasleendako liburua argitaratu da eta hartan ahozkotasanarekin zerikusia duten ikasliburuaren eta hitzaldien unitate didaktikoak bildu dira: komikia, irrati gidoia, txisteak etab. Koaderno hau bigarrenez aplikatu da 2008-2009 ikasturtean eta bertsolariek, irakasleek eta ikasleek ongi hartu dute.  
Gainera, koadernotxo bat argitaratu da eta hartan 2008-2009 ikasturtean eskolan bertsolaritzan parte hartu duten ikasle taldeen lanak bildu dira.
- Programen informazio-liburuxkak eta -triptikoa.  
Ataleko programen gaineko argibideak emateko, zenbait informazio-liburuxka argitaratu dira: "Euskara hobetzeko ikastaroak 2008-2009", irakasleendako prestakuntza ikastaroen gainean. "Gazteen antzerkia euskaraz: zazpigarren topaketak", antzerkiko gazteen topaketarako triptikoa eta kartela. "Arantza 2009-2010 egonaldiak", Arantzan euskaraz egindako egonaldien gaineko argibideak. "Udalekuak-Campamentos 2008", Arantzan eta Beintza-Labaienen egindako udako kanpalekuetako 18 txandei buruzko argibideak. Liburuxka bat D ereduaren ikasleendako eta beste bat A ereduaren ikasleendako. "Elhuyar hitzaldiak 2009", hitzaldi zientifikoei buruzko triptikoa. " EGA 2009", EGAREN 2009ko bi deialdiei buruzko argibideak biltzen dituen triptikoa.
- EIBZren web orria.  
Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroak (EIBZ) web orrian jartzen ditu argitaraturiko material guztiak, irakasleek gehiago erabili eta errazago eskura ditzaten. Gainera, trebakuntza ikastaroetan emandakoa CDetan biltzen da.  
  
Jadanik prestatuak dauden material horiez gainera, laster argitaratuko diren materialak prestatzen ari dira:
- Irakaskuntzarako hiztegia.  
12.000 terminoko hiztegia da, euskaraz eta gaztelaniaz. Urte luzez landu ondoren, irakaskuntzari lotutako terminologia bateratua argitaratuko da eta orain arteko gabezia arintzen lagunduko du.
- Haur Hezkuntzako A eredurako materialak  
A ereduaren ikasten ari diren 3 urtetik 5 urte bitarteko ikasleendako material didaktikoa prestatzen ari dira eta 2009ko irailetik aurrera eskuragarri izanen dira.

### 8.3. Irakasleen Euskarazko Hizkuntza Prestakuntza

Jarduera hauek martxoaren 4ko 74/2008 EBAZPENari jarraituz antolatzen dira (Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioko irakasleen Euskarazko Prestakuntzarako Planaren XXVIII. deialdia). Irakasleentzako Prestakuntza Planaren barruan ere agertzen dira.

#### 8.3.1. Euskaraz birziklatzeko ikastaro trinkoak, lan-lizentziarekin

Irakasleen 50 eskabide jaso dira, lan-lizentziako birziklatze-ikastaro trinkoetan parte hartzeko. Horietan, 26 eskabide onartu dira, maila nahikoa dutela egiaztatu dutelako eta kasu bakoitzean eskaturiko administrazio-egoera betetzen dutelako.

##### Euskaraz birziklatzeko ikastaro trinkoak, lan-lizentziarekin – B modalitatea –

Partaideak irakaslanetatik salbuetsita daude ikasturte osoan zehar, irailaren 1etik ekainaren 30era, gutxi gorabehera. 1.190 heziketa-ordu, gutxi gorabehera, jasotzen dituzte.

Orduak/ikastaroa	Ikastaro kop.	Orduak, guztira	Onartuak
1190	1	1190	6

##### Euskaraz birziklatzeko ikastaro trinkoak, lan-lizentziarekin – C modalitatea –

Partaideak, gutxi gorabehera, irailaren 1etik urtarrilaren 31ra daude salbuetsita irakaslanetatik, eta 475 heziketa-ordu inguru jasotzen dituzte.

Orduak/ikastaroa	Ikastaro kop.	Orduak, guztira	Onartuak
475	1	475	7

##### Euskaraz birziklatzeko ikastaro trinkoak, lan-lizentziarekin – A modalitatea – 2008ko iraileko deialdi berezia

Orduak/ikastaroa	Ikastaro kop.	Orduak, guztira	Onartuak
316	1	1790	13

#### 8.3.2. Lan-lizentzarik gabeko euskara ikasteko ikastaroak

##### Euskara ikasteko ikastaro estentsiboak.

Ikasturte honetan deialdi bakarra egon da, 2008ko irailean, ikaskuntza-aldi bakarrarekin, irailetik maiatzera. Hala ere, plaza hutsak egon direnez, eta araudiari jarraituz, 2009ko urtarrilean ere inskripzio bereziko aldia ireki zen.

Urtarrileko inskripzio epe berezian, modalitate berri bat eskaini da: autoikaskuntza.

Euskara ikasteko ikastaro estentsiboetan ez da egiaztagiririk ematen.

Partaidetzaren datuak honako hauek izan dira:

<b>Koadroa 209 zk. Euskara ikasteko ikastaro estentsiboetan, 2008/2009 ikasturtean</b>	
<b>Aldia</b>	<b>Ikasleak</b>
Irailetik urtarrilera	30
Otsailetik maiatzera	35
Autoikaskuntza – urritik urtarrilera	10
Autoikaskuntza – otsailetik maiatzera	69
<b>Oso tara (irailetik maiatzera)</b>	<b>144</b>

### **Euskara ikasteko banakako laguntzak**

Diru-laguntza hauen bidez, erakunde pribatuek emandako ikastaroetarako laguntza ematen da, interesatuaren herrian edo eragin-aldean Administrazioaren mendeko ikastetxerik ez dagoenean. 5 eskabide tramitatu dira.

### **8.3.3. Irakasleen hizkuntza-hobekuntza**

Irakasleek ikastaro hauen oso balorazio positiboa egiten dute oro har. Irakasleek eskatuta, dezente handitu da on line ikastaro hauen eskaintza.

Bestalde, aurrekontuen murrizketa dela eta, Prestakuntzako Bulegoak, eskaintza egon arren, asko murriztu behar izan du kanpoko hizlariekin egiten ziren ikastaroen eskaintza.

### **Euskarazko hizkuntza-hobekuntzako ikastaro trinkoa, lan-lizentzia partzialarekin.**

Ikastaroaren helburuak parte hartzen duten irakasleen gramatika gaurkotzea eta testuen sorkuntza hobetzea dira, ahozkoa eta idatzizkoa. Ikastaroa bi fasetan banatutako moduluetan antolaturik dago. 200 orduko fase trinkoa, lan-lizentziarekin, eta 100 orduko fase ez-trinkoa, lan-lizentziarik gabe. Bi fase horiek ikasturte berean egin behar dira oso-osorik.

2008/2009 ikasturteko deialdian 20 plaza egon dira; 38 eskabide jaso eta 20 pertsonak hartu dute parte.

### **Irakasleei zuzendutako berriazko ikastaroa ikastetxeetan: (Euskararen erabilera sustatzeko baliabideak)”.**

Euskara Atalak eta EIBZ-k batera ematen dute. Helburua da euskararen erabilpena sustatzeko hainbat praktika eta esperientzia ezagutaraztea. Modulua D ereduko ikastetxeei eskaintzen zaie. Hiru ikastetxetan eman dugu ikastaro hau:

- Amaiur Ikastola IP

- Alaitz IP
- Erreniega IP

Ikastetxe bakoitzaren errealitatera egokitzen gara eta hainbat orientazio eskaintzen ditugu euskararen erabilpenak, formalak nahiz lagunartekoak, antolatze eta kudeatzeko. Uste dugu beharrezkoa dela oinarri batzuk sortzea euskararen erabilpenean eta irakaskuntzan eragiten duten faktoreak aztertze. Eskola hizkuntzaren transmisiorako motor garrantzitsua da, baina ez da bakarra, batik bat hizkuntzaren erabilpena bermatu behar bada. Gizarte mailan dagoen hizkuntza pertzepzioa norbanakoaren motibazioaren, eta horrenbestez, erabilpenaren oinarria da. Hizkuntzaren erabilpena erabakitzen duten faktoreak jarrera, motibazioa, erabilpenaren beharra eta hizkuntzarekiko esperientzia dira. Faktore hauek dira hizkuntza kontzientzian eragina dutenak. Eta hizkuntza-kontzientzia hizkuntzaren beraren inguruko balio sinbolikoen inguruan sortzen da.

Euskararen erabilpena sustatzeko, arreta jartzen dugu ikasleen ahozko adierazpenean ikasgelan. Ikasgelan ahozko adierazpena modu sistematikoan lantzea hauxe da: eskola emateko era eta kurtsu eta zikloetan ahozko jarduerak planifikatzeko eta koordinatzeko erak aldatzea.

4 saio presentzialen ondoren, bosgarren saio batean ikastetxeak azalduko du zer egin duen ahozko erabilera sustatzeko. Lana berrikusi eta dagozkion zuzenketak egin ondoren, ikastetxeak praktikan jarriko du hurrengo ikasturtean.

Ikastaro hauek oso modu positiboan baloratu dira oso praktikoak izateagatik.

### **Gaurkotze gramatikaleko eta euskara zuzen eta egokia erabiltzeko ikastaroak.**

Euskara Atalaren mende dagoen Uharteko Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroan (EIBZ) egiten dira eta Baliabide Zentro horretako irakasleek, batik bat, ematen dituzte. Bost ikastaro baino ez dituzte eman kanpoko espezialistek eta hizlariek.

Ondokoak dira 2008-2009 ikasturtean eman diren 36 ikastaroak: (Iturria: Euskara Atala)

### **EUSKARA HOBETZEKO IKASTAROAK. DATU KUANTITATIBOAK.**

<b>Koadroa 210 zk. Euskara hobetzeko ikastaroak. Datu kuantitatiboak</b>							
	Inskribatuak	Onartuak	Ikastaro kop.	Ordu kop.	Ordu kop.	Egiaztagiriak	
						Kok.	%
Freskatze ikastaroa	38	20	1	300	300	20	100
<b>Guztira</b>	<b>38</b>	<b>20</b>	<b>1</b>	<b>300</b>	<b>300</b>	<b>20</b>	<b>100</b>
<b>Gramatika eguneratzea, eta euskara zuzen eta egoki erabiltzea.</b>							
Euskaltzaindiaren araugintza I	12	12	1	20	20	7	58,5
Euskaltzaindiaren araugintza II	6	6	1	20	20	3	50
Hizkuntza aberasteko bideak	13	13	1	20	20	9	69,3
Sintaxia: zalantzak argitzeko bidean	17	17	1	20	20	12	70,6
Euskara hobetzeko on-line ikastaroa	205	205	1	35	35	123	60

**EUSKARA NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMAN**

Euskara hobetzeko on-line ikastaroa II	86	86	1	35	35	41	47,7
<b>Guztira</b>	<b>339</b>	<b>339</b>	<b>6</b>	<b>150</b>	<b>150</b>	<b>195</b>	<b>59,35</b>
<b>Irakaskuntzari aplikaturiko itzulpena.</b>							
Itzulpengintza: eskola idazkiak –on line-	59	25	1	35	35	15	60
Itzulpengintzarako teknologia berriak	41	41	1	35	35	36	87,8
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>66</b>	<b>2</b>	<b>70</b>	<b>70</b>	<b>51</b>	<b>73,9</b>
<b>Euskalkiak.</b>							
Nafarroako euskalkiak: hastapenak –on line	54	33	1	35	35	18	55,5
Tokian tokiko euskalkia eskolan jasotzen	13	13	1	24	24	11	91,7
<b>Guztira</b>	<b>67</b>	<b>46</b>	<b>2</b>	<b>59</b>	<b>59</b>	<b>29</b>	<b>73,6</b>
<b>Euskal Hizkuntza eta Literatura arloa.</b>							
Curriculum berria eta oinarriko gaitasunak	29	29	1	45	45	15	51,7
Euskararen erabilera sustatzeko baliabideak	67	67	2	35	70	57	85,1
Kamishibai euskaraz	14	14	2	20+10	30	13	92,85
Testuak irakaskuntzan: sorkuntza eta zuzenketa –on line-	23	23	1	35	35	5	21,75
Testuak irakaskuntzan: sorkuntza eta zuzenketa - moduluak-	31	31	3	20+20+16	56	23	74,2
A ereduko HHko material osagarria – lantaldea-	28	28	4	20+40+80	140	28	100
<b>Guztira</b>	<b>192</b>	<b>192</b>	<b>13</b>	<b>376</b>	<b>376</b>	<b>141</b>	<b>62,3</b>
<b>Teknologia berrien eta ikus-entzunezko baliabideen ikastaroak eta bestelako baliabideak.</b>							
0-5 urteko haurren jolas eta kankak	29	17	1	10	10	11	64,7
Eskolako egunkari digitala on line	28	28	1	35	35	4	14,3
Blogintza on line	73	73	1	35	35	28	38,35
Eskolako liburutegia eta irakurtzeko zaletasuna	46	46	1	40	40	25	54,35
EIBZko web orria ezagutu!	11	11	1	10	10	11	100
Interneteko baliabideak eskolan: web 2.0	40	40	1	35	35	10	25
<b>Guztira</b>	<b>227</b>	<b>215</b>	<b>6</b>	<b>165</b>	<b>165</b>	<b>89</b>	<b>49,45</b>
<b>Guztira</b>	<b>963</b>	<b>878</b>	<b>30</b>	<b>1120</b>	<b>1120</b>	<b>525</b>	<b>69,8</b>

#### **8.3.4. Teknikarien eta aholkularien prestakuntza**

Ikasturte honetan Euskara Ataleko eta EIBZko teknikariek eta aholkulariek, Iruñeko eta Lekarozko ILZetako aholkulari batzuekin batera, prestakuntza ikastaro zenbait egin dituzte.

On line ikastaroen eskaerari erantzute aldera teknologia berriei buruzko bi ikastaro egin dira.

Ikastaro bat MODDLE plataformaren baimenari buruzkoa izan zen eta bestea DOKEOS alegiazko plataformari buruzkoa.

Bestalde, ikasturte honetan jarraipena eman zaio Metodologia parte-hartzaileari buruzko prestakuntza prozesuari. Iaz Elhuyar Aholkularitzarekin jorratu zen gaia: sortutako lan taldeek agindu zitzaizen lanarekin jarraitu dute eta hizkuntza-eraldaketa prozesu zenbait gidatu dira, horietako 5 Euskara Atalaren kargura.

### **8.4. Hizkuntza indartzeko programak eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak.**

Euskara Atalak hizkuntza indartzeko programa eta jarduera ugari antolatu ditu, D, B eta A ereduetan eskolatutako ikasleek hizkuntza gaitasunak modu egokian garatu ditzaten, bai eskola curriculumean eskatutakoak, bai eskolaren esparruan zein irakasle-ikasle harreman zehatzetan artifizialak izaten ahal diren berezko erregistroak. Programak eta jarduerak arloaren programazioan txertatzen dira ikasle laguntzeko hizkuntzaren erregistro naturalak eskuratzen:

#### **8.4.1. HIZKUNTZA PROIEKTUAREN GAINEKO AHOALKULARITZA PROIEKTUA - "HIZKUNTZA ERALDATZEA"**

2008-2009 ikasturtean, eta ikastetxeek eskatuta, curriculumaren hizkuntza zenbaiti buruzko hizkuntza-sistematizazio plan batzuk egin dira 14 ikastetxetan.

Ikastetxe horietako bakoitzean abian da Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua, prozesu dinamiko gisa planteatua, non aztertu den ikastetxearen egoera eta ezarri diren hobekuntza ildoak alde aurretik ezarritako helburuak erdiesteko.

Hezkuntza Proiektua ikastetxeetan maila batean baino gehiagotan landu denez, ikastetxeak hiru urteko plana diseinatzen ari dira, non testuinguru jakin batean zehaztuko diren etorkizunean landuko diren hobekuntza ildoak.

Plan honen barruan sartuko dira hobekuntza ildoak, jardueren egutegia eta ikastetxearen barne nahiz kanpo ebaluazioan erreferentzia gisa erabiliko diren adierazleak. Ikastetxeek, egindako analisia balioetsi ondoren, heldu den ikasturterako hobekuntza proposamen batzuk idatzi dituzte. 2010-2011 ikasturtea bukatzean ikastetxe bakoitzak amaierako ebaluazioa egingen du, zikloka, non jasoko diren lortutako hobekuntzak eta aurrez ikusitako helburuen erdieste-maila, zeintzuk ahalbidetuko duten hurrengo planerako hobekuntza arloak ezartzea.

2008-2009 ikasturtean ikastetxeak eraldatzeko 5 prozesu burutu dira, 5 ikastetxetan. Prozesu horien gidari izan dira Euskara Ataleko teknikariak eta EIBZko aholkulariak.

Ikastetxeak ondokoak izan dira: **Mendialdea IP eta Berriozarko DBHI; Sanduzelai IP; Altsasuko San Miguel de Aralar DBHI, Elorri IP eta Elizondoko San Francisco IP.**



Hausnarketa praktikaren metodologia aplikatuz garatu diren prozesuek ahalbidetu dute ikastetxeek beren egungo egoeraren diagnostikoa egitea eta hurrengo bi ikasturteetan garatu beharreko helburu eta lan ildoak ezartzea.

Ikastaro hauetan parte hartu duten irakasleek egindako balorazioa oso positiboa izan da eta klaustro gehienak inplikatu dira. Irakasle horiei 35 prestakuntza ordu egiaztatu zaizkie.

Hurrengo ikasturtean ikastetxe horietako irakasleak lan taldeetan antolatuko dira, ikasturte honetan hasiera eman dioten lanari jarraipena emateko.

Euskara Atalak proposatu du hurrengo ikasturtean zehar gai monografikoen inguruko hiruzpalau saio informatibo egitea, talde horien motibazioa mantentzeko eta hezkuntza praktikaren hobekuntzan eragina izanen duten prestakuntza alderdi zenbaitetan sakontzeko helburuarekin. Saio horietan adituren baten informazio teorikoa eta esperientzia praktikoren bat uztartuko dira.

### 8.4.2. HIZKUNTZA BERRITZEKO PROIEKTUETARAKO SARIEN DEIALDIA - BERRIKUNTZA SARIAK

Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak otsailaren 11n emandako 41/2009 Ebazpenaren bidez euskararen irakaskuntzaren arloko berrikuntza proiektuetarako sarien deialdia egin zen. Deialdi honen helburua da saritzea ikastetxeetan euskararen erabilera sustatzeko egiten diren jarduerak, antolatzen eta planifikatzen dituzten berrikuntza proiektuak eta plangintza tresnetan adierazitako helburuak lortzea, betiere ikasleek darabilten hizkuntza erregistroak hobetze aldera.

Hezkuntza praktikaren gaineko berrikuntza eta ikerketa baliabide garrantzitsuenetakoa da irakasleen hobekuntza laguntzeko eta modu honetan beren esku-hartzea hobetzeko.

Eskolako Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzuko Euskara Atalak ikastetxeetako bost proiektu jaso ditu. Horiek azertu ondoren eta egindako eskaera ekonomikoaren arabera, erabaki zen 3.000 euroko zenbatekoa banatzea eta ondoko laguntzak ematea:

- Berako Labiaga Ikastola .....400 euro.
- Urdiaingo IP .....350 euro.
- Otsagabiko IP ... .....750 euro.
- Amaiur ikastola IP .....750 euro.
- Berako Ricardo Baroja IP .....750 euro.

### 8.4.3. SOLASKIDE PROGRAMA

D eta A eredu-tako DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleen mintzatzeko gaitasuna indartzeko programa da (aurten DBHko 3. mailako talde batzuk sartu dira).

Programaren baitan euskarazko mintzapraktikako laguntzaileak sartzan dira, astean behin ordubetez 20 astez, Euskal Hizkuntza eta Literaturaren irakasgaiaren barruan.

Helburu du mintzamen jarduerak indartzea orokorrean. Bestalde, diplomak lortzeko azterketa ofizialetara aurkeztu nahi duten ikasleen prestakuntza lantzen da.

Euskara Departamentuek beren taldeetara egokitzen diren mintzamen helburuak finkatzen dituzte eta programa eskatzen dute. Lan egiteko modua ondokoa da: taldea bitan banatzen da, ekoizpenen arreta pertsonalizatuagoa lortze aldera. Bi koordinatzailek programaren jarraipena egiten dute, eta laguntzaileekin, programaren teknikari arduradunarekin eta atalburuarekin biltzen dira.

<b>Talde kopurua</b>	<b>Ikasleak</b>
<b>66</b>	<b>1231</b>

*Iturria: Euskara Atala*

#### 8.4.4. BERTSOLARITZA IRAKASKUNTZAN

Programa honetan Lehen Hezkuntzako goi zikloko ikasleei 30 orduz zuzenean ematen zaie klase.

Taldeak, guztira	Ikastetxeak	Ikasle kopurua	Kostu ekonomikoa
42	20	840	48.000

*Iturria: Euskara Atala*

Deskribapena: ikasturtean zehar ikasleei 30 orduz ematen zaie klase zuzenean. Ikasgelan irakasle titularra ere egonen da. Irakasleak 12 unitate didaktiko eta DVDak biltzen dituen *Bertsolaritza Curriculumean* izeneko koadernoak jasoko du. Koadernoaren aurkezpena kurtso hasierako bilera batean egingen da, horrela irakasleek programan parte hartzen dute landu nahi dituzten unitate didaktikoak aukeratuz. Ikasgelan landutako edukia bertsoaren ezagutzari buruzkoa da: bertsoaren teknika (doinua, neurria, errima, oinak, puntua...) eta komunikazioaren estrategia [atzekoz aurrera estrategia].

Oinarritzko programa jarduera osagarriekin osatzen da (eguberrietako postala; bertsoa eskuz egindako postal batean. Irrati saioa. Bertso-antzerkia edo bertso-ipuina. Bertso-bilduma. Bertso-paper lehiaketa. Eskola arteko bat-bateko bertso lehiaketa. Jaialdiak...)

Programaren unitate didaktikoak jasotzen dituen koadernoaren 1.100 ale banatu dira.

#### 8.4.5. GAZTEEN LAGUNARTEKO ERREGISTROAK ERABILTZeko PROGRAMA - LAGUNARTEKO HIZKERA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleei zuzendua. Programan lagunarteko hizkeran espezializatutako begirale bat bada, ikasleekiko zuzeneko 10 esku-hartze orduetan arituko dena.

Deskribapena: ikastetxeko programazio orokorrean txertatutako jarduera osagarria. Programa Urtxintxa eta Ttakun erakundeek gainbegiratzen dute. Programaren edukia ondokoa da: ikasgelak osatzen duen taldean lagunarteko hizkeraren alderdi zenbait lantzen dira 2 orduko 5 saiotan edo ordubeteko 10 saiotan. Programan hiru unitate didaktiko daude, eta bertan hizkera ez-formala lantzen da, ondokoari buruzkoa, hain zuzen: aldarteak eta giza harremanak eta harreman ez-formalak. Unitate horietan gehien erabiltzen diren hitzen glosarioa prestatu da.

Taldeak, guztira	Ikastetxeak	Ikasle kopurua	Kostu ekonomikoa
8	7	170	8.000

*Iturria: Euskara Atala*

#### 8.4.6. EGONALDIAK EUSKARAZ

Egonaldiak 5 egunekoak dira, astelehenetik ostiralera, herri euskaldun batean, Arantzan eta Beintza-Labaienen, A eta D ereduak ikasleek euskara erabiltzen den giro natural batean bizi ahal izateko, hizkuntza gaitasunak eta trebetasunak garatzeko helburuarekin, batez ere ahozko ulermena, berezko erabilera ez-formala eta hitzunen arteko elkarrekintza naturala.

A ereduaren bete beharreko helburuak: hitz eta esamolde berriak ikastea eta ondoren horiek erabiltzea. Ikasleek hitz eta esamolde ugari ikasten dituzte jarduera berezietan, eta ondoren, kasu batzuetan, erabiltzen dituzte barnetegiko begirale edo langileei zuzentzeko; esaldi errazak erabiltzen dituzte.

D ereduaren bete beharreko helburuak: euskara erabiltzea beren egoera komunikatibo arruntetan eta dakiten euskara erabiltzea hizkuntzaren ohiko erabilera testuinguruan.

Parte-hartzea: ikasturte honetan 39 eskaera jaso dira. Programan 28 txanda hartzen ahal ditu soilik, hori dela eta, 36 eskaera onartu ahal izan dira, eta bertan 800 ikasle hartuko dute parte. Talde horietatik 15 D ereduakoz ziren eta 21 A ereduakoz.

Onartutako eskaerak	Txanda kopurua	Ikasle kopurua
36	28	800

*Iturria: Euskara Atala*

#### **8.4.7. UDALEKUAK**

Astebeteko udalekuak A eta D ereduakozko ikasleendako ingurune euskaldun batean (Arantza, Beintza-Labaien eta Zugarramurdi).

Deskribapena: A ereduakozko ikasleendako hizkuntza-esperientzia bat da, bere ingurunean euskara ezagutu eta erabiltzeko hizkuntza baliabide urriak dituztelako. Ez da euskara erabiltzera derrigortzen, eta dagoeneko ezaguna denarekin harremana eta horren aplikazioa ahalbidetzen da, ikasteko motibazioa indartuz.

Parte-hartzea: programan 873 ikasle sartzen al dira, txanda Arantzako eta Beintza-Labaiengo 18 txandetan.

#### **8.4.8.– IDAZLEAK ESKOLETAN**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleak euskal idazleekin egiten dituzten topaketak.

Deskribapena: idazleek ikastetxeak bisitatzen dituzte eta ikasleekin solasaldiak izaten dituzte, beren obra, teknikak, bizipenak etab. azaltzen dituzte eta ikasleek egindako galderei erantzuten diete. Aldez aurretik, ikasleek, irakasleak zuzenduta, idazleak aukeratutako testu bat prestatuko dute kritika egiteko.

Helburua: ikasgelara hurbiltzea euskal idazleen obra eta esperientzia pertsonala, ikasleen hizkuntza eta literaturarekiko interesa sustatzeko.

	Ikastetxeak	Topaketa kopurua	Kostu ekonomikoa
Publikoak	39	59	11.800
Itunduak	13	16	3.400
Guztira	52	75	15.200

*Iturria: Euskara Atala*

#### **8.4.9 EUSKARAZKO ANTZERKI TOPAKETAK**

Eskola antzerki topaketak, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko eta DBHko 1. zikloko ikasleei eskainiak eta gazteendako antzerki topaketak, DBHko eta Batxilergoko ikasleei eskainiak.

Helburua: hizkuntzaren erregistroen erabilera sakontzea, antzerkiak dituen hezkuntzarako ahalmenak ezagutzera eman, ikasleei aukera eman beren trebetasun sozialak eta pertsonalak hobetzeko.

TOPAKETAK	TALDEAK	PARTE-HARTZAILEAK
Eskola antzerki topaketak	16 talde	272 ikasle
Gazte antzerki topaketak	2 talde	20 ikasle
GUZTIRA	18 talde	292 ikasle

*Iturria: Euskara Atala*

#### **8.4.10. ZIENTZIA DIBULGAZIOKO HITZALDIAK - ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA HITZALDIAK**

Unitate didaktikoak dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ematen diren gai zientifiko eta teknologikoei egokitutako euskarazko erregistroekin.

Deskribapena: Elhuyar Fundazioak 32 unitate didaktiko ematen ditu. Unitate didaktiko horietako bakoitza elkarrekin ematen dute Elhuyarreko hizlariak eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko arlo

zientifiko-teknikoko irakasleak, eskola ordutegiaren baitan. Unitate zientifiko-teknikoei harremana dute Bigarren Hezkuntzako arlo zientifiko-teknikoetako intereseko gaiekin, besteak beste ondokoekin: ingurumena, energia kontsumoa, elikadura, natura, teknologia, etab.

Helburua: alde batetik, ikasleei hurbiltzea euskarazko ezagutza zientifikoa eta erregistro formalean hizkuntzaren ezagutza eta balioespena, eta bestetik, zeharkako moduan bada ere, ikasgelan eguneroko erabileratik desberdina den erregistroa eskaintzea. Jarduerak balio du, halaber, eguneratzeko ikastetxeko irakasleen ezagutza zientifiko-teknikoa, ezagutzaren arlo oso espezifiko baten espezialista batekin ezagutza partekatzeo aukera eskaintzen duelako.

Hitzaldiak, guztira	Ikastetxeak	Ikasle kopurua	Kostu ekonomikoa
32	14	839	9.176,64

Iturria: Euskara Atala

#### 8.4.11 ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK ETA JARDUERA OSAGARRIAK – EUSKARA ESKOLETAN

Hizkuntzarekin zerikusia duten jarduerak: partzialki finantzatzen da eskolaz kanpoko jardueren antolamendua (antzerkia, txotxongiloak, animazio jarduerak, musika iruzkinduna, herri kirolak, etab), euskararen erabileraren testuingurua areagotzeko asmoz.

Ondoko koadroko jarduerak ikasturteko lehen lauhilekoan egin ziren, urtarrila eta ekaina bitartean ez baitziren egin, aurrekontu falta tarteko.

	Publikoak	Publikoak	Itunduak	Osotara
Emandako jarduerak	149	50	20	169
Eskaturiko ikasle kopurua	24.151	7.612	2.709	26.860
Ikastetxe parte-hartzaileak	118	50	17	135

Iturria: Euskara Atala

#### 8.4.12. ESKOLA LEHIAKETAK – LEHIAKETAK EUSKARAZ

Lehiaketa hauek hogeigarren urtea bete dute honezkero, eta proposamen motibatzailea dira, sormena eta adierazmena sustatzeko. Ikastetxeek ikasleen gaitasun linguistikoa aberaste aldera egiten duten ohiko lana indartzera datoz.

Sariak emateko ekitaldia Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretoan egin zen. Halako aretoak prestigioa ematen dio jai kutsuarekin egiten den ekitaldiari. Ikasleek ekitaldi horretan diploma eta zeramikazko trofeoa jaso dute. Gainera, beraien lanak argitaratu egingen dira 1989etik Hezkuntza Departamentuak argitaratzen duen LENARRIAK VIII bilduman.

Literatura lehiaketa: narrazioa eta poesia modalitateak. Lehen Hezkuntzako goi zikloko ikasleei eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoei zuzendua.

Ikasle parte-hartzaileak osotara	Narrazio sariak	Poesia sariak	Sariak, osotara
343	8	6	14

Iturria: Euskara Zerbitzua

Etnografia lehiaketa (Jose Maria Satrustegi) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei zuzendua. Aldi honetan ez da lanik aurkeztu.

Deklamazio eta irrati gidioen lehiaketa (Pedro Diez de Ulzurrun), Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasleei zuzendua.

Grabazioak, osotara	Sariak, osotara
11	4

Iturria: Euskara Atala

Bertso paperen lehiaketa. 9 urtetik 16 urterako ikasleak, Lehen Hezkuntzakoak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak.

Ikasle parte-hartzaileak, osotara	Ikastetxe kopurua	Sarituak, osotara
1.436	59	12

*Iturria: Euskara Zerbitzua*

“Haur Kantari” haur kantuen lehiaketa, 4 kanporaketa eta finala:

	PARTE-HARTZAILEAK					IKUSLEAK
	Tutera	Elizondo	Antsoain	Altsasu	Osotara	
Finalurrekoak	81	212	130	162	585	1500
Finala	Gaiarre Antzokia				200	700

*Iturria: Euskara Zerbitzua*

#### **8.4.13 IPUIN KONTALARIA - KONTU KONTARI**

“KONTU KONTARI” programa, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan 25 ikasle baino gutxiago dituzten herri eskoletako ikasleei zuzendua.

Deskribapena: ipuin kontalari bat ikastetxeetara joanen da, eta bertan zenbait ipuin kontatuko dizkie ikasleei, hainbat teknika erabiliz: txotxongiloak, kamishibai,...

Helburua: ikasleei ahozko narrazioaren aberastasuna eta barietatea ezagutaraztea, irakurzaletasuna sustatzea eta irakasleei errefortzurako eta irakurzaletasuna sustatzeko elementu motibatzaileak ematea.

Kostu ekonomikoa: 3654 euroko aurrekontua dago, eta horrek aukera ematen die 21 ikastetxeri programan parte hartzeko, nahiz eta eskaria handiagoa izan.

#### **8.4.14.- BERTSO ESKOLAK**

Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako goi zikloko ikasleendako eskolaz kanpoko jardueretara zuzenduriko laguntza (bi eta lau ordu bitartean, asteko).

Deskribapena: eskolaz kanpoko ordutegian egiten den jarduera da. Astean gutxienez ere bi ordu eta gehienez lau orduko jarduera. Bertan, ikasleek bertsoak egiten ikasiko dute. Jarduera ikastetxeko gurasoen elkarteak eskatuko du eta ikastetxeek eskaera orria igorriko dute Euskara Atalera. Bertan aditzera ematen da zein talde eta zein ordutegitan sortuko den, nor den jardueraren irakasle arduraduna eta ikastetxeek kontrataturiko bertsolaria. Ikastetxeko planaren baitan sartuko da, eta nahitaez eskola kontseiluak onetsi beharko du.

Ikastetxeak	Ikasle kopurua	Kostu ekonomikoa
13	164	10.000

*Iturria: Euskara Zerbitzua*

### **8.5. Nafarroako Gobernuak luzatzen duen euskararen gaitasun agiria (EGA).**

Aurreko Foru Aginduan egindako aldaketetan, bi deialdi independente ezarri ziren. Aipatzekoa da egindako balioespena positiboa izan dela. Gure ustez, sistema hauxe da koherenteena eta emaitzak aztertzeko baliagarritasun eta fidagarritasun handiena ematen diguna. Izan ere, orain arte emaitzak baldintzatuak baitziren, izangaiak aukera zuelako proba berera birritan aurkezteko, ekainean eta irailean, deialdi bakar baten barruan.

2010eko deialdirako proposatu dena da prozesu guztia egin ahal izatea Internet bidez, matrikula egiten denetik erreklamazioak aurkeztu arte.

Epaimahai ofizialak behar bezala bete ditu probak egiteari eta zuzentzeari dagozkion lan teknikoak, eta baita erreklamazioei erantzutea ere.

Kontuan izanik kide berriak sartu direla epaimahai ofizialean, komenigarri iritzi genion bere astia ematea ahozko eta idatzizko proben zuzenketarako irizpideak bateratzeari. Horretarako, proba idatziaren zuzenketarako eredu bat egin genuen, eta 2009an egindako 4 azterketa hautatu ziren. Hori guztia epaimahaikideei igorri zitzairen, igorritako azterketak kalifika zitzaizten. Martxoaren 24an lan saio bat egin zen EGAko epaimahai ofizialeko kide guztiekin. Proben kalibrazioaren emaitza asebetegarria izan zen, %82an bat baitzetozen kalifikazioak.

Batzorde ofizialari honako lanak esleitu zaizkio:

- Probak antolatzea, diseinatzea eta gainbegiratzea.
- Proben diseinatzaileak hautatzea.
- Erreklamazioen erantzuna koordinatzea.
- Probak ebaluatzeke eta zuzentzeko irizpideak ezartzea eta irizpide horiek epaimahaiak aplikatu ditzan zaintzea.

EGAko batzorde ofiziala bederatzi lagunek osatu dute, tartean Euskara Ataleko teknikariak, EIBZko irakasleak, itzultzaileak eta euskararen irakaskuntzaren eremuko profesionalak. Bi lan talde daude: Zuzentze taldea (hizkuntza zuzenketarako taldea), azterketen zuzenketara eta gainbegiratzera bideratua, eta Irizpide taldea, ebaluazio eta ebaluazio irizpideak idaztera eta proben zuzenketara bideratua.

Testaren aurreko eta ondorengo azterketa estatistikoak eta txosten psikometrikoak ere egiten jarraitu dugu, ondoren azterketan jarriko diren itemak hautatzeko eta aztertzeko nola funtzionatu izan duten azterketan. Ikerketa horiek baliatuta egiten dira zuzenketaren, zuzentzaileen fidagarritasunaren, datu orokorren azterketaren eta item bakoitzaren datuen (testatzeak) gaineko txostenak.

Eusko Jaurlaritzako EGA batzorde ofizialarekin lankidetzan ere aritu gara.

Hizkuntza Aztertzailen Europar Elkartearen (ALTE) eskubide osoko kidearen estatusa erdieste aldera, auditoria txostenak prestatzen jarraitzen dugu.

Txostenek kalitate profilen 17 gutxieneko estandar dituzte, eta ondoko 5 puntuen gainekoak dira:

1. Azterketak egitea
2. Administrazioa eta logistika
3. Puntuazioa eta kalifikazioa
4. Azterketen gaineko analisia
5. Parte hartzaileekiko komunikazioa

Aipaturiko azalpena egiteko prozesua ez da izapide hutsa, aitzitik, aukera bat da puntu hauen guztien gainean hausnartzeko eta hobekuntzak aktibatzeke. Hauxe da, hain zuzen ere, orain bizi dugun unea: azalpena idatzia dugu, hots, egina dugu kalitatearen gutxieneko parametroen gaineko txostena, eta puntuetako bakoitza hobekuntza aukera bat da, aztertu beharrekoa, eta hala badagokio, martxan jarri beharrekoa.

ALTEK, bere kideei auditoriak pasatu ahala, hasierako urrats horien bidez jasotako esperientzia baliatuz joan da auditatzeko prozesuak hobetzeko eta egokitzeke. Lan hori "Code of Practice" lan

taldearen bidez gauzatzen ari da, eta horrela, egoki iritzi genion bertan parte hartzeari, lehen eskuko informazioa eskuratu ahal izateko eta gure ikuspegia eman ahal izateko. Talde hau Alcalá-n eta Santiagon bildu izan da koordinazio lanetarako, eta ikasturte osoan zehar jarraitu dugu elkarlanean eta materialak partekatzen, posta elektronikoaren bidez.

“Code of Practice Special Interest Group” taldeak sortu duen material guztiak markatuko du auditatze prozesu berria, ALTEk gure eskaerari baietza ematen dion unetik hasita. Ondorioz, gutxieneko parametroak eta gainontzeko dokumentazioa eskura izateak aukera eman digu alde aurretik prestatzen joateko eskatuko zaigun material guztia, izan ere, material hori ez baita aldatu elkartean kide afiliatu bezala sartu ginenetik.

ALTEk aukera ematen du bere webgunean, gehienez ere orri bateko luzerarekin, gure egiaztagirien eta gure erakunde publikoaren gaineko informazioa emateko. Ikasturte honetan aipamen labur bat idatzi dugu, ondoko helbidean kontsulta daitekeena:

[http://www.alte.org/affiliates/institutional\\_affiliates.pdf](http://www.alte.org/affiliates/institutional_affiliates.pdf)

Prestakuntza saio bat ere egin dugu, Nafarroako hizkuntza eskola ofizialei zuzendua. Prestakuntza saioan testatzearen gaia landu zen, azken bi urteetan izan dugun esperientzian oinarriturik. Helburua erabat praktikoa zen, nahiz alde teorikoa ere bazuen.

Esleituriko zeregin garrantzitsu bat helduen irakaskuntzarako curriculumak prestatzea izan da. Bi lantalde antolatu dira, helduen irakaskuntzarako curriculumak prestatzeko, maila guztietan, eta Europako Erreferentzia Marko Bateratuarekin bat. C1 maila prestatzearen ardura, maila hori baitagokio EGA ziurtagiriari, Euskara Atalaren gain gelditu da. Xede horrekin antolaturiko lantaldea lankidetzan ari da A1-B2 mailak prestatzeko ardura dutenekin, hain zuzen ere, Euskarabidekoekin.

<b>Koadro 209 zk. – Luzatutako EGA tituluaren bilakaera, 2005-2008 ikasturteak</b>				
<b>Urtea</b>	<b>Matrikulatuak</b>	<b>Aurkeztuak</b>	<b>Gaindituak</b>	<b>Ehunekoak</b>
2005	759	703	139	19,77
2006	749	679	142	20,91
2007	633	556	94	16,91
2008	928	784	139	17,73

*Iturria: Euskara Atala*

Probak gaingitu zituztenez gain, 2008an, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko dekanoren eskariz, 17 EGA titulu luzatu zitzaizkien Irakasle ikasketetako 17 ikasleri, abenduaren 31ko 1329/1988 Foru Ainginduan ezarritakoarekin bat.

## **8.6. EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO BALIABIDE ZENTROA**

Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa (EIBZ) Euskara Atalaren mendeko zentroa da. Uhartan dago kokatua, eta hamar irakasle ari dira bertan.

### **Lehentasunak egindako lanean:**

2008-09 ikasturtean lehentasunezko ondoko zereginak landu dira:

- \* Hizkuntza plangintzako proiektuen jarraipen batzordeetan parte hartzea
- \* Irakasleen prestakuntzarako jarduerak egitea.
- \* Hizkuntzen trataera integratua.
- \* ALTEko kide iraunkorraren estatusa erdiestea: auditoriari aurre egiteko behar diren lanak, eta bereziki, horretarako behar den dokumentazioa prestatzea.
- \* C1-eko curriculum prestatzea.

### **Lan prestakuntzako ikastaroak, lizentzia partzialarekin: freskatze ikastaroa**

EIBZko irakasleek irakasleen prestakuntzarako ikastaroa eman dute, 300 ordu freskatze lan lizentziarekin: 200 ordu bertaratu beharrekoak eta 100 ordu lan estentsibokoak.

Irakasleen balioespena hagitik positiboa izan da, eta heldu den ikasturterako eskaerak plaza kopurua bikoiztu egin da, osotara 20 plaza izaten baitira. Bertaratu beharreko orduen kopurua ere handitu da, aurreko ikastaroko 150etik ikastaro honetako 200 orduetara.

### **Eman edo koordinatu diren ikastaroak.**

2008-2009 ikasturtean irakasleak prestatzeko 36 ikastaro eman dira, eta horietatik 31 zuzenean eman dituzte EIBZko irakasleek, 8.3.3 puntuan aipatzen den gisa.

### **EIBZk egin dituen beste lan batzuk:**

- Proben prestaketan eta EGA epaimahaian parte hartzea.
- A ereduko irakasleen koordinazioa, materiala prestatzeko.
- Liburutegian informazioa katalogatzea eta jasotzea.
- Maleta bidaiariak: liburu maileguak egitea ikastetxeei.
- Webgunearen mantentze lanak eta autoikaskuntza gela.
- Atalaren eta EIBZren informazio buletina.
- Ikastetxeen kontsultak.
- Hezkuntza materialen prestakuntza: araugintza, irakurketarekin gozatuz eta bestelakoak.
- Eskolako hizkuntza plangintzako jardueretan parte hartzea.
- Koordinazio bilkurak.
- EIBZko irakasleen prestakuntza.



## 9. HEZKUNTZAKO AURREKONTUAK

---

Kapitulu honen xedea da Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren bilakaera erakustea, ekonomiaren ikuspuntutik begiratuta.

“Konparatzeko datu orokorrak” izenburua duen 9.1. atalean Nafarroan hezkuntzan egindako gastuaren datuak jasotzen dira, Espainiako eta Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeak (OCDE) herrialdeetako testuinguruaren barruan. Datuen iturriak koadro bakoitzaren azpian adierazten dira.

“Hezkuntza Departamentuko gastuen aurrekontua” izenburua duen 9.2. atala Nafarroari buruzkoa da soilik. Informazio iturria, koadroen azpian adierazitako salbuespenetan izan ezik, Hezkuntza Departamentua izan da eta informazioa Nafarroako Parlamentuak onetsitako Nafarroako kontu orokorretan oinarrituta dago. Datuak, beraz, gauzatutako aurrekontuei dagozkie. Atal honetan ez da bildu tokiko jardueretatik eratorritako hezkuntzako gastua, ezta familia ere; kontu hau garrantzitsua da hezkuntzako gastua eta BPGaren arteko loturaren bat egin nahi bada.

9.3. atalean aurrekontua osatzen duten kapituluetakoa kontzepturik esanguratsuenen bilakaera jasotzen da.

9.2. eta 9.3. ataletan zenbait koadro tartekatu dira: 1991n (Nafarroak hezkuntzan eskumen osoa baliatu zuen lehengo urtea), 2000n eta 2005ean gauzatutako aurrekontuei buruzkoak. Horren helburua da 1990-2000 urteetan aztertuarekin (1990-2000 ikasturteetako Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko txostenean dago jasota) lotura egitea da.

### 9.1. Konparatzeko datu orokorrak

210. koadroa - Nafarroako Barne Produktu Gordinari buruzko informazio orokorra, 2003/2008				
Urtea	Nafarroako BPG (milioika eurotan)	NAFARROAKO BPG per capita (eurotan)	ESPAINIAKO BPG per capita (eurotan)	Naf./Es. x 100
2003	12.555,3	23.004	18.250	126,1
2004	13.544,3	24.690	19.456	126,9
2005	15.472,2	26.489	20.838	127,1
2006	16.475,1	27.856	22.260	125,1
2007	17.697,8	29.483	23.396	126,0
2008	18.674,3	30.614	24.020	127,4

Iturria: Espainiako Kontabilitate Erregionala, 2000ko oinarria. Estatistika Institutu Nazionala

211. koadroa - Hezkuntzako gastuaren bilakaera eta BPGarekin erlazioa Espainian				
Urteak	Gastu publikoa		Familien gastua hezkuntza zerbitzuetan	
	Zenbatekoa (milioika €)	BPGaren %	Zenbatekoa (milioika €)	BPGaren %
1997	22.785,3	4,52	5.528,0	1,10
1998	23.998,6	4,45	5.899,0	1,09
1999	25.688,4	4,43	6.191,0	1,07
2000	27.407,0	4,35	6.202,0	0,98
2001	29.208,2	4,29	6.526,0	0,96
2002	31.440,9	4,31	6.895,0	0,95
2003	33.938,1	4,33	7.154,0	0,91
2004	36.961,1	4,39	7.457,0	0,89
2005	38.960,0	4,29	8.013,0	0,88
2006	42.368,3	4,30	8.398,0	0,86
2007 <sup>1</sup>	46.256,0	4,39	8.810,0	0,84
2008 <sup>2</sup>	50.155,2	4,61	8.936,0	0,81

Iturria: 2008/2009 eta 2009/2010 ikasturteetako datuak eta zenbakiak, Hezkuntza Ministerioa

<sup>1</sup> Behin-behineko datua.

<sup>2</sup> Badaezpadako zifra, hasierako aurrekontuetan oinarritua.

<b>212. koadroa - Hezkuntzako gastu publikoa eta pribatua Europar Batasuneko hezkuntza zentro eta erakundeetan, BPGaren %tan adierazita, funtsen jatorriaren arabera. 2005. urtea</b>			
<b>Esparrua<sup>3</sup></b>	<b>Gastu publikoa<sup>4</sup> BPGaren %</b>	<b>Gastu pribatua<sup>5</sup> BPGaren %</b>	<b>Guztira</b>
<b>Europar Batasuna</b>			
Alemania	4,2	0,9	5,1
Austria	5,2	0,4	5,5
Belgika	5,8	0,2	6,0
Danimarka <sup>6</sup>	6,8	0,6	7,4
<b>Espainia</b>	<b>4,1</b>	<b>0,5</b>	<b>4,6</b>
Finlandia	5,9	0,1	6,0
Frantzia	5,6	0,5	6,0
Grezia	4,0	0,3	4,2
Herbehereak	4,6	0,4	5,0
Hungaria	5,1	0,5	5,6
Eire	4,3	0,3	4,6
Italia	4,3	0,4	4,7
Luxenburgo <sup>7</sup>	m	m	m
Polonia	5,4	0,6	5,9
Portugal	5,3	0,4	5,7
Erresuma Batua	5,0	1,2	6,2
Txekiar Errepublika	4,1	0,6	4,6
Eslovakiar Errepublika	3,7	0,7	4,4
Suedia	6,2	0,2	6,4
<b>Beste herrialde batzuk</b>			
Islandia	7,2	0,7	8,0
Norvegia	5,7	m	m
Suitza	5,6	m	m
<b>EBko 19en batez bestekoa</b>	<b>5,0</b>	<b>0,5</b>	<b>5,5</b>
<b>OCDEko herrialdeen batez bestekoa</b>	<b>5,0</b>	<b>0,8</b>	<b>5,8</b>
<b>OCDE GUZTIRA</b>	<b>4,6</b>	<b>1,5</b>	<b>6,1</b>

*Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko txostena, 2007/2008 ikasturtea, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua.*

Aurreko koadrotik ondorioztatu daitekeenez, hezkuntza zentro eta erakundeetako gastu publikoa Espainian BPGaren % 4,6 da, beraz, OCDE edo Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeetako herrialdeetako ( % 6,1) baino txikiagoa da. Espainian gastu pribatua BPGaren % 0,5 da, eta OCDEn, berriz, % 0,8.

<sup>3</sup> Danimarka, Grezia eta Portugalen familiendako diru-laguntzak ez dira gastu publikoan sartzen, pribatuan baizik.

<sup>4</sup> Horren barruan sartzen dira hezkuntza erakundeetarako familiei ematen zaizkien diru-laguntza publikoak. Horretaz gain, hor sartuta daude hezkuntza erakundeetara bideraturik dauden nazioarteko zeharkako gastuak.

<sup>5</sup> Hezkuntza erakundeetako emandako laguntza publikoak kenduta.

<sup>6</sup> Maila batzuk beste zutabe batzuetan sartuta daude.

<sup>7</sup> Maila batzuk beste zutabe batzuetan sartuta daude.

<b>213. koadroa - Gastu publikoa eta pribatua hezkuntza erakundeetan, BPGaren %tan adierazita, ikasketa mailen arabera<sup>8</sup>. 2005. urtea</b>				
<b>Esparrua</b>	<b>Haur Hezkuntza</b>	<b>Lehen eta Bigarren Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzaren ondokoa</b>	<b>Unibertsitateko ikasketak</b>	<b>Guztira</b>
<b>Europar Batasuna</b>				
Alemania	0,5	3,4	1,1	5,1
Austria	0,5	3,7	1,3	5,5
Belgika	0,6	4,1	1,2	6,0
Danimarka	0,8	4,5	1,7	7,4
<b>Espainia</b>	<b>0,6</b>	<b>2,9</b>	<b>1,1</b>	<b>4,6</b>
Finlandia	0,4	3,9	1,7	6,0
Frantzia	0,7	4,0	1,3	6,0
Grezia	X	2,7	1,5	4,2
Herbehereak	0,4	3,4	1,3	5,0
Hungaria	0,8	3,4	1,1	5,6
Eire	n	3,4	1,2	4,6
Italia	0,5	3,3	0,9	4,7
Luxenburgo <sup>9</sup>	X	3,7	m	m
Polonia	0,6	3,7	1,6	5,9
Portugal	0,4	3,8	1,4	5,7
Erresuma Batua	0,3	4,6	1,3	6,2
Txekiar Errepublika	0,5	3,0	1,0	4,6
Eslovakiar Errepublika	0,5	2,9	0,9	4,4
Suedia	0,5	4,2	1,6	6,4
<b>Beste herrialde batzuk</b>				
Islandia	0,8	5,4	1,2	8,0
Norvegia <sup>10</sup>	0,3	3,8	1,3	5,7
Suitza <sup>11</sup>	0,2	4,4	1,4	6,1
<b>EBko 19en batez bestekoa</b>	<b>0,5</b>	<b>3,6</b>	<b>1,3</b>	<b>5,5</b>
<b>OCDEko herrialdeen batez bestekoa</b>	<b>0,4</b>	<b>3,8</b>	<b>1,5</b>	<b>5,8</b>
<b>OCDE GUZTIRA</b>	<b>0,4</b>	<b>3,7</b>	<b>2,0</b>	<b>6,1</b>

Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko txostena, 2007/2008 ikasturtea, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua.

Oharra: x-ak adierazten du datua beste zutabe batzuetan sartua dagoela.

<sup>8</sup> Nazioarteko gastuak barne.

<sup>9</sup> Erreferentzia urtea 2006a.

<sup>10</sup> Gastu publikoa bakarrik

<sup>11</sup> Hirugarren Hezkuntzan bakarrik.

<b>214. koadroa - Hezkuntza erakundeetara bideratutako funts publiko eta pribatuen proportzio erlatiboa, hezkuntza maila guztiak kontuan hartuta. 2005. urtea</b>		
<b>Esparrua</b>	<b>Finantzaketa publikoa</b>	<b>Finantzaketa pribatua<sup>12</sup></b>
Alemania	82,0	18,0
Austria	91,4	8,6
Belgika	94,2	5,8
Danimarka	92,3	7,7
<b>Espainia</b>	<b>88,6</b>	<b>11,4</b>
Finlandia	97,8	2,2
Frantzia	90,8	9,2
Grezia	94,0	6,0
Herbehereak	91,4	8,6
Hungaria	91,3	8,7
Eire	93,7	6,3
Italia	90,5	9,5
Luxenburgo	m	m
Portugal	92,6	7,4
Polonia	90,7	9,3
Erresuma Batua	80,0	20,0
Txekiar Errepublika	87,6	12,4
Eslovakiar Errepublika	83,9	16,1
Suedia	97,0	3,0
<b>EBko 19en batez bestekoa</b>	<b>90,5</b>	<b>9,5</b>
<b>OCDEko herrialdeen batez bestekoa</b>	<b>85,5</b>	<b>14,5</b>

*Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko txostena, 2007/2008 ikasturtea, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua.*

<sup>12</sup> Hezkuntza erakundeei ordainketak egiteko laguntza publikoak ere sartuta daude.

215. koadroa - Ikasle bakoitzeko urteko gastua hezkuntza erakunde publiko eta pribatuetan, 2005. urtea (AEBko dolarretan)					
Esparrua	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketak unibertsitatekanpo	Unibertsitateko ikasketak <sup>13</sup>
<b>Europar Batasuna</b>					
Alemania	5 508	5 014	7 636	10 531	7 772
Austria	6 562	8 259	9 751	x	10 061
Belgika	4 816	6 648	7 731	x	8 046
Danimarka	5 320	8 513	9 407	x	m
